

ho bizarrik gabe

solasaldi zikloa

*martxelo otamendi
juan jose ibarretxe
benito lertxundi
maddalen iriarte
jose maria setien
amets arzallus
jesus egiguren
jon sarasua
edurne brouard
fermin muguruza
ramon saizarbitoria
gaizka garitano*

2013-2015, azpeitia, sanagustin kulturgunea



*antolatzaileak: azpeitiko kultur mahaia, erlo telebista, sanagustin kulturgunea,
urola kostako hitza, uztarrria komunikazio taldea*

aurkibidea

<i>martxelo otamendi</i>	7
<i>juan jose ibarretxe</i>	25
<i>benito lertxundi</i>	41
<i>maddalen iriarte</i>	47
<i>jose maria setien</i>	55
<i>amets arzallus</i>	63
<i>jesus egiguren</i>	77
<i>jon sarasua</i>	95
<i>edurne brouard</i>	109
<i>fermin muguruza</i>	119
<i>ramon saizarbitoria</i>	125
<i>gaizka garitano</i>	137

2016ko otsaila

argitaratzaileak: zikloaren antolatzaileak

azala: aitor bengoetxea

editore lana, diseinua eta maketazioa: azpeitiko kultur mahaia

Kontaktua: azpeitikokulturmahaia@gmail.com

Oro har bi hilean behin hontaz eta hartaz jende ezagun eta euskaldunarekin solasean aritzeko helburuarekin sortu genuen *Aho bizarrik gabe* zikloa, 2013an. Pare bat urtean, behintzat, kalitateko eta prestigioko saioak euskaraz antolatzea Azpeitian, horixe zen asmoa. Hamabi lagun etorri ziren Sanagustin kulturgunera, euren gogoetak plazatzera: Martxelo Otamendi, Juan Jose Ibarretxe, Benito Lertxundi, Maddalen Iriarte, Jose Maria Setien, Amets Arzallus, Jesus Egiguren, Jon Sarasua, Edurne Brouard, Fermin Muguruza, Ramon Saizarbitoria eta Gaizka Garitano. Herriko beste horrenbeste lagunek jarritako gaien bueltan aritu ziren solasean, batez beste ehunen bat lagunuen aurrean.

Haien hausnarketa esanguratsuak orain sareko liburu honetan bildu ditugu, saioak ahal den irakurgarrien eskainiz (*Erlo Telebistaren bideoetan, saioak osorik: azpeitikokulturmahaia.com/abg*).

Aho bizarrik gabe zikloaren antolatzaileok izandako lankidetzaren balioa ere azpimarratu nahi dugu. Bakoitzaren ezaugarriez baliatuz, solasaldien zabalkude askotariko eta zabala egin genuen. Liburu hau da –hedapena barne–, ahalegin horren beste froga bat.

Eskerrik asko guztioi, eta segi dezagun euskaraz bizitzen.

*azpeitiko kultur mahaia, erlo telebista, sanagustin kulturgunea,
urola kostako hitza, uztarria komunikazio taldea,
2016ko otsailaren 1a, azpeitia*

martxelo otamendi

berria-ko zuzendaria



*mikel aiestaran,
2013ko otsailaren 19a*

‘EGUNKARIA’, ATXILOKETA

Egunkaria-ren kontrako operazioaren bezperan, 2003ko otsailaren 19an –gaur hamar urte–, Azpeitira etorri nintzen hitzaldi bat ematera. Euskarazko kioskoari buruzko hitzaldi bat izan zen, pixka bat azaltzeko jendeari zer eskaintza egiten zitzaion eta zer egoera zegoen. Eman nuen hitzaldia Zaharretako areto batean, eta, bukatutakoan, gogoratzen naiz egoitza horretatik jaitsi eta Plaza Txikian antolatzaile batek esan zidala: “Hemen badaude bizpahiru lagun ezagutzen ez ditugunak eta gu zelatatzen ari direnak”. Eta hala izan zen. Bazeuden bi edo hiru, txamarrako lepoa altxatuta eta bisera amerikano batzuekin; euri lanbroa ari zuen. “Ez dira herrikoak”, esan zidaten. Basoerdi bat hartzera joan ginen, eta gero autoa hartu nuen, Tolosarako. Errezildik joan nintzen.

Azpeititik atera eta berehala, *auto sandwich* bat egin zidaten: aurretik jarri zuten auto bat, eta beste bat, atzetik. Ni banindoan etxera, baina eskatu gabeko eskolta bat jarri zidaten... Utzi nuen kotxea Tolosan, lur gaineko aparkaleku batean. Kotxetik atera nintzenean, batzuk bizkarra emanda zeuden, zelatatzen bezala.

Guk inozentzia galdu genuen gau hartan. Orduan bazeuden telefono mugikorrak; 2003. urtea zen. Azpeititik Tolosarako bidean ez zitzaidan bururatu inori deitzea, esateko ‘aizu, auto bat daukat aurrean, beste bat atzean...’. Gainera, nabarmena zen: ez neukan auto bat 50 metrora eta bestea 200era; hamar metrora neuzkan. Baina ez nion inori deitu telefonoz, nik ez nuen ikusten nire burua arriskuan. Etxera joan nintzen, eta handik ere, ez nuen deirik egin. Neure artean nioen: ‘Bihar aipatuko diet lankideei, eta igual abokatuari deituko diot’. Ikusiko nuen, nire inozentzia hartan.

Afaldu nuen, sukaldea jaso, eta ohera. Lo nengoela, goizeko ordu-

bata eta erdietan, kolpe bat entzun nuen etxeko atean. Esan zuten, gazteleraz: “¡*Abra, Guardia Civil!*” [Ireki, Guardia Zibila!]. Pijaman ireki nien atea eta guardia zibil batzuk ikusi nituen. Haietako bat pistolarekin ari zen apuntatzen nire burura, metro eta erdi bateko edo bi metroko distantzian. Galdetu zidaten: “Inor gehiago ba al dago etxean?”. Esan nien ezetz, ez zegoela inor. Eskuburdinak jarri zizkidaten, eskuak atzera eramanda. Barrura sartu ziren, begiratu zuten segurtasun aldetik ez zegoela arriskurik, eta orduan auzitegiko idazkaria igo zen. Idazkariak esan zidan: “Atxilotuta zaude, [Espainiako] Auzitegi Nazionaleko Juan Del Olmo epailearen aginduz, ETArekin kolaboratzeagatik edo ETako kide izateagatik. Inkomunikatuta zaude, eta *Euskaldunon Egunkaria* itxita dago, epailearen aginduz”.

Orduan hasi zen bost orduko miaketa bat etxean. Bost orduko miaketa bat ere izan zen Andoainen, Martin Ugalde Kultur Parkean, *Egunkaria*-n neukan eta gaur egun *Berria*-n dudatan bulegoan –leku bera da–. Gero bost egun egin genituen atxilotuta Madrilen, Guardia Zibilaren egoitza baten, inkomunikatuta, haietako hiru egunetan torturatuta, gero kalera atera, torturak salatu...

TORTURA

Ni ere bost egunez inkomunikatuta egon nintzen, eta epailearen aurrera eraman ninduten ondoren. Epaileak ni aske uztea erabaki zuen, bermepean, 30.000 eurokoan, eta esan zidan: “Bitartean Soto del Real kartzelara joango zara”. Epaileak niri galderak egin eta gero, esan nion: “Eta orain kontatu nahi dizut zer egin didaten hauek”. Hark: “Ba, kontatu”. Eta orduan, kontatu nion; gainera, grabatzen ari ziren nire deklarazio guztia. Epaileak esango zuen: ‘Hau kalera doa, 30.000 euroko bermearekin. Baina kalera atera-

tzen badut oraintxe bertan, hemen, 30 komunikabide dauzka zain'. Izan ere, ordurako filtratuta zegoen ni kalera aterako nintzela, Espainian ez baitira egunero ixten egunkariak, atxilotzen direktiboak... Epaileak esan zuen: "Bermea iritsi bitartean, Soto del Realera [kartzelara], besteekin batera".

Soto del Realen egon nintzen arratsaldeko lauretatik bederatziak eta laurden arte. Eta hor publikoki aitortu behar da ETBren zuzendaritzak, albistegietako arduradunek, esan zutela bederatziatan: "Martxelo Otamendi ateratzeko zain gaude. Ateratzen bada informatiboan gauden bitartean, zuzenean sartuko dugu". Eta halaxe gertatu zen. Bederatziak eta laurdenetan atera nintzen, eta momentu horretan zuzenean konektatu zuten. Tortura salaketa batzuk egin nituen, nireak, eta nire lagunenak, atxiloketa kideenak. Inkomunikatuta egon nintzen bost egunetan ez nekien zein gehiago zegoen atxilotuta, baina kartzelan sartu ginenean inkomunikazioa altxatu egin ziguten eta orduan izan nuen aukera hitz egiteko Xabier Alegriarekin, Joan Mari Torrealdairekin... Ni kalera nindoan; haietako batzuk, barrura, eta esan nien: "Esaidazue zer egin dizueten, nik gero kontatzeko". Nik kontsekuente izan behar nuen ordura arteko nire jardunbide profesionalarekin. Egunkari bateko zuzendaria nintzen, tortura salaketa askoren berri eman genuen, komunikabideetan tertulietan-eta tokatu zitzaidan salaketei buruz hitz egitea...; orduan, niri egindakoak ezin nituen isildu. Indarra baldin baneukan kontatzeko, kontatuko nituen; indarrrik ez baneukan, *jan* egingo nituen. Indarra topatu nuen. "Zuzenean sartuko zara", aipatu zidaten; zuzenean sartu nintzen eta adierazpen haiek egin nituen. Geroztik jende askok esan dit kalean: etxean telebistari begira zeudela eta batzuk negarrez hasi zirela, jendea penatuta zegoela, ezin zutela sinistu. Gure tortura salaketek daukaten fondoa da, Joan Mari Torrealdai, Txema Auzmendi, Xabier Alegria, Xabier Oleaga, Iñaki Uria,

Martxelo Otamendirekin hau egiten badute, zer ez dute egingo hemezortzi urteko batekin, kalera atera eta mikrofono bakar bat ere topatzen ez duen batekin? Alegia, gurekin ausartu baziren, eta arrisku hori hartu bazuten, zer ez dute egingo gazte batekin, edo ETako kide garrantzitsua izan litekeen batekin? Gure kasuan bazekiten ez zutela ezer aterako, baina ETako ustezko kide garrantzitsu batengandik atera dezakezu informazio asko. Beraz, gure tortura salaketa izan zen, seguru aski, jende askorentzat begiak irekitzeko modu bat. Txema Auzmendi torturatzen badute, eta torturak asmatu egin genituela esatea, gezurra direla...

Beti gogoratuko naiz emakume batek esan zidanaz: “Asko sentitzen dut zuei hau gertatu izana, baina bazen garaia jende ezagunari hau gertatzeko. Nire alabari hori eta okerragoa egin zioten, eta inor ez zen gogoratu harekin”. Nik ondo hartzen dut emakume horrek hori esatea, pentsatzen duelako gu bezalakoek bakarrik gelditu dezakegula tortura, salaketekin.

Tortura lan egiteko modu bat da. Poliziak bi aukera dauzka. Bata da ikertzea, eta ikertzea zaila da, garestia da. Ikertu behar dituzu ADN-ak, lekukoak, bideoak, entzuketak, segimenduak... Ikerketa lan bat da. Bestela, beste aukera bat da garai batean gazteekin egiten zuten bezala: hartu hogeitaz urteko hamabost bat lagun, sekulako egurra eman denei, eta bakarren batek zeozter kontatuko du *interesgarria* dena. Azken hori izaten da metodo bat, babestuta eta bultzatuta dagoen metodo bat. Esan egiten diete horrela egiteko. Gu torturatu gintuztenak ez dira eroetxe bateko paranoiko batzuk; haien lan bat da, eta urte batzutan lan hori egiten dute. Seguru nago lan hori egin eta gero joaten direla haur parkera beraien umeekin jolastera, kuadrilarekin afaltzera..., eta jende normala dela. *Tokatzen* zaie lan hori egitea, eta egiten dute.

Tortura da gauza bat Espainian beti ukatu dena, ikertu ez dena, ikertu denean epaitu ez dena, epaitu denean kondenatu ez dena. Eta kondetatu den gutxietan, gobernuak agindu bat egiten du karga hori kentzeko. Hortaz, metodo azkar bat da, eraginkorra. Oso eraginkorra da tortura; ikerketa baino askoz errazago egiten da, emaitzak berehala ematen ditu... Gainera, oso eraginkorra da Poliziarentzat, 'horrenbeste atxilotu ditugu eta horrenbeste auto-salaketa lortu ditugu' esanda. Eraginkorra da politikarientzat, esaten dutelako 'oso efikazak gara gobernu honetan, horrenbeste lagun atxilotu ditugu eta horrenbestek aitortu dute hau egin dute-la'. Eta oso eraginkorra da epaile batentzat, 'epaileak horrenbeste atxilotu ditu eta ehuneko horrenbeste kartzelan daude'. Nik entzuna diet abokatuei kartzelan dauden euskal presoek %80aren kondenak oinarrituta daudela polizia etxean egindako aitortu-penetan soilik. Ez dut esaten leporatzen zaiena egin ez dutenik, baina adierazgarria da zigorren %80 ez heltzea ikerketaren edo ADN-aren ondorioz-eta.

Gure torturek oihartzun handia izan dute Euskal Herrian, Katalunian, Espainian eta Europa osoan, AEBetako egunkari handietan... Munduko telebista handiak etorri ziren guregana, munduko egunkari handiak: *New York Times* edo *Washington Post*; BBC, RAI... Denak etorri ziren gugana, ez zutelako sinisten haientzat Espainia den honetan [Euskal Herrian], European, egunkari bat ixtea, direktiboak atxilotzea eta torturatzea. Hori ezin zuten buruan sartu. Gure salaketek oihartzun handia izan dute, baina torturaren historian ezagutu ditugu gureak baino askoz narrazio gogorragoak. Badakit joko arriskugarria dela torturen gogortasuna konparatzen hastea, baina bainera, elektrodoak, horrelakoak ezagutu genituen Intxaurren 1980ko eta 1990eko hamarkadetan. Gureak, seguru aski gure profilengatik, egunkari bateko kudeatzaileak ginelako, oihartzun mediatikorik handiena

eduki dutenak izan dira Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpora. Baina torturaren liburu beltza idazten denean –eta idazten ari da; Euskal Memoriak oso liburu mardula eta polita egin du, eta garai baten TATEk ere oso lan polita egiten zuen urtero-urtero–, benetan oso beltza izango da. Batzuk oso urduri jarri beharko dira.

[Hamar urteren ondoren Europako Giza Eskubideen Auzitegiak Espainiako Estatua zigortu egin zuen Otamediren tortura salaketak behar bezala ez ikertzeagatik] Nik beti esan dut torturatu nindutenak eta gure torturak ahalbideratu zituztenak, hori egiten utzi zutenak, haiek akusatuen aulkian eseri arte nik behintzat ahal dudan guztia egingo dudala. Oso zaila dago ikertzea, baina... Argentinan ari dira ikertzen, 25-30 urte pasatu eta gero. Argentinan, Txilen... leku askotan ari dira diktadura garaiko ikerketak egiten, eta gaur Argentinan diktadura garaiko 150 militar, polizia eta politikari daude kartzelan, eta beste 140 inguru daude epaiketa bidean. Txilen ere bai. Beraz.... Hori egoera politikoaren arabera izango da. Gu orain gauden Espainiarekiko menpekotasun egoera honetan zaila ikusten dut. Baina ikusiko dugu gure herria nola dagoen bost urte barru, hamar urte barru, hamabost urte barru, eta ea orduan badugun ala ez sendotasun nazionala gauza horiek ikertzeko.

Hemen oso gauza larriak egin dira ETArekin kontrako borrokan, eta horiek ikertu egin behar dira. Askok ari gara hitz egiten garai hauetan –nire ustez, batzuk oso modu arinean–, oroimenaz eta justiziaz. Oroimena eta justizia Argentinan da 150 pertsona kartzelan izatea. Gu ari gara etengabe Hego Amerikakoei ikasgaiak ematen gauzak nola egin behar diren, baina Argentinan eta Txilen diktadura garaiko ikerketarekin egiten ari direna guk hemen egunen batean egin beharko dugu.

Hiru aukera dauzkagu. Bata da trantsizioan bezala lurra bota gainera, ez da ezer gertatu, edo gertatu dena modu arin batez onartu, eta gero esan, gainera, eredugarria dela, eta esportatu. Bigarrena da 30 urte barru ikertu, gutako batzuk jadanik oroimenik gabe gaudenean eta gu torturatu gintuztenak ere auskalo zer egoera medikutan daudenean. Hirugarrena da: jakin beste herri batzuetan nola egin duten, eta guk ere egin. Horretarako beste sendotasun bat beharko dugu politikan, beste egoera batean egon beharko dugu herri honetan, geure buruaren jabe izan beharko gara. Gauzak ez dira goitik erortzen, gure esku dago gauza horiek eragitea. Eta gure esku dago oroimenaz eta justiziaz hitz egiten denean, gogoraztea zer oroimenez eta zer justiziaz ari garen. Leku batzuetan oroimena eta justizia, kartzela da.

‘EGUNKARIA’, ERREAKZIOA

Gu oso eskertuta gaude jendearekin, bai *Egunkaria* sortu zenean 1990ean, eta baita, jakina, 2003an itxi zutenean ere. Inork ez zuen espero itxiera. Jendeak ezagutzen gintuen, bazekiten ez ginela ETAKoak, are gutxiago ETAKo zuzendaritzako kideak; haiek zekiten zen ezagunak ginela, euskalgintzakoak. Harreman profesionalagatik ezagutzen gintuen jendea bazen: politikariak, erakunde publikoetakoak... Baina bazen jende asko pertsonalki ezagutzen ez gintuena, eta sinistu egin zigun. Adibidez, behin Bilboko Kale Nagusian nindoala autobus publikoetako gidari batek txirrina jo, eta “segi gogor!”, esan zidan.

Baina arantza bat geratu zitzaidan itxierarekin. Gu enpresa bat ginen; 150 langile geneuzkan, aberastasuna sortzen genuen. Komunikabide bat ginen, baina enpresa bat ginen, eta soldatak geneuzkan, zergak ordaintzen genituen, BEZ ordaintzen genuen

diputazioan, Gizarte Segurantza ordaintzen genuen, hegazkin tiketak erosten genituen, eta ordenagailuak edo mahaia, taxiak ordaintzen genituen, kanpoko jendea gonbidatu eta hotel bat eskaintzen genien... Guk ekonomia bat mugitzen genuen, 150 langileko enpresa batek sor lezakeen ekonomia bat. Itxi zuten komunikabide bat, euskarazkoa, enpresa bat ginen, eta enpresa elkarte-etako arduradunek ez zuten ahoa ireki. Enpresari asko etorri zen gugana, baina arduradunek ez zuten hitz egin. Nik ulertzen dut garai hura konplikaturik izatea eta enpresa elkarte-etako arduradunentzako zaila izatea zeozer esatea. Baina gu enpresa bat ginen; ez ginen lagun talde bat plazan biltzen zena larunbat arratsaldean futboleko jokatzeko. Gu enpresa bat ginen, 150 lagun zituen enpresa bat. Eta Espainiako Justiziak erabaki bat hartu zuen: 150 langile kalean utzi zituen, hamar direktibo atxilotu zituen, eta haietatik sei torturatu egin zituzten. Eta ez zuten ezer esan enpresa elkarteek. Seguru aski, guk beste egoera batzuetan ere ez genuen ezer esan, eta denok egin beharko dugu begirada kritiko bat. Baina guretzat hura mingarria izan zen, gu enpresa bat baiki-nen. Orain enpresa bat gara, eta orduan ere bai.

EGUNKARIEN KRISIA

Bi krisi daude. Prentsak duen krisi soziologikoa da bat, lehenagotik detektatuta zegoena; belaunaldi berriak ez datoz informazioa gure formato klasikoetan jaso zale. Eta gero, krisi orokorra dago.

Beraz, prentsaren krisi soziologikoa bat dago, kontsumoarena, lehenagotik bazetorrena. Lehen irakurle batek egunean, batez beste, berrogei bat minutu pasatzen zituen egunkari bat irakurtzen, eta orain hogeia, hamazazpi, hamasei minutu dira. Hori, lehenagotik ere irakurtzen zutenen kasuan. Belaunaldi berrien kasuan

–batzuen kasuan bai, behintzat–, ez du ematen orain arte geneukan informazio eskemak funtzionatzen duenik. Hau da, guk informazioa daukagu eta zuk, euro bat; ekarridazu euro bat eta tori informazioa. Hori izan da orain arteko negozio eskema. Ematen du eskema horrek dagoeneko ez duela funtzionatzen eta, beraz, krisi hau etorri da.

Estrategian teknologoen eta kudeatzaileen arteko dibortzio bat ere izan da. Teknologoek sekulako aurrerapena egin dute, eta euskarri tradizionaletan eskaintzen duguna oso azkar landu dute beraien aldetik, eta, hala, eskaintzen dute formatu berrietan, beste euskarri batzuetan: mugikorrean, *smartphone*-an, tabletean, ordenagailuan... Teknikoek gurekin adostu gabe egin dute sekulako aurrerapen teknologiko hori. Ez dugu trantsizio teknologikoa eta gestioa elkarrekin egin, eta orain guk ez daukagu negozioa eta ez dakigu nola egin negozio izaten segitzeko. Izan ere, azken batean, dirua behar da.

Bestetik, krisi ekonomiko larria dago. Gure kasuan, publizitate jaitsiera ikaragarria izan da, ikaragarria. Asko galdu dugu publizitatean. Diru laguntza publikoetan ere jaitsiera izan da, handia. Orain asko hitz egiten da marra gorriez. Aurrekontu publikoak egiteko orduan, marra gorriak. Eta hiru marra gorri jartzen dira beti, unibertsalak direnak: gizarte zerbitzuak, hezkuntza eta osasuna. Parametro horiek balio dezakete Cuencarako [Espainia] edo Marseillarako [Frantzia], han ez daukatelako beraien hizkuntza arriskuan, ez daukatelako hizkuntza bat minorizatua. Cuencan hizkuntza bat daukate, espainola, eta Marseillan, frantsesa; gero, jendeak hitz egingo ditu beste batzuk, baina hango hizkuntzak horiek dira, eta hizkuntza handiak horiek dira. Gu ez gaude egoera horretan. Guk euskara sartu beharra daukagu marra gorrietan. Geure marra gorri propioen definizioa eduki behar dugu.

Aurrekontu publikoak egitean, esan behar dugu: osasuna, hezkuntza eta gizarte zerbitzuak, eta euskara, Euskal Herrian gaude-lako. Helduen euskalduntzeaz, eskoletan D eredua bizkortzeaz, komunikabideez... ari naiz. Herri honi asko kostatu zaio euskarazko egunkari bat egitea. Euskarazko telebista nazional bat, 1982an izan genuen. Irrati handi bat ere, nazionala, berriemaileekin, albistegiekin eta euskaraz 24 orduz, 1982an. Handik zortzi urtera jaio zen *Euskaldunon Egunkaria*; jaio zen moduan, gainera. Lortu genuenean pixka bat egonkortzea, *Egunkaria* itxi ziguten, 2003an; bizkor aritu ginen, urte berean *Berria* sortuta.

Euskalgintzan oso ezaguna den lagun batek esaten du Euskal Herriak egunero egiten duela kioskoan bere autodeterminazio ariketa, eta oso emaitza txarra ateratzen duela. Baina, horren gaitetik, herri hau aurrera doa; gainera, sendo.

INTERNET

Oraindik ere *Berria*-ko sarrera nagusiak paperetik datoz, egunkaririk. Euskara hizkuntza txikia da webguneko edukiak irakurleei kobratzeko. Gaur egun, nire ustez, egunkari handiek papera kendu eta webgunea ordainpekoa jarriko balute, handik astebete batera itxi egin beharko lukete. Izan ere oraindik diru sarrerak paperetik datoz. Bestela, denek ere aspaldi kenduko zuketen papera. Garestia da egunkari bat, inprimaketa, banaketa eta abar baitira.

Euskal Herriko egunkarietako zuzendariak biltzen ginenean –garai batean errazagoa zen gure artean biltzea-, eztabaida hori izaten genuen, orduantxe webguneak sortuta zeudela. Batzuek oso jarrera kontserbadorea zeukaten: ‘Ez dugu Interneten ezer

egin behar. Suizidio bat da, gure kontrakoa da', zioten. Zuzendari haien hedabideek Internet eskaintza eskasa zeukaten. Aldiz, nik beti esaten nuen: 'Begira, gurea da euskarazko egunkari bakarra, guk egon beharra dugu teknologia aurreratuta dagoen horretan, aurrenak izan behar dugu ematen, euskarak hor egon behar baitu'. *Berria*-rena izango da, seguru aski, euskaraz dagoen web-gunerik bisitatuena; logikoa da, guk albisteak dauzkagulako.

EUSKAL GATAZKA ETA KOMUNIKABIDEAK

Gauza batzuk beti sukaldean eta isilean egin behar dira. Nik uste dut ona dela konponbidearen parte hori, adostasunaren eta akordioaren parte, komunikabideetatik kanpo egotea. Gero, behar denean, emaitzen berri emanez; eta emaitzak ez daudenean ere emanez. Baina irtenbide jakin baten alde gaudenok egunkari ahulak dauzkagu. Beraz, horrek esan nahiko du irtenbide horren kontra daudenen esku geldituko litzatekeela prozesua, haienak direlako komunikabide handiak.

Esaten dute aurreko bake prozesua, Zapateroren garaikoa, alde bateko eta besteko eragileek transmitituegia izan zela, publikoegia izan zela. Orain, berriz, publikoan guztia geldirik dago. Dena dela, prozesuaren fase hauetan jakiten dena baino gehiago egoten da beti. Imanol Murua Uriak liburu bat idatzi zuen Loiolako 2006ko elkarriketen ingurukoa, eta hark aitortzen du elkarriketak gertatzen ari ziren bitartean ez zekiela ezer. Gero bihurtu da aditua; dagoeneko elkarriketak gertatu direnean, jakin denean eta bertako kideekin egon denean bihurtu da horren inguruan aditua. Prozesu hauetan ez zaio asko begiratu behar surf eta windsurf egiten ari den jendeari; ur azpira begiratu behar da, oxigeno bonbonekin dabiltzan horiekin fijatu behar da. Surf eta

windsurf egiten ari direnak despistatzeko daude, edo gaude, jendea entretenitzeko.

Garai batean Mayor Oreja zegoenean Madrilen Barne Ministerioan, nazioarteko berriemaileek sekulako *txapapotearekin* etortzen ziren gurera, *Egunkaria auziaz* eta Euskal Herriaz hitz egitera, eta ordubete bat pasatu behar izaten nuen *txapapotea* kentzen, informazioaren *petrolio geruza* hori kentzen haiei, gero azaltzeko Euskal Herria zer den. Diskurtso jakin batekin etortzen ziren. Baina azkenengo urte hauetan sumatu dut beste jarrerara batekin datozela. ETAREN 2011ko erabakia baino lehenagotik ere nabaritu nuen jarrerara aldaketa bat.

GATAZKAREN KONPONBIDEA

Oso Ipar Irlandaren bidetik doa ETA. IRAk gauza berbera egin zuen, eta IRA hor gelditu zen, Londresek eta Dublinek ez ziotelako gehiago eskatu. Seguru nago denborarekin ETA urrutirago joango dela IRA baino. Gertatzen da Espainiako Gobernuaren aldetik ere behar direla keinuak, behar direla urratsak. Estrategia ona da ETAREN partetik mugimendu eta erabaki aldebakarrekoak har-tzea, baina gero bakarren batek lagundu egin behar du: espetxe politikaren humanizazioan eta urratsak egitean akordioetara iristeko.

ETAk segitu beharko du, nekatu gabe, nazioartea konbentzitzen, nazioarteko eragileei erakusten bere erabakia behin betikoa dela, jarrerara daukala negoziazio eta akordio batzuetara iristeko. Nazioartea, euskal klase politikoa, euskal herritarrak konbentzitzen segitu behar du, hartutako erabakia betirako dela, eta, gainera, zintzotasunez hurbildu nahi duela konponbidera. Besteon

esku dagoena da mugitu nahi ez duen *elefante* horretatik tiratzea. Ni konbentzituta nago herri honetan badagoela sendotasuna, herri hau aterako dela aurrera.

Ezker abertzaleak orain dela bizpahiru hilabete Donostiako antzoki batean ekitaldi publiko bat egin zuen, adierazteko autokritika bat ETAk eragindako biktimekin urteetan hoztasun, distantzia, berotasun eta humanitate falta bat izan zutela, ez zirela haiez arduratu. Sektore batzuetatik eskaera handi bat zegoelako egin zuen ekitaldia. Ez naiz ari esaten beste muturreko sektoreetatik zegoela eskaera hori; ezker abertzaleari bide honetan sinesgarritasuna eman nahi dioten sektore batzuetatik zegoen. Tartean ziren Madrilgo intelektual batzuk. Katalanek-eta ere eskatzen zioten ezker abertzaleari berak bakarrik egiteko autokritika, ez Gernikako Akordioaren barruan, baizik eta berak esatea ‘guk ezker abertzalekook’, eta ez ‘guk ezker abertzalekook eta sindikatu hauek, eta alderdi hauek, eta besteak, eta besteak...’. Egin zuen urrats hori, eta ez zituen bereizi bateko eta besteko biktimak, orokorrean hartu zituen ETaren biktima guztiak.

KATALUNIA, EUSKAL HERRIA

Kataluniarekin oso gauza bitxia gertatu da. Katalanak azken 25 urteotan guri begira egon dira. Haiek autosuntsitzaile jarrera bat izan dute; ‘gu ez gara ezer, guk ez dugu ezertarako balio’. Batzuek esango zuten, ‘zuek ETA daukazue’, eta beste batzuek esango zuten, ‘zuek, gutxienez, Ibarretxe lehendakaria daukazue, ausardiaz ari dena, Madrilerara doana, eta guk, aldiz, klase politiko epela daukagu’. *Vasquitis* moduko batek jota egon dira, autodepresio batekin. Baina daramatzate hiru-lau urte...; nik ez ditut errekonozitzen katalanak. Sendotasun batekin daude, urte askotan pilatu-

tako haserre batekin, eta autosuntsitzailea zen jarrera hori guztiz kendu dute gainetik, erabat. Indarra hartu dute, sinistu dute asko direla, gehiago izan litezkeela, eta indarra daukatela gauzak aurrera ateratzeko. Guri begira egon diren haiek hiruzpalau urtean oso aurrean jarri dira. Ikusiko dugu noraino iritsiko diren.

Oraingoz, Europako komunikabide handiak sinpatiarekin ari dira jarraitzen hango prozesua, aldeketasun batekin bezala. Katalunia Katalunia baita, Bartzelona da, eta hau ez da broma: Barça dauka. Serio ari naiz, eh? Elementu soziologiko horietan, zuk daukazu-nean klub sendo bat, mundu guztian ezaguna dena... Izango da munduan elastiko gehien saltzen duena, Real Madrilekin batera-edo. Hori elementu garrantzitsu bat da. Horrez gain, Kataluniak sekulako turista pila jasotzen du Europatik.

Irudipena daukat Kataluniaren aldean beste fase batean gaudela hemen, okerragoa den fase batean. Lehia handia dago EAJren eta EH Bilduren artean. Han lehia fase hori argitu zuten. ERCK ez zuen lortu CiU gainditzea Kataluniako hiruko gobernuaren garaian [2003-2010, PSC-ERC-ICV], onartu du fase honetan ezin diola irabazi eta erabaki du haren ondoan joatea. CiUk ere behar du ERC. Hemen, berriz, arlo subiranistan borrokan dabilta bi polo, eta hori abertzaleentzako oso kezagarria da.

Urkulluk garbi esan du ez duela segituko Masen eredua. Ez du ezer jakin nahi. Adibide bat jarriko dut. Katalunian azken urte hauetan bi manifestazio handi egon dira. [Espainiako] Auzitegi Konstituzionalak estatutu berriaren aurka emandako epaiaren ondorengoa da bata, 2010eko uztailaren 10ean egina, erakundeek antolatuta, eta Urkullu joan zen manifestazio hartara. Neu ere egon nintzen han, eta gogoratzen naiz elkarriketa motz bat egin niola Urkulluri Bartzelonan, Majestic hotelaren kanpoaldean. Eta

beste manifestazioa, ikaragarria, joan den urtekoa da, 2012ko irailaren 11ko Diadakoa, eta Urkullu ez zegoen han; EAJk oso ordezkaritza baxua bidali zuen.

Orain lehendakaria delako, uler nezake fase politiko honetan Urkulluk esatea ‘gu orain beste fase batean gaude eta beste lehen-tasun batzuk dauzkagu’. Baina iruditzen zait sobreaktuazio bat dagoela hoztasun horretan. Pena ematen dit, Katalunia oso gertu egon delako euskaldunekin, eta ez *Euskaldunon Egunkaria*-rekin bakarrik. Duela ehun urtetik Euskal Herriaren eta Kataluniaren arteko harreman politiko bat egon da. Kulturala, zer esanik ez: Nova Cançó katalana, Ez Dok Amairu hasi zenean... Bestelakoa ere bai: Francoren kontrako borrokan, hemengo borrokalari askok topatu zuten babeslekua Katalunian. Lluís Companys bere ihesbi-dean Hendaiara Irundik barrena pasatu zen. Badago harreman bat. Martin Ugaldek esaten zuen Venezuela zela bere beste aberria. Ez zuen sekula esaten ‘bigarren aberria’, baizik eta berak bi aberri zeuzkala: Euskal Herria eta Venezuela. Eta euskaldun askok esan dezakegu gure beste aberria Katalunia dela, Katalunian oso maitatuak gaudela eta oso etxekotzat hartuta. Eta irudipena daukat fase honetan gehiegizko distantzia bat dagoela.

Ezker abertzaleak katalanekiko gertuagoko harremana du, baina arazo bat dauka Katalunian, eta da hiru *andregai* edo *senargai* dauzkala. 2012ko Diadako manifestazio handi hartan EH Bilduko talde handi bat izan zen, baina manifestazioan hiru taldetan joan ziren: batzuk ERCrekin, beste batzuk Laportaren Sİrekin, eta besteak CUPekin. Eta hori arazo bat da, EH Bilduk ez baitu Katalunian bere parekide den indar bat erreferentzia modura.

ZUZENDARI

Berria-n zuzendariaren bulegoa beti irekita dago. Haserretzen naitzenean kazetariren batekin, esaten diot: “Ez duzu topatuko ni bezain biguna den zuzendari bat inon”. Ez, agindu postuan ez nago; ardura postuan nago [1993tik zuzendari *Egunkaria*-n eta *Berria*-n], eta saiatzen naiz ardura kolektibizatzen eta konpartitzen, akatsak akats. Nik ere bozketak galtzen ditut etxean. Behin Xabier Arzalluzek esan zidan berak [EA]ren] EBBko bileretan batzuetan bozketak galtzen zituela, eta horrek kontsolatu ninduen pixka bat; neure artean nioen ez naizela bozketak galtzen dituen bakarra... Oso jende samurra daukagu eta oso eskertuta nago gure etxeko jendeak gauza guztietan daukan lanerako jarrerarekin eta jokabidearekin. *Egunkaria*-ren itxieran ikusi zen hori. Lanerako oso erraza den jendea da, oso gertukoa, oso samurra.

juan jose ibarretxe

eusko jaurlaritzako lehendakari ohia



*oihana elduaien,
2013ko martxoaren 12a*

BIZIMODU BERRIA

30 urtean izan naiz exekutiboa, arlo pribatuan nahiz publikoan. Egun onak izaten nituenean, egunean ehun erabaki hartzen nituen, normalean; 50 ondo hartuko nituen, eta beste horrenbeste, gaizki. Beraz, denetatik egon da nire bizitzan; gauza batzuk onak, eta beste batzuk ez. Balantzea da klabea. Lo egiteko kontzientzia garbi eduki behar duzu, eta nik egindakoaren kontzientzia garbi daukat, eta besteen errespetua ere bai. Benetan zorte handia daukat. Ikusten dudanean, adibidez, hona etortzean edo beste edozein herritara joaten errespetu osoz tratatzen nautela, hori oso garrantzitsua da. Sentitzen dut tokian tokiko aprezioa, eta horrekin geratzen naiz, jendearen maitasunarekin.

Baina, 30 urtean arlo pribatu zein publikoan exekutibo izan ostean, langintza hori uztea erabaki nuen. Nirekin ondo portatu zen alderdia [EAJ], eta baita Euskal Herria ere. Gauza asko eskaini zizkidaten finantza instituzioetan, enpresetan..., baina exekutibo izateari utzi, eta unibertsitatera bueltatzea erabaki nuen, eta oso ondo sentitzen naiz. Unibertsitatera bueltatzea etxera bueltatzea izan da. [2009an Jaurlaritzako] Lehendakaritzatik atera nintzenean bi gauza erabaki nituen. Batetik, deskonexio intelektuala egin nahi nuen. Gobernu baten barruan eguneroko gauzen diktamena ikaragarria da: ez duzu irakurtzen, ez duzu idazten... Horregatik, egin nahi nuen aurreneko lana deskonexio intelektuala izan zen. Bigarrenik, deskonexio territoriala bilatu nuen. Hau da, ez egitea lan hemen, Euskadin, baizik eta Euskaditik at, hamar mila kilometrorra joatea, AEBetara, eta han irakasle izatea. Eta zentzu horretan, benetan ondo nago. Azkeneko bolada honetan eurorik ez dut kobratzen Euskadin. Soldata dolarretan kobratzen dut, eta zergak AEBetan zein Euskadin ordaintzen ditut. Benetan, ikaragarri ondo nago.

Orain, emaztea eta biok ia bakarrik bizi gara. Gure bizitzako bigarren aroan gaude, eta polita da aro hau ere. Baina emaztearentzat bereziki gogorra da. Ni Ameriketara urtean zortzi aldiz joaten naiz –hemendik aurrera, agian, gutxiago–. Batzuetan emaztea joan izan da nirekin, baina bakarrik joan izan naiz, normalean. Gu Laudion bizi gara, neure herrira bueltatzea ederra izan da, betiko lagunekin egotea oso polita da. Nik ez bezala, nire emazteak beti asmatu du hartutako erabakiekin. Eta Ajuria Enean geundenean ere, asteburuetan gure etxeko ateak irekita edukitzea erabaki zuen. Astea Ajuria Enean pasatzen genuen, eta ostiralero etxekoak 15:30ean-edo joaten ziren Laudiora. Gogoan dut alabek deitzen zidatenean, “etxera goaz” esaten zidatela. Haientzat etxea Laudiokoa zen, ez Ajuria Enea. Emazteak esan zuen alabak betiko bizimodutik ez baztertzeko Laudiora joan behar genuela asteburuetan, betiko lagunei eusteko. Alaba nagusiak parte hartzen zuen atletismoko taldean, eta ikastolako taldean eta Laudiokoan korrika egiten jarraitu zuen. Nire emazteak hartutako erabakia ikaragarri ona izan zen, ez bakarrik alabentzat, baita geure bazterketa soziala saihesteko ere.

Azkeneko lau urteetan ez dut elkarrizketarik eman, pentsatzen dudalako bizitza politikoan zaratarik egin gabe sartu behar duzula eta irten ere bai. Zentzu horretan, gogoan dut kazetari batek lehendakaritzatik ateratzerakoan egin zidan galdera: “Zenbat denbora beharko duzu bizimodu berrira egokitzeko?”. Eta nik erantzun nion: “Autoak Gasteiztik Laudiora joateko behar duen denbora”. Liburu batzuk eraman genituen, eta kito. Gainera, bizitzan nostalgiarik ez izan! Nostalgikoa bazara, beti pentsatzen duzu iragana edo etorkizuna orainaldia baina hobeak direla, eta gauzak ez dira horrela. Daukaguna daukagu. Momentu hau daukagu guztiontzat, zuentzat eta guretzat.

Jende askok asko hitz egiten du hemen, Euskadiri buruz, eta kanpoan, berriz, gutxi, eta nik uste dut gero eta gehiago hitz egin behar dela kanpoan ere. Beraz, zein da nire lana? Azken batean, ni herri honen ezohiko enbaxadore bat izango naiz betiko. Kasu honetan nire lana izan da eta da Euskadi edo Euskal Herria –niretzako gauza bera dira-, eta gure hizkuntza, euskara, munduko plazan kokatzea. Nire lana da geure herria, geure kultura eta geure hizkuntza munduko plazan kokatzea; kasu honetan, agenda akademikoan.

AGIRRE LEHENDAKARIA CENTER

1995ean Ardanza lehendakariak eskatuta Jaurlaritzan sartu nintzen. Niretzat ustekabe handia izan zen; izan ere, aurreikusita neukan urte hartako urtarrilaren 8an abioia hartu eta Ameriketara joatea, han lan egiteko. Gobernura joateko eskatu zidan Ardanzak, eta herrien finantzaketaren inguruko proiektu bat utzi eta gobernuan sartu nintzen, lehendakariorde eta Ogasun sailburu modura. Herrien finantzazioa nire konpetentzia zen, eta, beraz, moralki ezinezkoa ikusi nuen ordurako egina neukan tesia entregatzea. Utzi egin nuen proiektua. Pena ikaragarria eman zidan, eta Ardanzari esan nion. Baina begira, EHUn beste ikerketa bat egiteko aukera izan dut orain. Gaia guztiz aldatu nuen, tesia gure herriari eta giza garapenari buruz egiteko.

Azken urteetan zuzendutako ikerketa proiektu baten jarraipena izango da Agirre Lehendakaria Center egitasmoa. Euskal kasuari buruzko proiektu bat da, alde batetik; ingelesez, *The basque case*. Eta, bestetik, giza garapenari buruzkoa da. Hitz batean esateko, geure herria definitu eta munduko plazan kokatzeko. Bitxia da Europako herririk zaharrenetako batek kontzeptu berri bat defen-

ditzea: giza garapen iraunkorra. Kontraesana ematen du, baina ez da. Zergatik ez da kontraesana? Zeure identitatean sakontzea ez dago lotuta bakarrik nazio baten ideia batekin. Ekonomiarekin eta giza garapen iraunkorrarekin ere lotuta dago. Azken batean, identitatea defenditzea ez da iragana defenditzea, baizik eta etorkizuna defenditzea da. Ez da bakarrik gauza politiko bat defenditzea; enplegua, aktibitatea defendatzea da. Zuk zure identitatea ukatzen baldin baduzu, ez da izango jarduera ekonomiko hobeia edukitzeko, baizik eta okerrerako izango da. Eta hori dago ikerketan proiektu honen atzean. Eta ez bakarrik nik esaten dudalako, baizik eta AEBetako Columbiako, New Yorkeko eta Washingongo George Mason unibertsitateetako adituek ere horixe esaten dutelako. Gure kasuan, euskal kasuan ikusten da, eta ikasten da, identitatea, nazio garapenaren atzean ez ezik, giza garapen iraunkorraren atzean dagoen gauza bat dela. Eta hemen-dik aurrera jarraituko dugu proiektu honetan lan egiten.

Estatu Batuetako bi unibertsitateekin egin dut programa hori: Columbiarekin eta George Masonekin. Orain, talde horretan sartu da EHU Euskal Herriko Unibertsitatea ere, eta *Campus para la Excelencia Internacional* [Nazioarteko Bikaintasunerako Kanpusa) programaren bidez zentro bat sortu da: Agirre lehendakaria zentroa. Nola ez, Jose Antonio Agirre [Eusko Jaurlaritzako 1936-1960ko] lehendakariaren irudia erabiltzen da, Columbian eta New Yorken irakasle izan zelako hura, 1942tik 1946ra. Oso ezaguna eta maitatua izan zen han, eta hemen ere bai, nola ez! Zentzu horretan, bidezkoa iruditu zait harekiko; gainera, azkenean herri-rik zaharrenetako bat terminorik modernoenetako bat defendatzen aritzeko: Euskal Herria-Euskadi eta giza garapen iraunkorra.

Hori izan da abiapuntua AEBetako unibertsitate haiekin lan egiteko. Haiek esan zidaten interesgarria dela beraientzat euskal

kasua aztertzea eta ikertzea. Eta tesi honekin lanean jarraitu nuen Estatu Batuetan.

Gainera, ikusi dut ikerlarien lana nola aldatu den azkeneko hoge urteetan. Aurreneko tesia egin nuenean informazioz ez zegoen, eta udaletxez udaletxe ibiltzen nintzen, alkateekin edo udal idazkariekin hitz egiten eta oharrak hartzen. Garai hartan informazio falta, ezagutza falta zen. Egindako azkeneko tesian, berriz, kontrakoa ikusi dut. Orain informazioaren ugaritasuna da ezagutza falta. Internetekin eta teknologia berrieekin izugarrizko informazioa dugu. Une honetan zein da gakoa? Informazioa aukeratzen jakitea.

IDENTITATEA

Kulturari dagokionez, gure munduan eztabaida faltsua daukagula uste dut. Eztabaida faltsu hori desmitifikatu egin behar da. Gogoan dut gaztea nintzenean batzuek nola esaten zidaten: 'Ni progresista naiz, eta hiritar unibertsala. Kultura unibertsala defenditzen dut. Eta zuk, kultura lokala defendatzen duzu. Hori iragana defenditzea da'. Baina, azken batean, gauza desberdinak dira. Guk geurea defenditzen ez badugu, eta katalanek beraiena, eta eskoziarrek beraiena, eta espainolek beraiena, eta alemaniarrek beraiena, kultura unibertsala ez litzateke aberatsagoa izango, baizik eta pobreagoa. Une honetan munduan bost mila hizkuntza, kultura, herri ditugu, eta mende honen bukaeran bostehun geldituko direla diote hizkuntzalariek. Beraz, globalizazio proiektu injustu horren atzean zer dago? Identitate eta kulturak suntsitzea, merkatu bakar bat eraikitzeko. Aireportuak garela ematen du. Munduan ibiltzen bazara, Liverpoolgo aireportura joan, Madrilgora, Loiukora, Hondarribikora edo Indiako batera, eta

guztiak igualak dira; haietako denda guztiak igualak, zerbitzariak berdin jantzita... Hori da batzuek egin nahi dutena. Eta nik esaten dut gure kasuan ikasi dugula gure identitatea defenditzen, geure ekonomia eta geure garapena defendatzen.

Nik zentzu horretan defendatzen dut lokala; lokala, unibertsala aberasteko bide bakarra baita. Guk gure kultura, gure herria munduan kokatzea oso garrantzitsua da. Eta ez bakarrik helburu politikoetarako, baizik eta ekonomia arloan, gizartea arloan... giza garapen iraunkorra lortzeko. Guk sakontzen ez badugu identitatean, politika arloan ez ezik ekonomia arloan ere jai izango dugu. Argi eta garbi daukat hori. Politika munduan hori galdu egiten da batzuetan, baina intelektualki garbi dago. Proiektu ekonomiko eta sozial sendo baten atzean egon behar duena ez da zure identitatea ahaztea, baizik eta zure identitatea sakontzea. Hori garbi dago. Eta ekonomia munduan izan behar dena politikaren munduan ere izan behar da.

KRISIA

Krisi ekonomikoa ez da globala; balioen krisia da globala. Iaz, 2012. urtean, hazkunde ekonomikoa izan genuen munduan, %3,5ekoa, eta populazioaren hazkundea %1ekoa besterik ez zen izan. Beraz, 2,5 puntu aberatsagoa gara. Arazoa zein da? Arazoa banaketa da. Eta arazoa ez da XXI. mendekoa bakarrik, baizik eta XX. mendean, XIX.ean eta Erdi Aroan ere gauza bera gertatzen zela. Adibidez, XX. mendean ekonomia ehun aldiz hazi zen munduan. Baina ehun aldiz baino desberdintasun handiagoak zeuden herrien artean. Eta zu joaten bazara Afrikara defendatzera izugarrizko hazkunde ekonomikoa izan genuela, edozer gauza aurkitu dezakezu, baina gauza onak ez.

Geure arazoa zein da? Bereziki, Europarentzat? Aurreneko aldiz ez gaudela banaketa horretan. 2010-2020 bitartean %70eko hazkunde izango da herri ez garatueta, eta herri garatueta, gurean barne, %30ekoa. Aldaketa banaketan izan da, batez ere. Hazkunde makroekonomikoa, batik bat, Latinoamerikan, Asian eta Afrikan izan da. Berriro diot, makroekonomikoki. Mikroekonomiak beste kontu bat dira, munduan desberdintasunak gero eta handiagoak direlako. Dirutza dutenak gero eta lagun gutxiago dira, eta gero eta diru gehiago daukate; aldiz, diru gutxi dutenek gero eta gutxiago daukate, eta gero eta jende gehiago dira. Hori da munduko argazkia une honetan. Atzeraldian daukagu Europako Batasuna, eta lotan daude bi ekonomia: AEBetako eta Japoniakoa. Beraz, krisi ekonomikoa ez da globala; balioen krisia da globala.

Giza garapen iraunkorra defendatzen dudanean pentsatzen dut: posible al da beste mundu bat egitea? Bai. Baina horretarako trantsizioa egin behar dugu, ekonomia kontzeptu horretatik etika ekonomikoaren kontzeptura. Edo, hazkunde ekonomikotik giza garapen iraunkorrera. Hori lortzeko gakoa ez da agenda ekonomikoa bakarrik. Erabakiak beti agenda ekonomikoaren arabera hartzen dira, eta agenda ekonomikoa kontuan hartu behar da, baina baita agenda soziokulturala ere. Baita ingurumen agenda ere. Beraz, hiru agendak integratu behar dira. Hor dago gakoa. Zein da bidea? Ezagutza. Pedro Miguel Etxeniketik esaten du ezagutzarekin handitzen dela ezjakintasuna. Baina ezjakinak pentsatzen du den-dena dakiela. Beraz, ezagutza handiagoa behar dugu, ezjakintasun handiagoa izateko. Hori da bidea.

2004-KO ESTATUTUA

Ibarretxe plana, Espainiako hedabideek ipinitako izena izan zen. Eta gutxiesteko asmoz jarri zioten, ez esateko proiektu haren atzean gehiengo osoa zegoela. *Ibarretxe plana* izena jarrita, pertsonalizatu egin zuten. Baina [EAEko] Estatutu Politiko Berria Eusko Legebiltzarrean onartuta dago, gehiengo osoz, eta hori estali nahi zuten. Euskadin baietz esan genion. Espainian ezetz. Eta 2008ko [EAEko] Kontsulta Legeari ere, ez ahaztu, Euskadin baietz esan genion eta Espainian ezetz. Guk atea ireki genuen, eta momentu honetan atzera ez, aurrera begiratu behar dugu. Gauzak egiteko dauzkagun oinarriak ikaragarriak dira. Bake prozesua dago, gauzak lasaitasun osoz egiteko, eta erabakitze eskubidea lasaitasun osoz planteatzeko. Gainera, munduan demokrazia izango da gakoa. Demokraziari beldurra? Zer da hori?

Estatutua defenditzera Espainiako Kongresura joan aurretik batzuek esan zidaten han bakardadea izango nuela eta ez dakit zer tratatu emango zidatela. Bakarrik ez, euskaldunekin batera egon nintzen han, oso ondo lagunduta eta maitatua sentituz. Ikaragarri ondo, bakardaderik gabe. Esan nien: “Ez duzue pentsatuko hau amaitu denik, ezta? Nik egin dudana semaforoa berdean jartzea izan da”. Demokrazian oinarritutako proiektu hau aurkeztera lehenengo aldiz joan ginen hara, eta hemendik aurrera ere joango dira behin eta berriro. Lasai!

ETORKIZUN POLITIKOA

Ni baikorra naiz, eta pentsatzen dut guregan konfiantza handiagoa eduki behar dugula. Euskadiren etorkizuna ez da inoiz egongo Madrilen edo Bruselan, baizik eta hemen egongo da. Geure

esku dago. Guk nahi baldin badugu, egingo dugu. Eta ez dago konstituziorik, ezta legerik ere, guk hemen, geure artean nahi duguna egitea oztopatzeko. Beraz, aitzakiarik ez. Nik behin eta berriz esaten nien nire kolaboratzaileei: "Ez esan Madrilen ezin da, edo ez dakit zer, edo... Ez!". Utzi argudio horiek. Gure esku dago, guk gehiengo sendo bat egiten badugu nahi duguna egingo dugulako. Eta kito. Gu beti prest gaude Espainiako Gobernuarekin akordioak egiteko. Baina guk erabaki behar dugu, guk geuk. Eta gure esku dago. Ez jarri aitzakiarik Espainiako Gobernuarekin edo Frantziakoarekin, edo ez dakit norekin. Guk geuregan konfiantzarik ez badugu, akabo! Guk erabaki sendo bat hartzen badugu gure gizartean, oztoporik ez da izango. Demokrazia oso potentea da, eta, hemen gehiengo sendo bat osatzen badugu, oztoporik ez.

Beste identitate batzuekin elkarbizitza? Bai. Baina geure identitatea ukatzea ez. Gure identitatea ukatzea edo espainiar identitatean disolbatzea ez da bidea. Batzuek nahi dutena horixe da, euskal identitatea espainiar identitatean azukre koskorra izango balitz bezala urtzea. Baina hori ez da bidea. Guk geure bide propioa egin behar dugu. Eta, kasu honetan, gaur egun daukagun egoera honetan, gero eta garrantzitsuagoa da geure proiektu propioa egitea.

Une honetan arazoa ez da independentea izatea, baizik eta dependentea izatea da arazoa. Herri batentzat gauzarik okerreina horixe da momentu honetan. Independentzia ez da gauza bera orain edo duela mende bat European. Izan ere, Europako Batasuna zer da? Amankomuneko gauzak egitea, independentzia konpartitzea... Nik partekatu nahi dut nire subiranotasuna Europako beste herri batzuekin, eta beste herriek duten dependentzia edo independentzia eduki nahi dut. Dependenteak eta independenteak denok

gara Europako Batasunean, eta nik hori eduki nahi dut, gurea Europako beste herri bat izanda. Europako Batasunean integrazio bat egitea posible dela uste dut, herri modura identitatea izanik. Hori ikusten ari gara; ez bakarrik hirugarren munduan, baizik eta Eskozian, edo Flandrian, Valonian... Etorriko da.

Zentzu horretan, ikusi dugu estatuek ere egiten dutena. Bi eredu daude. Orain dela urtebete bat proiektu bat egon zen Europako Parlamentuan gatazka politikoei eta identitateei buruzkoa. Katalan batek zuzendu zuen, eta ondorioa oso argia da: hark dio munduan dauden identitate gatazkatan bi eredu daudela. Alde batetik, patxadaz daudenak: Danimarkakoa, Erresuma Batukoa... Estatu haiek onartu egiten dute euren baitako nazioen erabakitze-ko eskubidea. Beste eredua, guztiz desberdina, Espainiakoa da: esaten dute subiranotasuna Espainiako Gorteetan bakarrik dagoela eta estatuaren barruan dauden nazioek ez daukatela euren etorkizuna erabakitzeko eskubiderik. Hori oso garrantzitsua da. Izan ere, gure aldarrikapena, demokrazian oinarrituta, ez dago Europako sakoneko korronteen kontra, baizik eta alde. Ez dugu gauza arraro bat aldarrikatzen; lehen munduan beste batzuek demokraziaz aldarrikatzen duten gauza bera aldarrikatzen dugu.

KONPONBIDEA

Bakea lortzeko eta giza eskubideak defendatzeko aukagun aukera benetan interesgarria da. Inoiz izan dugun egoerarik politena da. Alde batetik, printzipio etikoekin eraikitzeko. Bestetik, printzipio demokratikoetan oinarritzeko giza garapen iraunkorra, helburu gisara lortzeko. Inoiz eduki dugun aukerarik handiena dugu gauzak egiteko, eta ikasteko. Iraganean gauza asko eta

asko gaizki egin ditugu, nola ez, baina aukera itzela daukagu edukitako esperientzietatik ikasteko, ondo egindako gauzetatik ikasteko eta, batez ere, gaizki egindako gauzetatik ikasteko. Ni baikorra naiz. Bakea eraikitzeke daukagun aukera itzela dela uste dut, eta lortu egin behar dugula. Pertsona guztientzat eskubide berak lortzeko ere aukera ikaragarria daukagu. Eta gero, nola ez, Euskal Herrian daukagun eskubidea gauzak gure kabuz erabakitzeke. Eta hori, ez bakarrik politikoki inportantea delako, baizik eta ekonomikoki eta sozialki ere oso garrantzitsua delako.

Ezin dugu ahaztu 1980tik aurrera lehen aldiz, hemen, erkidegoan, aurreneko bi alderdiak abertzaleak direla. Ikasi egin behar dugu, aro berri bat kudeatzen ikasi. Nik ez dut duda izpirik egingo dugula. Konfiantza dut guregan. Baina asko dago egiteko.

Hala ere, gaur egungo egoeraz ez dut hitz egin nahi. Urkullu lehendakari jarri zenean, harentzat aholkurik ba al nuen galdetu zidaten, eta nik erantzun nuen aholkurik ezetz. Nire garaia pasatu zen, eta ni irakaslea naiz momentu honetan. Pentsatzen dudana esaten dut, eta, gainera, konfiantza osoa dut une honetan lanean ari direnengan. Gauzak ondo egitea espero dut, gobernuan nahiz oposizioan.

POLITIKA

Politikarekiko konfiantza falta ikaragarria dago. Pena ematen dit. Nazkagarria da ustelkeriako gauza horiek ikustea, eta pena ematen dit. Nik politika munduan jende asko ezagutu dut; pertsona onak. Txarrak ere bai, baina onak gehiago ezagutu ditut. Gizartearen eta kargu publikoen artean distantzia hori izatea gauza txarra dela uste dut. Oso premiazkoa da konfiantza lehen-

bailehen berreskuratzea. Bestela, konfiantzarik ez baduzu politikariengan, ezin duzu etorkizunari buruzko zure iritzia eman. Horretarako bide bakarra ikusten dut: formakuntza. Oso garrantzitsua da ezagutza. Formakuntza eta prestakuntza ez den beste biderik ez dago horretarako. Euskal gizartean gure alde daukagu hori. Gazte gehienek dituzte bigarren edo goi mailako ikasketak, eta hori oso inportantea da gure gizartetik ustelkeria urruntzeko.

TORTURA

Nik uste dut gure Ertzaintza nahiko ondo atera dela tortura kasuetatik. Tortura modu sistematikoan agertzen da [Espainiako] Estatuko Segurtasun Indarrengandik. Gainera, hor dago, Nazio Batuen Erakundearen errelatoreak esandakoa; ez du ezer esan Ertzaintzari buruz; beste gorputz haiei buruz esan du. Edozein kasutan, tortura desagertu egin behar da, eta, nola ez, bizitza errespetatu egin behar da. Azken batean, bizitza ez errespetatzea da torturarik handiena.

Gauza horiek konpontzeko ere aukera itzela daukagu aurrean. Begirada atzera begira ez, aurrera begira ipini behar dugu.

EUSKARA

Nire kasuan, euskara bizitza proiektua izan da. Laudion euskara ia galdu egin genuen duela 50 urte. Gure familian gazteleraz hitz egiten genuen, eta eskolan eta unibertsitatean ere ikasketak hala egin genituen. EHUn bosgarren ikasturtean geundela, ikasleen artean euskara ikasteko talde bat antolatu genuen. Bermeotar ikasle bat aukeratu genuen irakasle. Hori 1978an izan zen. Eta

handik aurrera, enpresa mundura joan nintzen lan egitera, ingelesez. Gero, 40 urterekin, berriro hasi nintzen euskara ikasten. Nik uste nuen 40 urterekin ezinezkoa zela hizkuntza berri bat ikastea, baina ez da horrela izan. Maite dut euskara, eta maitasuna, euskara ikasteko ez ezik, bizitzan gauzak lortzeko oso garrantzitsua dela uste dut. Eta, alabekin izan dudan esperientzia ikaragarria izan da. Alaba nagusiarekin izandakoa, adibidez. Orain 27 urte ditu, eta haren lehenengo hemeretzi urteetan dena gazteleraz hitz egiten genuen. Azken zortzi urte hauetan, berriz, geure bizitza euskaraz da. Aldaketa kulturala da hori, eta euskararen proiektua nire bizitzako proiekturik politena izan da, seguruenik. Zorte ona izan dut, eta irakasle ona: urrestildar bat, Ana Bastida. Itzal handiko emakumea. Getxotar bat ere izan nuen irakasle, eta gero, Goierrin-eta ibiltzen nintzen euskara praktikatzeko. Familia batekin baserrian egoten nintzen urtero, abuztuan, oporrak izan beharrean. Dauzkadan oroitzapenak oso-oso politak dira.

Kargu publikoa hartu nuenean ezinbestekotzat jo nuen herriaren hizkuntza menperatzea. Ameriketara esaten dut arazoa ez dela eleaniztasuna, baizik eta hizkuntza bakarra hitz egitea. Zuk ingelesez soilik hitz egiten baduzu, oso zaila da besteen kultura onartzea. Amerikarrak arabiar mundura joaten direnean, beti *good morning* esaten dute. Nik behin froga egin nuen Jordanian, eta hotel bateko atezainari *salam aleikum* esan nion. Aurpegia erabat aldatu zitzaion.

Gure eztabaida ez da elebitasuna, baizik eta eleaniztasuna. Euskara da gure hizkuntza, eta guk egiten ez badugu inork ez du egingo eta desagertu egingo da. Baina euskara ez da gure hizkuntza bakarra. Gaztelera eta frantsesa ere euskal herritarren hizkuntzak dira, eta hitz egin behar ditugu. Eta, nola ez, ingelesez ere egin behar dugu, munduan ibiltzeko.

Herri txikiek beren hizkuntzak hitz egin behar dituzte. Washingtonen hizkuntzalari eskoziar batekin topo egin nuen; liberala zen, eta nik planteatutako ideien kontrakoa, argi eta garbi. Esan zidan Europako arazo nagusia hizkuntzak direla; hizkuntza gehiegi dagoela, alegia. Eta erantzun nion: “Zuk ez duzu ezer ulertzen. Arazoa ez da eleaniztasuna, baizik eta elebarrak izatea”. Eta hor dago AEBen arazoa munduan.

benito lertxundi

musikaria



pako aristi,
2013ko maiatzaren 21a

(Benito Lertxundik ez zuen saioa grabatzerik nahi izan, eta, ondorengoa, 'Urola Kostako Hitza'-n argitaratutako pasarteak dira)

EZ DOK AMAIRU

Ez Dok Amairu Euskal Herriaren azken historia honetan mugarri baten modukoa da. Gauza asko jarri zen martxan. Gu kantatzen hasi ginen, eta gure esperientziak halako krak handi bat egin zuen herri honetan. Jendea kultur atal desberdinak jorratzen hasi zen. Ez Dok Amairurekin batera neurri handi batean herri hau martxan jarri zen. Beti izango du historikoki itzal hori.

Ez Dok Amairu izpiritu batekin sortu zen. Ni ez nintzen lehen egunetik izpiritu haren jabe,a. Kantatzea gustatzen zitzaion oriotar gazte bat nintzen, hor nenbilen kantatu nahian eta jendearen aurrean aritu nahian. *La Voz de España*-k antolatutako sariketa batean nenbilen, eta artikulu bat atera zuten egunkari hartan euskaraz kantatzen nuela-eta. Orduan euskaraz kantatzen genuenak horrelako erreserba arraro bat ginen. Hura irakurrita, Mikel Laboak deitu zidan bilera batera joateko. Hor izpiritu bat sortu zen, gure herriaren izanarekin, ideologikoa ere bai. Esango nuke abertzalea –bueltarik gabeko abertzalea– orduan egin nintzela.

Ni aspaldi hasi nintzen nire motxila husten. Gehiago gustatzen zait arin ibiltzea, lastre gutxirekin. Hau da, bizitza nekarazten digun horretaz libre izatea gustatzen zait. Ez naiz sartuko zergatia azaltzen. Orduan, Ez Dok Amairutik nahikoa etenda nagoela iruditzen zait. Haren 25. urteurrenean ospakizun batzuk egiten hasi ziren, eta deitzen ziguten baterako eta besterako, baina nekea sentitzen hasi nintzen beti gauza beretsuak egiten. Aske izateko gogoa sortu zitzaidan.

Euskal Herrian, honegatik edo haregatik, ziklo hauek 40 bat urte irauten dutela uste dut. Orduan oso garrantzitsuak ziren hainbat gauzak gaur prestigioa galdu egin dute; balioak ziren gauza asko gaur egun ez dira hain balio. Esango nuke izpiritu hori gastatzen ari dela. Ez Dok Amairu bat herri honek ezinbestekoa du gaur egun ere, esaten ditugun nahiak eta helburuak baditugu. Baina nik oraintxe ez dut oso garbi herri honen helburua zein den.

POLITIKA

Ehun urteko gerraren ondorioz konfiguratu zen mundu horretan bizi gara. Ehun urteko gerraren ondorioz gu bezalako herriak mamu horiek suntsituta jan egin zituzten. Orduan, gure munduko presentzia eza, beti okupatzen gaituen inperioaren sistematik pasatzen da. Gu bezalako herri batek, munduan egongo baldin bada, bere buruaren jabe izatea ezinbestekoa du. Gure herria oso-oso espainiartua dago eta, bestaldean, oso frantsestua, erabat. Beraz, oso toki gutxi gelditzen zaio gure benetako izateari; esango nuke, gainera, oso atal folklorikoan gelditu dela, egiazko erre-alitatean ez daukalako inolako bizitzarik.

Gurea estatu independentea balitz, mundu horretan egongo ginateke, biolentziaz eginiko mundu horretan. Politika ezinbestean biolentzia da. Kolonizatua dagoen herri batek desikasi edo bomitatu egin behar du ezinbestean inperialismoak bota dizkion basa guztiak. Euskaldunok automatikoki-edo esaten dugu arazo nazionala dugula eta, gainera, demokrazian bizi garela. Hori ura eta olio bezalakoa da: ez dira elkartzen inoiz, teknikoki ezinezkoa da; edo dago bat, edo bestea. Orduan, aklatatu egin behar dugu.

Munduan homologatzen den bakarra bere iguala da, estatu askeak euren artean erlazionatzen dira negozio horretan. Zer egingo du Euskal Herriak botoen bidez Espainiako erakundeetan egonik? 'Erabakitzeke eskubidea', diote. Oraindik ez dugu erabaki ala? Nik, behintzat, aspaldi erabaki nuen. Zerk pentsarazten digu inperio batek bere lege-kultura bere kaltetan aldatu behar duela gure mesede izateko?

Niri politika ez zait batere gustatzen, baina ezinbestean politikak harrapatu egiten gaitu. Gizarteak horrela antolaturik daude, eta oso inportantea da horren guztiaren naturaleza zein den jakitea, bestela erabat inozente bihurtzen gara eta gurekin nahi dutena egiten dute. Nahiz eta ez gustatu, politika garrantzitsuegia da euren buruak politikaritzat dituzten horien eskuetan uzteko, garrantzia handiegia du.

ERLIJIOA, KULTURA

Jainko guztiak gustu txarrekoak dira. Estupidoak. Nik umetatik hartu nuen jainkoa, heredatu nuen, eta gero 21 urte arte elizatik atera gabe ibili nintzen, apaizak baino gehiago ibiltzen nintzen nihan. Azkenean itsusikeria ikusi nuen eta desafio egin nion. Madarikatu nuen, biraoak bota nizekion eta desafio egin nion jais-teko. Ez zen jaitsi. Hori niretzat psikologikoki katarsi bat izan zen, haustura bat. Baina erabat garbitu nintzen.

Kulturak konnotazio denak onak ditu, baina ez gara konturatzen kulturak suntsitu ere egiten gaituela, eta salbatu ere hortik egiten garela. Jaiotzen garenetik egiten ari garen dena da kultura, baita gerra ere, gorrotoa, inbidia... Mundu akademikoan badago halako esaldi bat famatua, urrezko letrekin, 'kultura da gizonak ara-

zoei ematen dien erantzuna'. Eta lasai gelditu ziren hori esanda. Baina arazoak nondik datoz? Gizakion arazo gehientsuenak, gehienak ez esateagatik, kulturalak dira. Erlijiosoak ez dira sinisten dutenak, nahiz eta hala deitu. Erlijiosoa, bakar-bakarrik izan daiteke gogo-aske bat. Sineskeriaren ondorioz, berriz, mundu taliban bat jorratzen da. Gora askatasuna!

HIL, BIZI

Gu erabat pentsamenduan bizi gara, eta pentsamendua iragana da. Atentzio bizi-bizian bagaude, orduan ari gara une horretan pentsatzen. Geroa ez dago. Pentsamenduan bizi garenez, beti bizi gara iraganean lotuak, amarratuak. Nahigabe geure espetxea sortzen ari gara. Pentsamendua lanabes bat da, usaintzeko sudurra bezala, ikusteko begiak bezala. Horiek ditugu gauzak atzemateko bizitzako baliabideak. Baina gauzak modu aske batean ikusten jakin behar dugu, bere naturalezan, hartara ez baldintzatzeko neure burua.

Baliorik ez dago; balorazioak dira daudenak. Unean-unean, garaian-garaian zer behar dudan eta zer ez dudan behar jakin behar dut. Jakin behar dut uneoro hiltzen. Niretzako tesi bat da William Blake-k idatzitako hau: *Aquel que se aferra a una alegría / Destruye la alada vida / Pero aquel que la besa mientras vuela / Vive en el amanecer de la eternidad*. Hiltzen dena bakarrik bizi liteke, hiltzen ez dena ez da bizi. Ez gara konturatzen jaio ginenetik hiltzen ari garela; bestela, ez ginen haziko gure gauzak baztertzen eta berriak sortzen.

maddalen iriarte

kazetaria



eider alkorta,
2013ko uztailaren 9a

‘AZPIMARRA’ SAIOA

Nire ibilbide profesionalak lotura handia du Azpeitiarekin eta, batez ere, Loiolarekin. Izan ere, ni Donostiako Herri Irratian hasi nintzen lanean, eta lotura handia genuen Loiolako Herri Irratiarekin, Loiolako Herri Irratiko lankideekin eta irratia egiteko modu batekin. Irratia egiteko modu hark eragin handia izan zuen, baita gero euskal komunikabideek hainbat urrats egiteko ere. Hori ez nuke ahaztu nahi. Urtarrilean bete dira hiru urte [ETB1eko] *Azpimarra* saioarekin hasi ginela. Hasieran esan ziguten ea posible zen euskaraz astean behin hogeituro minutuko saio bat egitea. Eta esan genien baietz, baina egunero hogeituro minutuko saio bat ere egin genezakeela.

Bi pertsonen artean hiru ordu laurdeneko saioa egitea exijentzia handia da. Gainera, ez dugu ahaztu behar telebista neurri handi batean espektakulua ere badela. Telebista ikusteko ere bada eta, beraz, garrantzitsua da jendea ez aspertzea, eta ahal den mugimendu gehien edo, gure kasuan, iritzi eta ñabardura gehien eta iritzi aniztasun handiena izatea mahaiaren inguruan.

Azpimarra-n tertuliakideei hainbeste ordaintzen ez diegunez, gutxienez etor daitezela gustura, egon daitezela gustura, saioak ez dezala talkarik egin haien lanarekin edo haien afizioekin. Egutegi hori ixtea ez da beti erraza. Lan mekaniko hori dago, alde batetik, eta gero egunean gertatu diren gaien azterketa dago; badaude goitik behera irakurri beharreko txostenak, badaude ongi aztertu beharreko esaldiak, ondo aztertu beharreko kakotxak eta ondo aztertu beharreko puntuak.

Gauza bat gustura egiten denean, nik dudan inpresioa da hori islatu egiten dela. Azken batean, ikusentzuleak jasotzen duena ere

bada, neurri batean, barruko giro ona. Uste dut hori dela *Azpimarra*-ren sekretua.

KAZETARIAREN ROLA

Ez dago pertsona neutrorik, ez neutralik, eta, beraz, halako kazetaririk ere ez, eta edozeinek du bere abiapuntua. Gainera, abiapuntu bat eduki egin behar da. Edozeinek dauka bere pentsatzeko modua. Baina abiapuntua edozein izanda ere, egin daiteke kalitateko informazioa, iritzi ezberdinei tokia emanez eta iritzi aniztasuna errespetatuz. Albistegi bat aurkeztean ere bat ez da neutrala; batek 'arratsaldeon' esaten duenean eta kontatzen duenean zer pasatu den Egipton, esango du estatu kolpe bat egon dela edo ez, baina abiapuntu bat badauka. Objektibitate ere ez dago. Sekretua uste dut dagoela gertaera bat ikusi edo bizi dutenei ahotsa ematen, gertaera ikuspuntu desberdinetatik enfokatzeko eta, batez ere, iritzi desberdinei lekua uzten.

Beste gako bat da kazetari modura ia ezer ez sinistea; kinkan, dudatan, zalantzan jartzea, batik bat, bertsio ofiziala. Bertsio ofiziala edozein dela ere, eta boterea edozeinena dela ere, kazetari batek beti auzitan jarri behar du. Baina hau ez dut esaten karga batekin; kazetariaren lana da boterekoa auzitan jartzea, zalantzan jartzea, kontrastatzen saiatzea, eta nolabaiteko zubilana egitea boterearen eta herritarren artean. Hori ez da erraza, oso zaila da.

Gure saioan egiten dudana saiakera da inoren aurkakoa ez izatea. Hau da, ni ez nago zurekin ados, baina ez naiz zure aurkakoa. Ariketa hori egiten dut iritzi politikoarekin. Beste kontu batzuekin ez dut halakorik egiten. Niri marra gorri batzuk iruditzen zaizkidan gaietan ezin naiz neutrala izan. Adibidez, bat oso argia

emakumeeen aurkako indarkeria da. Ez dut ulertzen gizarte batean, gizonak eta emakumeak bizi garen gizarte batean, era honetako biolentzia jasan beharra aldamenekoak. Eta berdin dit kasu batean aldameneko hori gizonaezkoa bada, baina normalean emakumeeen aurkako indarkeria da. Hor ezin daiteke epela izan. Biolentzia kasu guztiak arreta handiz begiratu beharreko kontuak dira. Eta iruditzen zait, bereziki, kontuan hartu behar direla zuzenbide estatuaren izenean herritarren aurka egiten diren indarkeriak, beste indarkeriei inolako kargarik kendu gabe. Euskararen inguruan ere neure iritzia ematen dut. Haserretu egiten nau esaten denean euskarak diskriminatu egiten duela. Nik ez dut hori ulertzen, ezin dut ulertu. Onartzen dut hori nire arazoa izan daitekeela, baina euskararen kontuarekin eta euskal kulturaren zenbaiten marra gorriekin nire iritzia argi eta garbi esaten dut, iruditzen zaidalako esan egin behar dudala nire tokitik.

Tertuliakide guztiek esan didate pozik eta gustura etorriko direla berriz ere. Elkarrizketaturen batek pentsatu izan du berekin oso gogorra izan naizela. Nik benetan uste dut ez naizela oso gogorra inorekin izan. Agian, izan beharko nuke gogorragoa, baina pentsatzen dut nolabaiteko marra gorria edo nolabaiteko langa jartzan duzunean elkarrizketa baterako, eutsi egin behar zaiola horri, eta guztientzat egur maila bera izan behar dela.

POLITIKAGINTZA HEDABIDEETAN

Oso erraza da orain esatea politikari denek gaizki egin dutela. Ez da hori nik esan nahiko nukeena, ezta gutxiago ere. Komunikabide guztiok daukagun arlo digitalek politikariak bultzatzen dituzte esaldi bat esan eta hurrengo titularra zein izango den pentsatzera. Badaude batzuk ia-ia horretara daudenak, eta

oso zaila da horrela haien gauza guztiak interesgarriak eta mami-tsuak izatea. Azken boladan esanen politika bat egiten da. Gero horrek egunerokoan erakusten duenez, ez dago gauza handirik. Agian, sekulako sukalde lana egiten ari dira eta halako batean sekulako banketea ikusiko dugu begien aurrean. Ez nintzateke kontrakoa esatera ausartuko. Baina politikagintzan badago gauza asko esan, bata besteari handiagoak bota, gero handiagoa bota dion horrek esaten dio orain itun bat egingo dutela elkarrekin... Herritarrontzat eta hori barrutik bizi ez dugunontzat, horrek batzuetan sinesgarritasun falta sortzen du. Agian, antzeppen bat dela? Teatro hori niri ez zait asko gustatzen edo ez dit sinesgarritasun handirik ematen.

Azpimarra-n saiatzen naiz beste modu bateko eztabaidak sortzen. Dakidana da herri honek bakea eta elkarbizitza nahi eta behar dituela, eta daukadan inpresioa da bakea eta elkarbizitza ez zaizkigula etorriko parlamentu batetik, guk eraikiko ditugula; zuk, nik eta besteak. Orduan, eraikitzeke ez da formularik egokiena bata besteari zer astakeria handiago botako. Uste dut horretan ere hasi behar dugula formak, esateko erak eta eztabaidak burutzeko moduak aldatzen. Ni *Azpimarra*-n horretan saiatzen naiz. Esan diezadakete telebistarako beste formatu batzuk egokiagoak daudela, eztabaida espektakularragokoak badirela. Ni saiatzen naiz *Azpimarra* horrelakoa izan ez dadin, eta, muturreko iritziak baldin badaude, muturreko iritzi horiek modu batera esan daitezzen. Era berean, saiatzen naiz tartean dagoen gama guztia, gris maila horiek eta ñabardura horiek mahai gainean jartzen, iruditzen zaidalako herritarrok kalean gaudenean ñabardurak egiten dizkiegula gure iritziori eta besteari.

PERTSONAJE PUBLIKOA

Elkarrizketaren alde honetan egotea ez zait oso-oso eroso egiten. Publiko izateak ez nau ni beste edozein pertsonarengandik ezberdin egiten. Nik esateko daukadana, hemen bildu zareten edozeinek daukan bezain garrantzitsua edo aberasgarria izan daiteke.

Asko eskertzen dut norbaitek pentsatzea nik esan dezakedanak baduela nolabaiteko garrantzia. Ospeak hori dauka, alde batetik. Baina badauka alde friboloago bat. Jendeak begiratu egiten zaitu, eta begiratuta sentitzea batzuetan atsegina da baina beste batzutan ez da hain atsegina. Nik baditut jarraitzaile batzuk harrapatzen nautenak Eroskin nire karroarekin noanean eta bezperako *Azpimarra*-ren azterketa egin nahi didatenak. Eta momentu horretan nik, agian, presa daukat, joan egin behar dut eta joan egin nahi nuke, baina benetan esaten dizuet: karroa geratzen dut, haiek gabe ez baita posible *Azpimarra*. Hori oso barneratuta daukat. Ikusentzulerik gabe ez da posible, eta ikusentzuleari diodan errespetua izugarria da. Kritikak ere badira. Gaur egun arte kritikak ondo hartu izan ditut, iruditzen zaidalako kritikak beti direla aberasgarriak eta beti dagoela zer ikasi.

EMAKUMEA ETA IRUDIA

Emakumeen irudia telebistan asko zaintzen da. Ni izan ezik, Euskal Telebistako neska gehienak ateratzen dira mangarik gabe, azala erakutsiz, ile luzearekin... Modak aldatu egiten dira, baina badago estilo bat. Eta zaindu egiten da, eta batzuei, agian, eskatu egiten diete eta onartu egiten dute. Jakina, ez da erraza beti baietz edo ezetz esatea. Ni Euskal Telebistan langile finkoa naiz, oposizioz, eta gauza batzuetan ezetz errazago esan dezaket beste

batzuek baino. Egon zen eztabaida bat orain dela ez asko BBCko aurkezle bati buruz: 50 urtetik gora zeuzkan eta aurkezle postutik kendu egin zuten. Komunikabideak gizartean gertatzen denaren isla dira, eta uste dut komunikabideek ez dutela aparteko neurri-rik hartzen hori apurtzeko; egin beharko lukete, berdintasunera-ko pausoak emateko. Baina, isla diren neurrian, emakumeak era batera zaintzen dira: emakumeek ile urdinak badituzte, atso zahar batzuk dira eta ez dira batere interesagarriak, baina gizon ile urdinak oso gizon interesagarriak eta oso *Clooney* dira. Hori telebistan gertatzen da, eta beste edozein tokitan ere bai.

Behin idatzi nuen goizean korrika atera eta hiru talkatxo izan nituela gizonezko ezberdinekin. Batek autoarekin keinu bat egin zuen, beste batek motoarekin, eta gero hiru mutil atera ziren okin-degi batetik eta esan zidaten "*cómo te pesa el culo*" [nola pisatzen dizun ipurdiak]. Hiru mutil haiei momentuan atera zitzaidana esan zien, korrika ito beharrean nintzela. Oro har, emakumeei gertatzen zaie hori, ez dut uste ni ezaguna izateagatik gertatu zenik. Gainera, ez naiz ezagutzeko moduan ibiltzen korrika; batzuetan bixera bat jartzen dut.

jose maria setien

donostiako gotzain ohia



xabier euzkitze,
2013ko urriaren 15a

KRISTAUTASUNA ETA ELIZA

Kristau izatea modan dagoen edo ez gutxienekoa da. Benetako arazoa da ea bataiatuak eta konfirmazioa egin zutenak kristauak diren. Kristau izateko ez da nahikoa horrelako esperientziak izatea. Arazoa da ea haiek kristau izaten jarraitzen duten. Orain eta beti, kristau izateak esan nahi du kristau sinismena onartzea. Benetan sinismen hori gordetzen edo zaintzen duena da kristaua. Orain, beste gauza bat da kristau bezala norbaitek bizi nahi duen edo ez. Saiatzen naiz ahal dudan guztiekin gustura egoten, izan haiek kristau edo ez, baina bat kristau bezala hartzeko lehenik jarri behar dena da sinismena. Bestela, ez dago kristau izaterik.

Eliza apaizaren eta artzainaren lekua da, baina ez da inportanteena. Badaude beste leku batzuk. Batez ere, gotzainarentzat bere lekuak bere elizbarruti osoak izan behar du. Zer egiten dugu elizetan, gauza asko egin eta esan, gero kanpoan alderantziz edo jokatzén baudugu? Hala ere, eliza barruan ohitua nago; lasai nago hemen... [garai batean eliza zen Sanagustin kulturgunea].

ORDUKO EGOERA

Umil-umil esango dut: uste nuena egiten saiatu nintzen Donostiako gotzain izandakoan. Badakit erabiltzen nituen gaiak beste gotzainek hain argi ez zituztela planteatzen. Gipuzkoako eta Euskal Herriko arazoak bereziak ziren, eta orduan gotzainak gauza edo arazo haiez hitz egin behar zuen, baina ez berak nahi zuelako, eta hori kontuan hartu behar da. Esan behar da arazo haiek ez zirela bakar-bakarrik Elizan planteatzen. Gehienak Elizatik kanpo planteatzen ziren. Herriak eta pertsonak bazeuzkaten kezak. Gaiak haiek ziren, ez nituen nik asmatu. Jendearen

interesa sortzen zuten gaiak ziren, nik alde batera utzi ezinezkoak, ezin nuen gelditu inpresioa edo erantzuna azaldu gabe.

Badakit Euskal Herriko jendeak bere kezkak dituela eta, batez ere, ni gotzain nintzen garai hartan zertaz ziren. Banekien gai haiei buruz nik esandakoek interesa sortzen zutela, gai erlijiosoek politikakoek edo orduko egoerari buruzkoek baino eragin txikiagoa zutela. Baina sinismenarekin harremana-edo zerikusia zuten gauzak planteatu behar nituen nik. Azpeitian sartu naizenean, mojen komentua ikusi dut. Gotzain baino lehenago gotzain laguntzaile izan nintzen ni, eta orduan hamabost urtez segidan, urtero-urtero, idazkia egin izan nien moiei, eta idazki haiek egiteko jartzen nuen interesa beste gaietakoaren adinakoa edo handiagoa zen.

Nik uste dut Euskal Herrian, aipatutako arazo horiengatik, jende asko dagoela gotzainarekiko inolako interesik ez daukana. Interesa sortzen da ez batek esaten duenagatik, baizik eta entzuten diotenen interesaren neurriagatik.

[Maria San Gil EAEko PPko presidente izandakoak liburu batean idatzi zuen Setienentzat lehen eta bigarren mailako kristauak daudela, eta abertzaleak direla lehen mailakoak, eta ez-abertzaleak, bigarren mailakoak]. Gogoratzen naiz nola etorri zen behin nigana. Esan nion: “Nik denon gotzain izan behar dut eta denon gotzain izaten saiatzen naiz”. Baina denak ez dira berdinak. Gerta daiteke, familietan bezala, hemen ere izatea batzuk besteak baino gehiago sufritu dutenak, eta nire asmoa zen hari esatea gehiago sufritu zutenak zirela berak aipatzen zituen biktimak, ETak sortutakoak. Baina ez dakit dena entzun zuen, edo esan nuena entzun gabe barruan zuena azaldu zuen. Kontzientzia guztiz lasai daukat. Orain hamar-hamabi urte gotzain izateari uztear nengoe-la, [Espainiako] Konferentzia Episkopaleko kardinal presidentea-

rekin egon nintzen: Rouco Varelarekin. Hari horrelaxe esan nion, eta esan zidan: *“No sabes lo que te agradezco que me hayas dicho eso”* [Ez dakizu zenbat eskertzen dizudan neuri hori esan izana].

ELIZA ETA GIZARTEA

Baliteke Elizarekin harremana edo lotura izan nahi dutenen artean arrazoi teologikoak planteatzea. Elizarekin harremanik ez duen gazteak, zergatik ez du, Elizaren dogma eta doktrina aldatu ez direlako? Nik ez dut uste hori denik benetako arrazoia. Horrek ez du esan nahi Elizarekin inolako harremanik ez dutenen artean arrazoia ez denik Eliza ez dela behar adina aldatu. Baina nik uste dut orain, eta ez Euskal Herrian bakarrik, beste leku guztietan ere bai, arazoa dela zer den pertsona, gizakia, edo zer den gehiago kezkatzen duena. Zer espero du gizakiak orain bizi dugun bizitza honetatik. Dirua? Ondo pasatzea? Maitasuna? Askatasuna?... Horiek ez dira niretzat arazoak. Horiek dira sortzen ari diren elkarte berrien arazoak. Uste dut hemen izango banitu ehun gazte eta haien kezkak-eta azalduko balizkidate, nire erantzunak ez liratekeela dogma izango. Nik uste arazoak bestelakoak direla.

AITA SANTUA

[Eliza katolikoko aita santu] Frantzisko Iaren doktrina homosexualitateari buruz, nik dakidanez, lehen erakusten zenetik ez da desberdina. Ez dut esaten komeniko litzatekeen edo ez.

Frantzisko aita santuak duen sentimendua da sufritzen duenaren-gandik gertu izan behar dela. Jesusek esaten badu “ni ez naiz epaitzera etorri, salbatzera baizik”, eta orduan aita santuak esaten

badu 'ni ez naiz sartuko horien epaiketa egitera, baina horiek dira niretzat maitasun beharrean daudenak'? Horien epaiketa nork eta nola egingo duen beste kontu bat da, eta aita santuak horretan ez du sartu behar. Nik uste dut pauso handia dela. Aita santuaz uste dut aztertu behar dela zein den hark daukan ikuspegia, zer perspektiba duen gizarteaz eta gizartean sufritzen duten guztiei buruz. Bizpahiru hitz esan dituelako doktrina aldatu duela...; ez dago halako ondoriorik ateratzerik.

Iradoki du emakumeak presentzia eta garrantzia handiagoa izan behar duela Elizan. Hori ez da datorren urtean izango, ez da bost urtera izango, baina nik uste dut Elizak ez daukala teologia alde-tik eragotzi beharrik emakumeak apaizak izatea.

Aita santu berriak besarkada eman dio Gustavo Gutierrez askapen teologiaren sortzaileari. Ez dut esango hori erlatibizatu behar denik, baina itxaron egin behar da dena zertan geldituko den ikusteko. Batez ere, orain, Gutierrezek arazoak beste giro batean izan zituelako. Gauzak aldatu egin dira, eta hori ez da aita santuaren indarra txikitzeko edo balioa gutxitzeko, baina nik uste dut garbi zegoela eta teologoek ere hala idatzi zuten: "Askapenaren teoria marxismo gaitzesgarri batean oinarritu zen. Beste planteamendu teologiko batzuk dituen askapenaren teologia, onargarria da". Hori lehen ere esaten zen. Apaiz batek, teologo batek, jeusita batek edo aita santuak esaten badu 'askapenaren teologia, baina ez goaz-eta aurrera'? Nik orduan besarkada eman diezaioket Gutierrezzi, zu eta ni herrien askapenaren alde baikaude.

Pozten naiz aita santuak Vatikanon etxe xume batean bizitzea erabakitzea. Baina ikusi behar da gero zer pauso emango diren. Ez dakit 85 urterekin eskubiderik dudan esaten diren gauzak beteko diren edo ez itxoiteko, baina... Aita santua orain dela egun

batzuk Mediterraneora joan zen [itsasoan hainbat etorkin hil zela-eta], eta esan zuen lotsagarria zela. Horren ostean Italiak erabaki du beste itsasontzi batzuk jartzea han. Ikusi egin behar da hitzak eta asmoak errealitate bihurtuko diren. Alde horretatik, Frantzisko I.ak badu bere esperientzia eta indarra, hura aukeratu zuten kardinalak ezagutuko zuten eta ez zuten Italiako beste hautagai hura aukeratu.

Ausarta denik ezin daiteke uka. Nik pozik eta ados nengoke esaten dituen gauza horiek egiten baditu. Konfiantzarekin hitz egin nahi dut, eta bi hitz aipatu nahi ditut: itxaropena eta espektatiba. Itxaropenak esan nahi du orain ikusten diren arazo horiek nola edo hala erabakitzeko indarra izango duela. Espektatibak esan nahi du ikusiko dugula horretaz zer egiten duen. Eta nik esango nuke aita santuak esaten dituen hitzak ezin direla espektatiba bezala gelditu, benetako itxaropena sortzeko izan behar direla. Ari da gauzak aldatzen. Horrek esan nahi du aita santuak ematen duen irudia ez dela espektatibarena bakarrik, baizik eta itxaropen sendoarena.

APAIZ IKASKETAK

Zenbat urte pasatu diren Gasteizko seminarioan ikasten izan nintzenetik... Handik 1951ean atera nintzen, eta 85 urte ditut, aspaldikoa naiz. Hango irakasle izan nintzen, eta gero Salamancara [Espainia] joan nintzen. Izugarrizko alde dago seminario batean edo bestean ikasi, baina ikusi behar dena da gotzainak ez direla Gasteizkoak edo Toledokoak [Espainia]. Konparazioak ez dira horrela egin behar.

MAITASUNA

Sekula maitemindu al naizen? Egia izango balitz ere, ez nuke esango. Gauza bat esango dut: aski aske izateko, ez da beharrezkoa gertatzen diren eta pentsatzen diren gauza denak azaltzea. Benetako askatasuna eta harremanak izateko, denon artean –gizonen artean, emakumeen artean, pertsonen artean–, intimitate mundua behar da. Ez bakarrik bat behartuta dagoelako, baizik eta gizarteak intimitate hori zaindu egin behar duelako. Nik ez nuke esango benetako askatasuna izateko guztia esan behar denik. Beraz, hasierako galdera hori ez dut zertan erantzun.

HERIOTZA

Heriotzari ez diot beldurrik. Hor bi aukera daude. Bat, ‘ez dut sinisten ezer izango denik’ dioena; eta, ‘ezer baldin badago, izango da erlijioagatik sortzen den zerbait’. Alde horretatik, Elizaren, kristau fedearen heriotzaren ondorena positiboki hartu behar da. Zer erremedio! Sinismenak esan nahi du beste batengan fidatzea. Eta fidatzen banaiz hemen gertatzen diren arazo koskorretan, beste arazo handietan fidatzea normala izango da. Horrek ez du esan nahi nik ja gauzak garbi ikusten ditudanik. Hori ez da benetako arazoa. Benetako arazoa da sinisten al duzun. Sinisten dut, jainkoari eskerrak sinismena badaukat, eta sinismen horrek eskatzen dit eskuzabalik egotea azken ordua iristean.

amets arzallus

bertsolaria eta kazetaria



*estitxu elduaiei,
2014ko urtarrilaren 7a*

TXAPELKETA

Ilusio handiz nindoan Euskal Herriko Bertsolari Txapelketara. Ustez, lan pixka bat egin, eta bertsotarako gogoz. Zeure lagun batzuk erraz ilusionatzen dira eta esaten dizute “ea aurten iristen zaren”. Baina neuk *iritsi* hitzaren zentzuan ez nuen ezer ikusi nahi. Ez nuen txapela eta txapelketa helmuga bezala hartu nahi, eta buelta dezente eman nizkion hitz horren esanahiari. Batez ere, ikusten banuen nonbaitera iristea zela edo helmuga bat ikustea, edo, esan dezagun, gailur batera iristea. Gailurrak ez du gorago biderik eta, erremedio bakarra, buelta eman eta atzera jaistea izaten da. Nik askoz nahiago nuen nentorren bidea luzatzea edo bidexka batzuk hartzea, edota inora iritsi ez izanaren sentsazioa izatea. Bertsotarako ilusio bera daukat, eta, batez ere, ibiltzen segitzeko ilusio bera. Finalean txapela egokitu zen, gustura hartzen da eta irribarrea berez sortzen zaizu barrura, baina saiatu nintzen azkar pasatzen fase hori, eta nahiago dut ibiltzen segitu.

Guk badakigu gure bizitoki naturala gaur hemen [Sanagustinen] dagoen aretoaren tamainakoa dela. Gehiago esango dut: kasik erosoago sentitzen gara neurri honetan. Hau da gure bertsoaren jokalekua. Txapelketa bukatzen denean gogoz egoten zara zeure dimentsio normalagoetara etortzeko, han bertsotan egiteko.

FINALA

Finala hain bizi duzu modu hotzean eta zeure ariketan zentratuta, ez duzula bizi entzuleak bizi duen plano horretan. Badut gogo bat, batetik, kritikaren begietatik, neure begietatik, ikusteko eguna. Bestetik, pixka bat disfrutatzeko. Horretarako uste dut finala bakarrik ikusi beharko dudala. Badut gogo bat, baina

ez dut egin. Egun hartaz biharamunetan esan nituen gauzak gel-ditu zazikit, eta ia-ia bertsoak baino gehiago oroitzen ditut eman ditudan erantzun batzuk, eta eman ditudan erantzun horien hurrengoko erantzunak ematen ari naiz.

TXAPELDUN

Zeure izenaren atzetik jartzen dute *txapeldun* izendapena, eta txokea bezala egiten dit eta poza ematen dit, baina arraro ere egiten zait. Ezagutu ditut aurretik txapeldun izandakoak; Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta aurreraxeagokoak. Zuretzat badira erreferentzia bat, ematen diezu dimentsio bat eta badiezu miresmen puntu bat. Eta, gero, lehenengo pertsonan oso arraro egiten zait hori dena pentsatzea eta neure burua kokatzea.

Hiru aste eta bi egun pasatu dira Euskal Herriko finaletik, eta, egia da, alde batetik, egun hartaz ari gara, aritzen naiz, eta pasatu ez denaren sentsazioa daukat. Baina, beste aldetik, aski makal doanaren sentsazioa ere badaukatu, eta pixka bat egun hartatik ateratzeko gogo badut. Ez hutsetik hasteko, baina fase hori itxi eta aurrera begirako perspektiba batean sartzeko gogoarekin nago.

Atzo gauean izan nintzen gurasoen etxean, eta amak esan zidan: “Eraman ezazu [txapela] etxera”. Esan nion berak gordetzeko; nahiago dut neure etxean ez ikusi. Nahiago dut erlatibizatu.

OSPAKIZUNA

Finalaren hurrengo egunetan Hendaiako Ikastolan, ni hazitako lekuetan eta nire maisu-andereino batzuk oraindik dabilzan

lekuan, txapela ospatzeko festa egitea bereziki goxoa izan zen. Herrian ere zerbait egin da; Hendaiako udaletxean-eta inguratzen zaizu beste batzuetan horrenbeste inguratzen ez zaizun jendea, eta aski arraro sentitzen naiz. Bakoitza zergatik zetorren kontzientzia baneukan. Gauza polita da txapelera iristea edo horra iristeko bertso horiek edo meritutxo hori egitea. Baina gero inguratzen zaizun jendeari hirugarren begiz ere begiratu behar zaio. Hurrengo urtean Iparraldean hauteskundeak izango dira, herrikoak, eta Hendaiako herriko etxean aski goxo egin zidaten harreran hautagai guztiak ziren. Gehiegi pentsatzen dut, agian, baina arraro sentitzera iristen zara.

Gauzarik politena jendeak zuzenean eta ezagutzen ez duzunak zorionak ematea da. Herri batean edo bestean gertatu zait; Hendaian edo, adibidez, aurrekoan Zarautzen: lagun batzuekin bazkaltzera joan eta kalean mutil koskor batzuek “zorionak” esan zidaten, eta hori baino gauza politagorik ez da; nik uste hauteskundeetako intentziorik gabe esan zidatela haiek...

Ez gara familian geure artean ospakizun handietarakoak. Ez gara etxetik kanpo bazkaltzera edo afaltzera joan honen bueltan. Finalaren egun hartan bertan lagunak, ingurukoek eta familiakoek Barakaldotik Hendaiarako bidean Zumaian afaldu genuen, San Miguelgo soziedadean. Huraxe izan zen beroan egindako ospakizuntxoak. Baina, geroztik, aita-ama eta hurbilenekeokin, gehien sufritu dutenekin eta gehien merezi dutenekin, ez dut egin bazkaririk edo zerarik ere egin. Pena puntua ere ematen dit, baina horrelakoxea da geure izaera, eta erlatibizatzen ere laguntzen dit.

KRITIKAK

Gerora gehiago ikasten da min ematen dizun kritika horretatik. Hasieran kostatu egiten zait, baina denbora pixka bat pasatuta normalean onartzen hasten naiz. Nahiago dut horrelakoak ere irakurtzea eta ez dena laudorioak entzutea.

GIROA

Finalekook asteburu hau ere elkarrekin pasatu dugu. Hiru saio izan ditugu, orduak pasatu ditugun elkarrekin, eta hori laguntasun eta konplizitate handi baterako bide izaten da. Finalean goizgoizetik sentitzen nuen hori. Finala atera zen bezala atera bazen, taldetasun horren benetako sentimenduagatik izan zen.

DOHAINAK

Ni txikitatik hasi nintzen bertso eskolan, eta horrek lotsa puntua galtzea ematen dizu. Neurez nahiko barnekoia naiz, eta bertsotan ibiltze horrek erakutsi dit leku hauetan errazago askatzea hitzaren korapiloa. Ariketa horrek jartzen zaitu edozein gairen aurrean kantatu behar izatera; beste gauza bat da ongi, gaizki edo nola salbatuko zaren. Baina kantatu behar horretan ikasten joaten zara, eta horrek muskulu batzuk lantzen dizkizu. Ez dira superdotatu baten muskuluak eta ez dira mirarizko ezer, baina eginez-eginez beti ikasten da. Hainbeste urtean bertsotan eta jendaurrean ibiliz, azkenean iristen zara zenbait gauza egin ahal izatera, hain entrenatua ez dagoenak gisa horretan egin ezin dituenak.

PRESTIGIOA

Bertsolariaren figura gaur egun bereziki prestigio handikoa dela esaten denean, beti gogoratzen naiz, eta ez naiz konparatzen ari, Goiazko gure amona zenak Txirritaren bertsoak nola zekizkien buruz, edo Pello Errotaren pasadizo bat kontatuko zuen, edo Lazkao Txikiren istorio bat. Zer mira ikusten zen han, eta zer miresmen. Ez dakit ordukoa pertsona haiekiko prestigioa zen. Orain ez da finalera 13.000 lagun doazelako prestigio hori zabaldua. Gure amonak kontatzen zuenean Txirritaren bertsoak eta haren istorioak nola zekizkien buruz, oraingo begietan baino miresmen handiagoa zegoen.

Unai Iturriagak ongi azaldu zuen BECeko finalaren prentsaurrekoan. Jendaurrean dabilen jendearen artean desprestigioa nahikoa zabaldua dago. Bereziki, botere inguruan dabiltzan jendearekiko. Sinesgarritasun galera handia dago. Gure diskurtsoan, berriz, sinesgarritasun hori harrapatuko ez balitz, jendearen erantzuna horren araberakoa litzateke, erlatiboagoa. Txapelketan fenomeno bat gertatzen bada, gure hitzetan, elkarrekiko hitzetan, iruzur handirik harrapatzen ez dutelako izango da.

AITA

Nik askotan galdetu izan diot neure buruari aita bertsotan ibili izan ez balitz, edota aita bertso eskola Hendaian izan ez balu, ni benetan bertsotara iritsiko ote nintzatekeen. Eta ez dakit. Pentsatzen dut, beharbada, bertsozaletasuna egon zitekeela hizkuntzaren kontzientzia hori gure barnean erein baldin bada, hortik bertsozaletasunera bide laburra dago-eta. Baina gure etxeko kasuan, aita bertso munduan zebilen, bertso familiako parte zen

eta bertso eskola hori txiki-txikitatik arnastu nuen, eta ni gehien horri zor natzaio. Txiki-txikia nintzela eskutik helduta bertso eskolara eraman ninduen. Gero momentu bat iristen da esku hori askatu eta esan behar dizuna zeuk bakarrik bidea egiteko, eta gure aitag horretan gurekin asmatu zuen. Txikitan kirolean besterik ez nuen pentsatzen ia-ia. Aitag bertsoa txertatu zidan buruan, egoskortu zen pixka bat. Baina hamalau-hamabost-hamasei urte arte ez nion orain diodan gustu eta ilusio hori ikusten. Bertsoa jostailu huts bezala ikusetik haratago pasatu nintzenean, barruko korapilo batzuk askatzeko bide eman dezakeen zerbait bihurtzen denean, orduan ilusionatu ninduen gehiago. Ez zen nire ametsa, eta, ziur aski, aitag insistitu zidalako eutsi nion.

Askotan, konturatzen ez zarela ere gauzak sartzen zaizkizu, eta gogoratzen naiz umetan, gu koskortu arte, aitag ez zuela mugarik pasatzen. Nahiko berandu arte ez nuen jakin zergatik zen. Aita Iparraldera joan zen gu sortu baino lehen. Ama ere bai aitarekin. Gu han hazi ginen eta, Zumaiara joaten ginenean amonarengana edo Goiatzera, aita han geratzen zen. Gure haurtzaroa GALen garaia zen, baina ez dut oroitzapen markaturik, ez bada gure ikastolako pare bat urte zaharragoko baten aita zen Juan Carlos Garcia Goena bonba auto bat jarrita hil zutenekoa Hendaian. Zeure barruko geruza horietan txikitan bizitako istorioek zeu osatzen zaituzte. GAL sortu zen urte berean sortu nintzen [1983an], eta sortu zen lekuan, gutxi-gorabehera.

Gure etxean hizkuntzaren eta bertsoaren transmisioa gertatu da, eta oso ongi berbalizatzen ez dazkizkidan kontzientzia batzuen transmisioa ere bai. Hori da nire gurasoen, eta zehazki gure aita-aren, bizitza baldintzen ondorio zuzena.

EUSKAL HERRIA

Fase luze bat itxi da, eta beste bat hasi da politikoki, nahiz eta sakon-sakonean doan erreka beti den bide bera: izan nahiaren bidea, herriari forma eman nahia, eta hizkuntzari eutsi eta zabaldu nahia. Hori sakon-sakonean beti egon da, eta, aroaren arabera, gatazkak forma bat edo bestea izan du. Horren aldaketa bat etorri da. Egiten dituzu ilusio batzuk, gero ez direnak hainbeste betetzen. Gaur egun, diluitze hori sentitzen dut; ez nuke etsipenera eraman nahi, ordea, uste baitut sakon-sakoneko erreka horiek direla benetan garrantzitsuak. Hor dago gure herri honi mapetan forma eman nahia, eta forma horrek barruan sustantzia pixka bat izan dezala eta euskaldun izatea izan dadila zerbait berezia. Zerbaitegatik daukagu amets hori. Batzuetan iruditzen zait oso baliabide gutxirekin ari garela ejertzito kultural handien kontra. Baina ez nuke ezkorregia izan nahi.

Gatazkaren aro aldaketan, presoen errealitatea hor dago eta hori konpontzea premiazkoa da, hemen aurrera egingo bada. Badago sufrimendu pilatu bat, neke pilatu bat, askotan ilusioari itzal egiten diona. Haiek askatu behar dute eta denok askatu behar dugu horretatik, hasteko bide batzuk egiten. Merezi du arreta eta urgentzia korapilo hori benetan konpontzeko. Beste gaietan ere batzuetan gertatzen da, eta ikusten dut, askotan urgentziak lehen-tasuna kentzen diola inportantea denari, eta batzuetan premiazkoa dena konpontzen hasten zara eta, bien bitartean, inportantea denak hor irauten du. Eta benetan inportantea dena da geu izate horri zentzu bat ematea, mapetan forma bat izan edo ez. Hor burua nekatu beharko genuke.

Europar beste prozesu batzuk badira martxan, eta uste dut, zorionez edo zoritxarrez, atzeraxeagotik goazela erabakitze eskubi-

dearen gaian. Euskaldunok pentsatu izan dugu oso herri borrokari eta aurreratua garela gatazka politikoaren alde horretatik, baina kataluniarrek belarrondoko bat eman digute. Eskozian galdeteta egitea bera da garaipen bat baina, baiezkoa [independentsia] izanez gero, garaipen hori bikoitza litzateke. Eta ea Katalunian baiezkoa edo ezezkoa emateko aukera duten. Hori gertatzen bada, guretzat ere bide batzuk irekiko lirateke zirrikitu haietatik. Hori, Hegoaldeko ikuspegitik, Iparraldetik nahikoa aldatzen da-eta gauza.

IPARRALDEA

Iparraldean gure izan nahiaren bidea edota euskaldun izan nahiaren bidea, eta hemen [Hegoaldean], amets politiko batzuk dira. Han beste garai batean kokatuta gaudek, hemengo egoerarekin konparatuz askoz ere minimoagoetan gaude. Premiazko lehentasuna hizkuntzari eustea da, eta hizkuntzaren iraupena minimoeetatik pixka bat goraxeago bermatzea. Noski, horri lagunduko lioke azkenaldian Frantziako Estatuari eskatu zaion lurralde elkargo propio bat edukitzeak. Oso kontu oinarritzkoa da, baina esplikatzeko: han gure mapa geografikoak ere ez du gure irudia marrazten; Iparraldeko hiru probintziek eta Biarnokoek departamentu bat osatzen dute, ez dugu entitate propiorik. Horren aldeko aldarrikapen bat badago. Azkenaldian kolore guztiak, hasi abertzale eta ez-abertzaleetaraino eta frantsesagoetaraino, bat etorri dira, baina estatuak beti ukazioari eutsi izan dio eta kostatuko zaigu pulstu hori okertzen.

Iparraldeko nire kezka nagusia, urgentziazkoa, lehena, hizkuntzari eustea eta minimoki geroratzea da. Esango dut era gordin samarrean, baina esplikatzeko uste dut funtsezkoa dela: doaze-

nek daramaten hizkuntza eta datozenek dakartenaren artean sekulako amildegia dago. Kostaldeko errealitatea desberdina da, migrazio handia izan delako, baina barnealdean, eta orokorrean hartuz, izan da mendeetan euskararen transmisioa, etenik izan ez duena, etxeetan, eta hor berमतuta dago kalitatea eta kantidadean izugarria da. Gazteok ikastoletan ikasten dugu, baina gutxiengo bat gara. Gehienak frantses eskoletan eta batzuk elebidunetan ikasiak dira. Bizitzara datozenek dakarten euskara oso pobrea da doazenekin konparatuz. Hari batetik zintzilik ikusten dut, eta ikastolen mugimendua funtsezkoa da horretan. Hemen ikastola bat dena baino gehiago da Hendaian; han ikastola bat da euskaraz irakasten den lekua, herri askotan bertso saioak ikastolek-eta antolatzen dituzte, eta Benito Lertxundiren kontzertu bat Urruñan ikastolak antolatzen du. Ikastola da, nolabait, hizkuntzaren eta hizkuntzatik haratago herri horren kontzientziari eusten dion muskulua, eta hori ahultzen saiatuko dira. Nik hor ikusten dut gure etorkizunaren baratza bakarra kasik.

KAZETARITZA

Ikastolan iristen da momentu bat galdetzen dizutena zer ikasi nahi duzun. Banituen lagun batzuk guztiz galduta gelditzen zirenak galdera horren aurrean; artzain izatetik arkitekto izaterainoko abanikoa ia zabalik zuten. Ez dakit zergatik, baina mutil koskorretatik garbi izan nuen kazetari izatea gustatuko litzaidakeela.

Beti anekdota bezala kontatzen dut eta grazia egiten dut. Txikitan irrastian futbola entzuten nuenean eta jendea Realeko partidak

komentatzen, amak zenbat aldiz ez zidan esan nik hori egin nahi nuela esaten nuela. Golak kantatzen zituzten momentu hori zer-bait berezia zen. Gero iritsi nintzenean kazetari izatera, gol gu-txiago sartzan hasi ziren gaur hemen dauden [Realeko jokalaria oh] batzuk eta aldatu behar izan nuen... Baina broma hori kendu-ta, egia esan, txiki-txikitatik gauza horiek markatu ninduten. Gero ez dut bereziki kirolarekin lotuta lan egin, gustuko dut kirol kaze-taritza eta irakurtzen dut, baina bertsolaritzak beste gai batzuetar-ako sentsibilizazioa zabaldu dit eta kazetaritzak horretarako bide ere ematen du. Bertsoarekin aski ongi uztartu den ariketa mentala izan da.

Kazetaritza ikasi nuen, eta zortea izan nuen *Egunkaria* zenean atea zabaldu zizkidatelako, eta han pixka bat lantzeko aukera izan nuen. *Egunkaria*-n bertan, *Berria*-n edo bestelako hedabide batzuetan lan egin izan dudanetan, orokorrean gustura egin izan dut. Asko erakutsi dit, jende asko ezagutzeko aukera eman dit. Pertsona bezala izugarri emankorra izan zait eta aurrera begira ere, ez dakit nola eta zein formatutan, baina ez dut baztertzen, ez dizkiot atea ixten lan horri.

Elkarrizketak badu zerbait: bereziki pertsona bat ezagutzeko aukera. Elkarrizketetan zortea izan dut luze samarrak egiteko aukera eman didatelako. Elkarrizketa luze samarra egitea pertso-na batekin aurrez aurre ordubete edo bi pasatzea da, baina bada aurretik egin beharreko lanketa oso bat ere. Nahikoa exijentea izan naiz neure buruarekiko, eta dendora pasatu izan dut pertso-na bat aurrez aurre izatera iritsi baino lehen hura ezagutzen.

Hemen sekretuak kontatzen hasiko naiz, eta taktikak. *Argia*-n elkarrizketarako zerrenda osatzeko aukera uzten zidaten eta gus-tatzen zitzaidan zail samar batzuk aukeratzea, eta erronka modu-

ra hartzen dituzu. Behin Evo Morales Boliviako presidentea hautatu nuen. Horrelakoek komunikazio kabinete bat izaten dute inguruan, ateak zabaltzeko baino gehiago ixteko izaten direnak. Orduan, pentsatu behar duzu ate hori itxita ere sartu behar duzula haren gela horretan. Mila estrategia izan litezke; behar duzuna da pazientzia handia, eta, ahal bada, malizia handiagoa. Kasu hartan bietatik ezer ez nuen behar izan. Aita Goiazkoa dut eta aitaren osaba bat, Manuel Eiguren goiaztarra, Bolivian gotzain izateraino iritsi zen, eta hemen hainbeste ez, baina han oraindik Elizak indar pixka bat badu, eta, ni atea izanagatik, gotzain batek zabaldu zizkidan *zeruko* ate horiek. Kasu hartan, nahikoa erraz iritsi nintzen Moralesengana. Duela bi urte hil zen Manuel. Nik ez dakit zenbat kostatu zitzaion, badakit kostatuko zitzaiola, eta hark negatik egin zuen, eta ni beti eskertua egongo naiz.

Bi aldiz izan nuen Evo Moralesekin egoteko aukera. Lehenengo aldian beste bi kazetari zeuden ondoan. Gezurrik esan gabe, nioen *Argia* beretzat oso aldizkari txiki eta intsignifikantea izan zitekeela, baina guretzat inportantzia guztia zeukala. Zerbait sinistuko zuen, bigarren aldiz ireki zigun-eta atea. Orduan elkarriketatu genuen denbora luzexeagoan, bakarrik. Harritu egin nintzen, adibidez, ez zidala galderak aurretik bidaltzeko eskatu; eseri zen eta erantzuten hasi zen. Hemen politikariek oso hizketa neurtu eta hotzean hitz egiten dute. Hark egundoko soltura zuen hizketan. Agian, gero ez zuelako irakurriko elkarriketa...

JENDAURREA

Hainbeste jenderen aurrean ez dakit txapeldunak erantzuten duen edo nik erantzuten dudan, eta ematen dit lotsarik. Nahikoa pertsona zalantzatia naiz eta, normalean, esandakoak berriro ira-

kurri nahi izaten ditut. Hemen ez dakit, beharbada bideoan ikus-
teko aukera izango da, baina lotsa pixka batekin etorri naiz eta
lotsa pixka batekin joango. Baina ahalegintzen naiz ahal den sin-
tzeroen izaten neure buruarekin, eta behar den zorrotzen.

Bertsotara irtetea errimatu egin behar da, neurtu egin behar da
eta bere konplikazioak ditu, baina niretzat egundoko babesa iza-
ten da. Bertsoaren atzean ezkutatuta gelditzeko aukera izaten dut,
oso dominatua ez dudana gaitan ere salbatua gelditzen naiz.
Baina hitz lauz oso biluzik sentitzen naiz, eta lotsa ematen dit
hemen hainbeste denboran aritzeak. Baina ez zait damutu etorri
izana.

jesus egiguren

artean pse-ee alderdiko presidentea



enekoitz esnaola,
2014ko martxoaren 11

NEGOZIAZIOA

Bizitza guztia hemen egin eta ez konturatzea hau [euskal gatazka] ez zela bukatuko negoziatu gabe... Negoziatzen saiatzea zen alternatiba bakarra, ea posible zen ikustea. Hori egin genuen. Eta nik uste hori dela adinak ematen dizun jakituria pixka bat. Orain Ipar Irlandako Gobernuaren aurrean dagoen batek oso ondo azaldu zidan: gobernu batek pentsatzen badu terrorismoa bukatuko duela Poliziaren bitartez, kontuan hartu behar du ehun atentatu saioetatik ehun eragotzi behar dituela, eta hori ezinezkoa da, ez dagoelako munduan gobernurik hori lortuko duenik, ehunetik atentatu bat ondo irtengo zaielako, eta terrorismoarentzat bat ondo ateratzea nahikoa da segitzen duela esateko. Orduan, azkenean kasu hauetan negoziazioa nagusitzea da, ezta?

Ni momentu batean ezker abertzalearen buruan sartu nintzen, eta ETaren buruan, eta uste dut haien estrategia beraiek baino lehenago asmatzen nuela. Negoziazioetan bizi izan nuen egoeragatik, ikusi nuen bukatzeko gogo zutela baina zaila zela negoziazio baten bitartez bukatzea. Gertatzen da beti egoten dela bat atzean esaten duena negoziazioko edukia ez dela ezer, gehiago eskatu behar dela. Hori pasatu zen ETAn, eta estatuan ere pasatu zen –epaileak politikarien aurka hasi ziren, eta abar–. Atera nuen ondorioa izan zen ETA negoziazorik gabe bukatuko zela, askoz errazagoa baita talde terrorista batentzat bere azalpena ematea historian izan duen eraginari buruz eta lortu duenari buruz, negoziatzea baino. Negoziatzen badu, azken batean gobernuaren baldintzetara joan beharra du. Gainera, aurrekariak ere badaude Hego Amerikan: erakunde terroristek horrela bukatu dute.

Gauza horiekin, eta polikara dedikatzen naizenez, egutegia atera, halako urtetan udal hauteskundeak zeudela ikusi, bestean oroko-

rrak eta abar, eta pentsatu nuen bukatzea erabakitzen bazuten, 2011ko [udal eta foru] hauteskundeetara joateko bukatu beharra zutela. Kalkulu baten ondorioz data batzuk jarri nituen, eta ikusi nuen ez nenbilela gaizki, Rufi Etxeberriak esaten baitzidan “gure egutegia ere horixe duk”.

Niri kontatu zidatenez, PPkoak, [1999an] Genevara joan zirenean, ETArekin bildu baino lehenago konfesioa eskatu zuten. Haiek gotzain batekin joan zirenez... Niri galdetu zidaten [bitartekariak, 2005ean] ea zerbait egin nahi nuen, eta erantzun nien nik lehen-dik ezagutzen nituela ETAKoak. Banekien Genevan mila aldiz seguruago nengoela Donostian edo Azpeitian baino eta, orduan, ez nuen ezer berezirik sentitu edo egin. Esaten zidaten: “Hau George da”; Josu [Urrutikoetxea] *Ternera* zen, eta niregatik esan zioten Martin nintzela, eta biok bagenekien Josu garela, eta bostekoa eman nion hari, zer moduz zegoen galdetu... Ni misio bat betetzera joan nintzen, eta berdin zitzaizkidan beste gauza guz-tiak. Ez zitzaidan axola nork hitz egiten zuen ozenago edo baxua-go, edo zer eratara jantzten zen, edo... Norvegiako Atzerri minis-troak esan zidan makina bat gatazkatan ibilia zela eta lehen aldia zela ikusten zuela gobernu baten ordezkaria galtzak zimurtuta. eta terrorista, dena plantxatuta eta elegante. Ni gauza haiez ez nintzen kezkatu.

ETAKoak beraien artean desbedinak ziren. Ni Josu Terneraarekin oso ondo konpontzen nintzen. Gero [Xabier Lopez Peña] *Thierry*-rekin, gaizki; uste dut bere buruarekin ere ez zela arreglatzen. Bi fase izan ziren. Batean oso ondo pasatu nuen; gezurra esango nuke egundoko tentsioak eta arazoak bizi nituela esango banu. Aurreneko fasean elkarri laguntzen egon ginen. Aldiz, ETAtik gero besteak azaldu zirenean, aurreneko egunetik prozesua gal-dutzat eman nuen.

2006ko elkarrizketetan, berriz, nik aukeratu nuen Loiolan egitea, besteak neure zelaira ekartzeko. Etxekoa egiten zitzaidan. Futbol partida bat jokatu behar baduzu, beti hobe izaten da zeure zelaian jokatzeari. Nik, Loiola aukeratu nuen, jesuiten eremua. Erlijioan agnostikoa naiz, baina beti izan diet izugarrizko errespetua Elizari eta erlijio batzuei. Gure ama izugarri fededuna zen. Baina erlijioaz eta nazionalismoaz agnostikoa izatea hobe. Bi gauza horiek pixka bat pasatzen badira, munduko gerra guztiak aldamenen eramanen dituzte. Badute indar bat. XX. mendeko hilketa guztiak erlijioagatik edo nazionalismoagatik egin ziren.

2006an Loiolan jesuiten gune bat aukeratu nuen bezala, 2004an Erromara joan nintzen, Roger Etxegarai kardinalarekin egotera. Ezker abertzaleari gustatzen zaio halakoetan hirugarren herrialde bat sartzea, bitartekari bat, eta aipatu nion Vatikanoa izan zitekeela. Gainera, esan nion Eliza eskubiari eta EAJri gustatzen zaiela. Jokaldiak borobila ematen zuen, baina Vatikanokoak gu baino azkarragoak dira. Etxegaraik esan zidan Vatikanokoak konfirmatzen duela baina ez duela bataiatzen. Liburu bat eta txakoli botila bat eman nizkion kardinalari; liburuaz bazter batean utzi zuen, eta txakolia hartu eta edan egin zuen.

Hau bukatzera zihoala esan nuenean, jendeak une hartan zenbait kalkulatu egin eta zioen etorri behar badu etorri dadila, baina pixka bat geroago. Eta, orduan, niri hartu zidaten mania. Ustez lagun nituenak galdu egin nituen, hitz egiteari utzi zidaten. Politikan bizitza nahikoa miserablea izaten da. Egun guztian zeure jendearekin egoten zara eta haiek abandonatzen bazaituzte...

ETAk jarduera armatua utzi zuela jakinarazi zuenean [2011ko urriaren 20an], erietxera eraman ninduten. Niri Espainiari bezala pasatu zitzaidan: kontrariorik gabe geratu nintzen... Urte askoan

egon nintzen tentsio batean. Askotan galdetu izan didate: “Aukera eduki hemendik joateko, eta zergatik ez haiz joan?”. ETArek aurka jardun garenak burugorriak gara, fanatikoak, eta horregatik aguantatu dugu geuk ere. 30 urte egin ditut bizkar-tzainekin eta, neu ez nintzen ohartzen, baina itxura denez tentsio-ak bizi nituen, eta ETA bukatu zenean, pozarekin batera, indarrik gabe geratu nintzen. Jendeak esaten dit ozenago hitz egiteko, baina ez daukat indarrik.

BAKEA

[Arnaldo Otegi kartzelatik Sanagustineko hitzaldirako galdera bat helarazi dio: “Jesus, zeinek ez du nahi bakerik? Eta zergatik?”] Espainiak bakea ilusiorik gabe hartu du. Ohituta zegoen arazo hartara. 40 milioi lagun dituen nazio batean urtean bi pertsona hiltzea... Bi horiek beren familiak bakarrik ezagutu, agintariak Madrildik etorri hegazkinean, familiakoei bizkarrean jo, buelta Madrilerara eta adierazpen politikoak egitea, denak horretara ohi-tuta zeuden, eta ETA bukatzea estatuarentzat arazo bat sortzea izan da. ETak jarraituko balu, beharbada ez ziren azalduko azal-du diren ustelkeriako kontu hauek guztiak. Lehen bazegoen kon-trario finko bat, eta orain Espainiari kontrarioa falta zaio.

Bakea garestia izaten dela esaten da politikagintzan. Bakerik gabe jende askori bere bizitza dezente ondo joan zaio. Esate baterako, kalkula dezagun segurtasunean zenbat eta zenbat diru mugitzen zen. Hori dena bukatu da. Guardia zibilek bostehun euro gutxia-go irabazten dituzte, eta lehen ere ez zuten askorik irabazten. Kazetariak gai honetaz bakarrik zekiten hitz egiten. Gaia bukatu zitzaien, baina bukatu ez balitz bezala egiten dute, eta askok orain gorroto handiagoarekin hitz egiten dute ETA zegoenean baino.

Hemendik [Euskal Herritik] kanpo irtenda ez dago garbi ETA gelditu den. Espainian saldu zen mezua izan zen 'ETA gelditu da, baina Bilduk haren tokia hartu du eta hauteskundeak irabazi ditu'. Eta hauteskundeak honelako gai batean txorakeria bat dira. Nik beti esaten dut hauteskundeak mareak bezalakoak direla: alderdiak igotzen dira, baina behin ere ez dira goian geratzen, gero jaitsi egiten baitira, baina behin ere ez dira behean gelditzen; une batean ateratzen dituzu emaitza onak, eta etorriko dira okerragoak. Baina kalkulu hura egin zuten, interesatua. Batik bat, Espainiak kontrario bat behar zuen, eta bazeukan, eta orain ez dauka. Eta orain kontrarioak ateratzen ari zaizkio bazter denetik: Kataluniatik, krisia...

Hemen jendea hiltzen zenean PSEk bazuen Jaurlaritzako sailburu bat [Rosa Diez] *Ven y cuéntalo* esaten zuena Espaini guztian [Zatoz eta konta ezazu], eta orain esaten du orduan baino okerrago dagoela Euskadiko egoera, eta galdetzen dut: zergatik ote dago okerrago? Pintxoak-eta jatetxeetan txarragoak izango al dira? Bestela, ez dago ulertzerik *Ven y cuéntalo* jendea hil zutenean esatea eta orain okerrago gaudela esatea...

Eta horrela hasten bagara, [ETAren] borroka armatua zegoen bitartean Otegiri kartzelara bisita egiten ziotenek, orain bakea dagoenean ez diote egiten. Gauza arraro asko pasatzen dira. Jendea edozertara ohitzen da.

Bakea, batik bat, datozen belaunaldiengatik egiten da, hemen eta mundu guztian. Gernikan Otegiri eta biori Bakearen saria eman zigutenean, hori sinbolizatu nahi izan genuen saria bion alabek jasota eta ekitaldian biek hitz eginda.

BIKTIMAK

Nire betebearra bakea lortzea zen, eta lortu dugu. Bakean gaude, dudarik gabe. Bakea da jendeari bakean uztea. Baina oraindik ere bueltak ematen ari gara, bakea egiteko planak-eta behar direla esanez. Ez diet zentzurik topatzen. Bakea egina dago. Gehiago esango nuke: berradiskidetzea ere egina dago. Falta direnak gauzek –ETArenak, presoak...–, honezkero bidea behintzat izango zuten beste toki batean bageunde; baina hemen, ez.

Jendeak ez daki biktimak zein diren, eta horrek ere eragiten dit. Telebistan azaltzen diren denak ez dira biktimak; asko dira biktimen kontura beraien bizitza arreglatu dutenak, eta bozeramaile politikoak dira. Gainera, biktimei bizitza guztian biktima izaten laguntzen dietenak dira. Bati aita hiltzen badiote, lehen urtean asko sufrituko du, gero dueloa izaten da eta orduan ere sufrituko du, baina hark aldamenean pertsona bat badu egunero aita hil diotela esaten, ez du dueloa egiten. Biktimekin hori egin nahi da.

Periclesek esandakoa gogora ekarriz, gatazka batean biktimak bi dira: aurrena, egia; eta bigarrena, gatazka sufritu dutenen seme-alabak. Biktima izateko, ez da zertan egon pertsona bat hilda. Jo dezagun mutil koskor bati esaten diotela bere aita GALEk hilko duela, eta telebistan ikusten duena dela *onak txarra* hiltzen duela, eta orduan ezagutu egin behar da mutil koskor haren buruan zer pasatu den eta zer bizi izan duen. Haiek bizi-tzan eskolako porrota eta abar izaten dituzte, eta, muturreko kasu batean, etakide egiten ziren.

Hor izugarrizko masa bat dago, bai alde batean eta bai bestean, eta biktimak haiek dira. Inor ez da akordatzen haiekin. Gerra karlistetan liberalek boluntarioei eta soldaduei ez zieten inolako

aitortzarik egiten, baina hauen seme-alabek unibertsitatea zuten Guadalajaran [Espainia], osasuna doan zeukaten, eta soldadutza egin beharrik ez zuten. Liberalek bazekiten arazoa non zegoen. Guk, itxura denez, ez dakigu; eta, gainera, ez zaio inori axola.

Hil zuten PSOEko aurrenekoa Zumaiaiko argazkilari bat izan zen. Neuri deitu zidaten, gorpua ezagutu nezan. Nik uste ordura arte ez nuela atentatueta hildakorik ikusi; trauma bat izan zen. Bigarrena Gajate delako bat izan zen. Haren amarekin Madrilera joan nintzen, [Espainiako] Auzitegi Nazionalera. Trenean joan ginen, denbora guztian zutik; hara ailegatu, eta andre hari utzi zioten pasatzen eta niri ez. Buelta berriro trenean egin genuen. Orain dela bi urtera arte ez nuen izan berriro haien berri. Gajate haren alarguna etorri zitzaidan agurtzera, ni bakarrik ezagutzen ninduela esanez. Esan nion akordatz nintzela Gajateren amarekin, eta galdetu nion zer moduz zen familia. Erantzun zidan aita ibaira botata zendu zela semea hil eta handik hiru hilabetera; eta ama, butano gasa arnastuta, sukaldean. Gajateren alarguna seme-alaba batzuekin zegoen –adoptatutakoak ziren–, eta esan nion gutxienez familia eder bat bazuela eta aurrera segitu behar zela. Baina gero beste bide batetik jakin nuen Gajateren semeak etxetik joan zirela hilketaren ondoren.

MEMORIA

Gatazkaren zenbait ondorio behin ere ez dira konponduko. ETak hil dituen 800 pertsona horiek badituzte euren seme-alabak, eta hauek eurenak... Hori ezin da ahaztu, eta hemendik hamar urtera orain baino gehiago hitz egingo dela drama horretaz. Alemanian ez zuten naziei buruzko filmerik egin 1970eko edo 1980ko hamar-kadara arte. Gauzak bere bidea segituko du, hildakoa ez dago

pizterik, ez dago armairuan ezkutatzetik. Baina ni memoriaren kontra nago. Beti esaten da memoria falta dela, baina uste dut bakea egiteko ahaztu egin behar dela ahal den guztia. Gauza asko ahaztu ezinezkoak dira, baina ez dago ahalegin bat egin beharrik gauza batzuk akordatzeko, nahi gabe ere akordatuko garelako, baina bakea egiteko gauza asko ahaztu egin behar dira, eta kontzeptu positiboa da ahaztea. Geure bizitzan pasatu zaizkigun gauza txar denak ahaztuko ez bagenu, ez ginатеke biziko.

GATAZKA

Neuk eskatu nion behin Rubalcabari zergatik ez zuen egiten kalkulu bat zenbat jende pasatu den kartzelatik, zenbat jendek salatu dituen torturak...; hau da, guk ezagutzen ez genuen beste mundu horretan zer pasatu den ikusteko. Txosten handi bat ekarri zidan geroago, eta esan zidan: “Eta oraindik diote ez dagoela gatazkarik...”. Bakoitzak berea bizi du, ordea.

Orain gatazka armatua ez dago. Gatazka zegoen, jendea hiltzen zelako. Jendea hiltzen ez bada, hor dagoen egoera deitu daiteke nahi den moduan, batek ‘gatazka’ esango dio, besteak ‘arazoa’, baina hildakorik ez dago, eta demokrazia arazoak konpontzeko izaten da. Halakoetan, gatazka egotea ez da txarra; are gehiago, positiboa da gizarte batean pluraltasun eta aberastasun bat egotea eta horrek arazoak sortzea, betiere demokrazia dagoen bitartean. Demokraziak konpontzen ditu arazo horiek.

ETA, EUSKAL PRESOAK

Gaur egun ez dut ETAREN arazoa ikusten; presoaren arazoa ikusten dut nik. ETA ez da behin ere desegingo; gainera, nola desegiten da, azidoarekin-edo? Pertsona horiek hor daude eta hor segituko dute bizirik diren bitartean, eta, seguru asko, gainera, pentsatuz mundu horretan meritu bereziak egindakoa direla. Francorekin bazen talde bat *Aieteko 40ak* izenekoa. Donostian biltzen ziren uda guztietan; ez ziren ez ministro, ez ezer, baina ziren Francorekin aurren-aurrenetik ibili zirenak, eta ez ziren sekula desegin. ETA ere ez da behin ere desegingo. Esango du egunean batean 'desegin gara', baina ez da desegingo.

ETAREN armagabetzea ere ez da arazoa. Frantzia harrapatu zituzten pistolak dauzkate, eta, erabiltzen ez badira, alferrik daude pistola horiek. Onena dute saldu eta diru bat ateratzea. Jendeak armagabetze keinuak eskatzen ditu, baina keinua egiten den momentuan esaten da 'horrek ez du balio, txorakeria bat da'. Eta ETAK desegin dela dioen egunean, jendeak esango du hori ez dela nahikoa, 'etor daitezela Espainiara eta sar ditzatela kartzelara'. Ez dauka bukaerarik arazo horrek.

Desarmeaz ari garela, [elkarrizketetan] ideia ez zen desarmea. Laguna nuen Alec Reid zena; hura lekuko izan zen IRAREN desarmean, eta erdi barrez azaldu zidan ekarri zutela zaku bat balaz beteta, pisatu zutela, eta hainbeste bala, beraz; gero beste zaku bat ekarri zutela, gero beste bat... baina inork ez zuela begiratu zaku haietan zer zegoen. Baina Erresuma Batuari komeni zitzaion desarmatu zirela esatea, eta ontzat hartu zuen. IRA ez da desegin.

Aldiz, presoaren arazoak badauka bukaera; egutegi bat jarri behar da. Sakabanaketa dela-eta garai batean egin ziren egutegiak; geuk

egin genituen. Orain sakabanaketak ez du zentzurik, eta presoek senideek zigor erantsi hori pairatzen segitzen dute, alfer-alferrik. Baina Espainiako Gobernuak aldaketa bat izango da hurrengo hauteskundeetan, eta gai horiez ere mentalitatea aldatu egingo da. Behin ere egin ez den gauza bat egiten ari dira orain gobernuak. Gogora gaitezen zer pasatu zen ETA politiko-militarrarekin: Roson Barne ministroa eta Mario Onaindia eseri ziren, eta arazo guztiak konpondu zituzten, presoek-eta.

Espainiako presidente Zapatero zela negoziazioa ondo zihoan bitartean, guk presoei buruzko azterketak eginak geneuzkan, preso bakoitzak lehenbailehen irteteko zer bide eraman behar zuen sailkatuta-eta, baina, negoziazioak gaizki irten zuenez, ahaztu egingo zen. Une honetan ez dakit ETakoek beraiek ere badakiten oso ondo zer egin behar duten presoek arazoa lehenbailehen bukatzeko. Esate baterako, alferrik izanagatik ere, esango balukete armak desegin edo entregatu dituztela, horrek jende asko lasaituko luke, nahiz eta keinu bat izan. Haien esku dago.

GERRA ZIKINA

Estatu terrorismoa ez zen PSOerekin hasi; PSOerekin bukatu egin zen. Lehenagotik zetorren arazo bat zen. PSOeren garaian piztu zen GAL, eta piztu zutenek edukiko dute erantzukizuna. Gu kontra geunden, eta ez dut uste inolako erantzukizunik dugunik; izango bagenu, gainera, ardura hartzeko prest nago. Hemen bakoitzak bere ardurak hartu egin behar ditu.

Lehen jende dena Galindoren-eta atzetik ibiltzen zen; orain ez. Nik ezagutu nuen Galindo, eta oso ondo, gainera. Gobernadore zibilak ere ezagutu nituen, neure lagunak zirelako. Gobernadore

zibil euskaltzaleak jartzen genituen guk eta, geure ustez, torturari buruz gehien kezkatuko zirenak. Akordatzen naiz Julen Elgorriaga Gipuzkoako gobernadore zibil izendatu zuten bazkariaraz; Elgorriagak galdetu zien guardia zibilei eta poliziei: "Torturatzen al duzue?". Eta ez zuten erantzun. "Ba, gaur arte". Baina hark ez zuen zerikusirik handik hiru edo lau hilabete ondorengo Elgorriagarekin. Egia da bitartean bere bihotzeko lagun bat hil zutela: Enrique Casas.

Casasen hilketa oso kasu berezia zen Gipuzkoan. Aurretik izandako hilketek ez zuten hainbesteko eraginik izan. Casas hil zutenean [1984an, Komando Autonomo Antikapitalistek], neuk ere pentsatu nuen ekarriko zuela buelta. Nik uste gaur esan daitezkeela gauza horiek, ezta? Ez gara jarri behar alde bateko hildakoak eta bestekoak konparatzen.

Mundu horrek irentsi egiten zaitu. Guardia Zibilaren takonazoak errespetua sartzen du. Gu politikara iritsi berriak ginen, eta Guardia Zibilak eta Poliziak bizitza luzea zuten, asko zekiten, eta politikaria pixka bat militarizatu egiten zen, militarren mentalitatera erortzen zen. Hortik beste pauso bat emanez gero, azkenetarako azterketak egitean uste zenuen hau bukatzeko neurri bakarra errepresioa zela. Egoera hori dela, pertsona bat hiltzen dutenean, iristen da une bat hilketa horrek beste hilketa bat eskatzen duela.

Hori bai, Galindok ez zuen esaten errepresioa zenik bidea. Galindok esaten zuena zen negoziatu egin beharko zela egunen batean.

EUSKAL HERRIA

Euskal Herria nazio bat da, jakina. Baina Euskal Herria da nazioa, ez Euskadi hau. Euskadi hau, Bizkaia gizenduta da. Hori ez da Euskal Herria. Euskal Herria da Nafarroa, Frantziako lurraldeak... Eta gu orain egiten ari garena da zenbat eta Euskadi gehiago, orduan eta Euskal Herri gutxiago. Euskadi gizontzeak Euskal Herria ezinezko egiten du. Nik uste EAJn dagoeneko inork ez duela siniesten Nafarroa Euskadi izango denik. Espainiako Konstituzioan laugarren xedapen iragankorrean jarri zutenean Nafarroak Euskadin sartzeko aukera izango duela, oso erraza zen: egin alderantziz, eta jarri Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa sartuko direla Nafarroan. Baina inori ez zitzaion bururatu...

Garai batean dena *vasco-navarro* zen. Orain galdu egin da hori, eta pena ematen dit. Donostian momentuak lau eskudokoak ziren; hau da, Nafarroakoa ere bazutenak. Orain ja hirukoak jartzen dituzte. *Euskal Herria* termimoa idatziz, nafarrek erabili zuten lehenengo aldiz. Edo azkeneko diputatu frankista, Amadeo Marco, agurtu zen esanez “bizi osoan Euskal Herriagatik borrokatzen saiatu naiz”, eta orain hitz hori iruditzen da...

Bestetik, umeei ez diete frantsesa erakusten, eta zuk nazio bat egin nahi baduzu eta nazio horretan hiru hizkuntza badaude, eta bi munduko garrantzitsuenetakoak badira [gaztelera eta frantseza], eta elkar ulertu nahi baduzu, ez du zentzurik [Hego Euskal Herrian] frantsesa ez erakustea; ez du zentzurik herri bateko hizkuntzak denei ez erakustea.

Edo, esaten dute: ‘Ni nazionalista naiz!’. Baina nazionalista sentitzen ez den batek igual abertzale batek baino gehiago sentitzen du Euskal Herria.

Erabakitzeko eskubidea eta kontsulta-eta aipatzen dira gaur egun hemen ere. Independentzia behin ere ez da lege baten bitartez lortzen. Gehiengo izugarri bat baldin badago, onartu egiten da *de facto*. Horrek Sorturi-eta eragiten die, ez EAJri. Nik uste EAJk ez duela sinisten gauza horietan. Nazionalismoarentzat ez da biderik onena kontsulta. Horrekin behin betiko utziko ditugu kanpoan Nafarroa eta frantsesak, eta zatituta utziko genuke Euskal Herria.

EUSKAL KONSTITUZIOA

Ohituta gaude herri batek bere konstituzioa izatea, baina espainiar batek zenbat konstituzio ditu? Bi: Espainiakoa eta Europakoa. Eta AEBetan estatu bakoitzak bere konstituzioa du, eta AEBetakoa ere badu. Konstituzio batek ez du zer izanik lege bat bakarrik. Erresuma Batuan ez dago konstituziorik, ohiturak daude. Alemanian ez du 'konstituzioa' izena, 'oinarrizko legea' baizik. Guk, eskubide historikoekin eta Espainiako Konstituzioak onartzen dituen eskubide indibidualekin, geure konstituzio bat izan beharko genuke.

Espainiak dio bere lehen konstituzioa Cadizen egin zela, 1812an, Gezurra. Aurreneko konstituzioa Baionan egin zen, 1808an, eta Cadizen baino handiagoa izan zuen ordezkaritza. Bozkatzera ailegatu ziren unean Gipuzkoako, Bizkaiko, Arabako eta Nafarroako ordezkariak jaiki ziren eta Napoleoni esan zioten oso ondo egin zuela nazio honi konstituzio bat ematearekin, falta ederra zuelakoan, baina Gipuzkoak, Bizkaiak, Arabak eta Nafarroak berea zutela "eta honek ez digu eragiten". Napoleonek konstituzioko artikulua bat sartu zuen, foruei buruzkoa. Hau da, gaur duguna Napoleonek asmatutakoa da. Cadizkoa onartu zenean,

garrantzitsuena izan zen Agustin de Arguellesek egindako diskurtsoa. Hasi zen esaten: “Gipuzkoarrek, bizkaitarrek, arabarrek eta nafarrek duten konstituzioa eman nahi diegu espainiarrei; haiek dira Espainiako herri libre bakarrek”. Garai hartan konstituzio kontsideratzen ziren foruak.

Orduan, ez diot inolako arazorik ikusten Euskal Herriak konstituzio bat edukitzeari. Hura arautzeko lege nagusia bere konstituzioa izango litzateke, logikoki.

ARNALDO OTEGI

Ni joan izan naiz Arnaldo Otegi bisitatzeraz kartzelara, baina gaur egun ez didate uzten sartzen. Aurreko prozesuan azkenerako lagunak egin ginen, eta harekin egin dutena hain injustua iruditzen zait... Borroka armatua defenditzen jarraitu izan balu ez zen, seguraski, kartzelan egongo. Hauxe da tokatu zaigun herria, nazioa edo estatua, nahi den bezala deitu. Gero ez da harritzekoa jende asko Espainiaren kontra egotea. Beste edozein tokitan, honelako gatazka baten ondoren, edozein gobernu gauzak lehenbailehen konpontzen saiatuko zen. [PPren] Gobernu honek ematen du ez duela batere interesik arazoak konpontzeko.

Otegi kartzelan edukitzeak kalte handiak ekarriko ditu. Izan ere, Sortu sortzen ari den gauza bat delako, eta une honetan alderdi horrek bere liderrik onenak behar ditu hitz egiten, eta Espainiak egin duena da liderra kartzelan sartzea. Orduan, alderdi bat bururik gabe utzi dute. Ez dut artaldearekin konparatu nahi inor, baina artalde bat artzainik gabe...

EZKER ABERTZALEA

Sabino Aranarekin zilbor hestea moztu beharko luke ezker aberztzaleak. Sabino, EAJrena da. Haren teoriarekin ez dago Euskal Herria egiterik, eta iruditzen zaigu nazionalismoak, nahitaez, EAJrena bezalakoa izan behar duela, eta ez du zertan izanik. Izan daiteke abertzaletasun bat irekia, biktimista ez dena, liberala, demokratikoa, beti negarrez ari ez dena. Guk dugun abertzaletasunaren guztiz kontrakoa. 'Ezker abertzalea'-ren hitz ordenak moskeatu egiten nau, baina jo dezagun erdiak ezkerrekoak direla eta beste erdiak abertzaleak, eta, urak nahasita daudenean, EAJk egiten du negozioa. Sortu oso euforiko dago, botoak atera dituelako [haren Bildu koalizioak], baina oso kezkatuta egon beharko luke. Sabino Aranaren garaian alderdi liberal abertzale bat sortu zen; bi egun iraun zituen. Gero ANV sortu zen; hura ere, *fuera*. Trantsizioan liburu bat betetzeko adina saio egon zen; EErena ere bai. Azkenean denak desagertu egin dira. Zeozergatik gertatzen da hori. Euskadin nazionalismotik behin ere ez egonkortu ezker-rra, eta ez da egonkortu, Sabino Aranarekin ez duelako moztu.

PSOE

Politikak erlijioarekin zerikusi handia du, eta gure garaian erlijioaren eraginaren bitartez sartzen zinen politikan. Erlijioak esaten zizun munduan justiziak egon behar duela eta ahal den guztia egin behar dela. Hortik sozialismora pauso txiki bat dago. Nik uste jende asko kristautasunagatik egiten zela sozialista.

Ni 1977tik nago PSOEn. Arduratan nagoenetik Batzorde Federalesko kide ia bizitza guztian izan naiz, baina ez nintzen joaten. Madrilén kargu politiko aritzeko ez didate eskatu, eta eskatu

izan balidate, Madrilen edozer gauza egingo nuke politika baino lehenago.

2006an Loiolan hitz egiten egon ginenean, Batasunak eskatzen zuen han PSNk ere egon benar zuela, baina esaten nien nik, PSOEko Batzorde Federalesko kide bezala, nafarrak ere ordezkatzeko nituela, PSNren gainetik nengoelako. Edo 2002an PSEn Nicolas Redondoren ordezkoa aukeratu behar zenean, Zapateroren kontra egin genuen. Zapaterok deitu gintuen Madrilerara, eta esan zidan: “Zuk ezin duzu PSEko presidente izan, ez dakigulako buruan zer duzun. Eta Patxi Lopez ez da PSEko idazkari nagusi izango, eta ni naizenez PSOEko idazkari nagusia, hemen nik esaten dudana egingo da”. Ez genion kasurik egin. Gure kongresuaren bezperan deitu zidan Zapaterok, esanez nola hirugarren talde bat zegoen eta guk igual ez genuela irabaziko, eta erantzun nion beste talde horrek 39 boto lortuko zituela. 39 lortu zituen; guk irabazi genuen.

Oso ondo iruditzen zait Ferrazek PSNri jarritako betoa [Yolanda Barcina Nafarroako lehendakariaren aurkako zentsura mozioa ez babestea], eta oso gaizki PSNk agindu hori errespetatzea. Madrilek eskubide osoa dauka pentsatzeko [Bildurekin-eta] Barcina kentzeak kalte egingo ziola Espainian, baina PSNk eduki behar du nortasun bat, ausarta izanez eta egin behar duena eginez. Zoritxarrez, Nafarroan UPNren itzalean bizi dira, eta gu hemen EAJren itzalean bizitzen ohituta gaude, baina nola ez dagoen inor laguntzen gaituena...

jon sarasua

mondragon unibertsitateko irakaslea



josu azpillaga,
2014ko maiatzaren 28a

ZIKLOAK

Duela hamalau urte-edo ezkutatu nintzen plazetatik, eztarriko ebakuntza bat zela-eta. 2000. urtetik aurrera nolabait erabaki bat mamitzen joan zitzaidan zentratzeko eraikuntza lanetan, unibertsitatean taldeak sortu...; hor probatzea neure burua, eta pixka bat ateratzea publikotik. Bizitzan ildo bat hartu eta horri etengabe eusten dionari errespetu handia diot, baina bagaude beste ipurterre batzuk bizitza labor honetan tonu ezberdinak probatzea gus-tatzen zaigunak, eta nik hamar urtean probatu dut unibertsitatean, gauza batzuen zuzendari eta arduradun izanik, gauzak erai-kitzen eta sortzen, eta ziklo hori amaitutzat eman dut. Beste aro batean sartu ari naiz, nora doan ondo jakin gabe. Barruak eskatu dit, beharbada hamalau-hamabost urtean isilik izan ditudan ideia batzuk idaztea, buruan karga sentitzen nuelako, esan gabeko gauza askoren karga. Euskararen berreskurapenaren eta etorkizunaren inguruan izan ditzakedanak liburuan jarri, burua pixka bat deskargatu eta, behin liburuan jarri duzunean, uste dut plazara atera beharra dagoela jarri duzuna defenditzera edo azaltzera.

BERTSOLARITZA

Uste dut gauza askotan ederki ari direla, maila bikaina dagoela, eta niri entzutea eta isiltzea dagokidala. Askotan sortzen zait tentazioa esateko: 'Hau egin beharko lukete, hau falta da...', baina gero neure buruari galdetzen diot: 'Eta hik egiten al huen? Orain zer habil besteei eskatzen?'. Bertsolaritza osasuntsu dago mugimendu eta planteamendu bezala. Bisio eta estrategia mailan adibide ona da. Orain dela 25 urte amets bat izan zen, eta gaur esan dezaket orduan ia erokeria ematen zuen amets hura eskuekin uki dezakegula. Euskal Herriko Bertsozale Elkartea sortu zenean

gure ametsa zen bertsolaritza jakintza munduan txertatzeko dokumentazio zentro bat izatea eta unibertsitateak horretaz iker-tzea. Edo bertsolaritza telebistan txertatzea, jendea hor zegoelako. Ikastoletan egotea. Bertso eskolak sortzea... Horixe da gaur egun, bere akats guztiekin, gauza batzuekin ez bainago oso gustura, baina hor dago errealitate hori. Bisio horri hainbat jende atxikitu zaio, amets horrek sortu digu energia bat eta hor joan gara 25 urtean, gero eta aurrerago. Gozamen bat da mundu horretara hurbiltzen naizen bakoitzean jasotzen dudana jasotzea, poza, maitasuna eta ironia pixka bat, barre egiteko aukera.

Betiere galdetu behar da belaunaldi berrietan nola erreproduzitu-ko den, eta hori inkognita bat da. Gehienbat, gure esku dago ber-tsolaritzaren mugimenduak zenbaterainoko gaitasuna izango duen gazteen kezketan behar bezalako mezuak sortzeko, kultura sortzeko, benetako umorea sortzeko, benetako ideiak sortzeko, eta herrietan giro on hori transmititzeko... Nik uste hor dagoela gakoa, eta hori ez digu independentziak konponduko, adibidez. Gure antolakuntzaren eta gure energien arabera dago. Ez dut esa-ten beste hori ez denik inportantea, baina askotan erlatibizatze-ko, dena beste erakunde handi horietan jartzen da. Gure desafio mui-neko funtsezko asko beste leku batzuetan dago.

Bertsotan egiteak tiratzen dit, plazak ez hainbeste; publikoak edo publikoaren aurrean aritzeak ez hainbeste. Erdi sekretuan urtean saio bat egiten dut, baina afari giroan eta ia inor enteratu gabeko lekuetan. Herdoiltzen ari naiz. Bost bat urtean isilik egon nintzen eta bertsoa non ote nuen pentsatuz nenbilen. Itsasun bertso saioa egiteko deitu zidaten Maialen eta Amets Arzallusekin, oraindik txapeldunak izan baino dezente lehenago, orain dela hamar bat urte-edo. Eta haiekin jiran-jiran pentsatu nuen uste baino gutxia-go herdoildu nintzela eta uste baino freskoago nuela makineria

hori. Nire burua gai dela sentitzen dut, baina batzuetan kostatu egiten zait bertsoa ekartzea. Ikusiko dut; ez dakit, beharbada herdoil hori engrasatuko dut, baina presarik ez dut, momentuz.

EUSKARA

Euskaingintzak edo euskarak nora jo behar duen eztabaidatzea ez da urtebeteko edo bi urteko lana, ezta liburu batek probokatu dezakeen kontua ere. Datozen hamar bat urteetan egin beharko dugun prozesua da. Zentzu horretan ikusiko dugu zer datorren eta eztabaida hori fundamentuz egiteko moduan gauden. Hala ere, [bere *Hiztunpolisa*] liburuak izan duen harrerarekin oso pozik nago. Zortzi bat hilabete bada argitaratu zela, eta geroztik herriz herri ibiltzea tokatu zait, eta leku askotan irakurri eta eztaibadatzea. Oso eskertua nago zentzu horretan. Zerbitzu bezala idatzi nuen, ideiak botatzeko, harimuturrak solte uzteko eztabaidak sortzeko eta, alde horretatik, gustura nago.

50 bat urte daramatzagu euskararen mugimendu modernoarekin. Duela 50 bat urte euskara egoera larrian zegoela esan dezakegu eta etorkizuna ilun ikusteko arrazoi asko zeuden. Baina herri honek bide bat jarri zuen martxan. Euskara batua sortu eta hortik zein bide egin duen da atal bat. Hezkuntzan ikastolen sorrera da beste atal bat. Uste dut herri honen jenio nagusia gure gurasoek izan zuten ikuspegi hori izan zela: ikastolak sortzea. Benetan harrigarria izan zen, eta eskertzekoa. Komunikabideekin egin den lana eta euskalduntze alfabetatzea dira beste atal batzuk. Adar asko daude. Gertatzen da 50 urte egin ditugula bide horretan. Lehendabiziko hogeit hamar urteak inolako gobernurik eta laguntzarik gabe, eta ondorengoak, nolabait esanda, administrazioaren laguntzarekin. Egindakoa meritu handikoa izan da herri bezala;

zenbat ehunka mila lagunek ikasi duten euskaraz, hedabideetan hartu duen garrantzia... Baina ilunaldi moduko batean gaudela iruditzen zait, bisioa lausotua dugula. Badakigu nondik gatozen –gazteek ez; ez gara gai izan transmititzeko–. Baina ez dakiguna da oso ondo nora goazen, hurrengo pausoak zeintzuk diren, gure estrategiak; hor galdu samar dabil euskalgintza mailako jendea. Bada garaia ikusteko zer egin dugun eta hemendik aurrera zein diren desafio berriak, non ikusten dugun gure burua euskararen herri bezala edo herri honetako euskararen komunitate bezala, eta zein izan behar duten pauseok 30 urtera.

Aitaren etxea eta amaren sua-sukaldea metafora azaltzen saiatuko naiz. *Etxea* deitzen badiogu estatuari edo egitura politikoari, izan Espainia, izan euskal estatua, izan independentzia, autonomia; zer etxe daukagun gure lurra antolatzeko. Hori izango litzateke gure arlo instituzionala. *Sua*, berriz, gure jarraidura kulturala, gure hizkuntza eta gure hizkuntza komunitatea izango litzateke. Beti pentsatu dugu biak bat zirela, baina historiak erakutsi digu hori horrela ez dela izan. Euskaldunok gehienetan etxerik gabe egon behar izan dugu, ia inoiz ez dugu eduki gure Sanagustin bat bere atekin eta bere mugekin, beti egon gara besteen etxeetan, besteen zatietan, etxe handiagoko zatietan, baina inportanteena da, hori horrela izanda ere sua, gure euskaltasunaren eta kultura-ren sua, hizkuntza hau eta hizkuntza honi lotutako kultura hau, transmititzea lortu dugula. Orduan, badira bi plano: bat, sua eta suari eustea; eta bestea, zer etxe eraiki nahi dugun. Egia da lotuta daudela eta etorkizunari begira pentsa dezakegula gure suari, gure euskararen su honi ondo eusteko gure txalet propioa egitea komeni zaigula. Iritzi bat da, ondo dago, ni ere iritzi horretako naiz; independentzia izango litzateke hori. Baina egon liteke beste jende bat su hau zaintzearen alde dagoena, baina txaleta egitearen alde ez eta oraingo apartamentuetan ondo gaudela pentsatzen

duena. Beste pertsona bat egon daiteke suaren alde, baina inolako etxetan, politikatan sinisten ez duena. Orduan, zein da kontua? Suaren alde gaudenok eta euskararen su honetan parte hartzen dugunok, etxeari buruz iritzi ezberdinak izanda ere, goazen elkarrekin lana egitera. Etxea eraikitzen ari direnak, politikariak, horretan eztabaidatzen ari diren bitartean bakoitzak jasoko du hor bere botoa edo abstentzioa, baina sua zaintzearen eta euskara eta bere kultura zaintzearen alde gaudenok egin dezagun elkarrekin lan. Hori da liburuaren sakonean dagoen planteamendua, eta ez liburukoa bakarrik, nik uste gure tradizioz onena hortik datorrela. Guk Euskal Herriko Bertsozale Elkarteetan lan egin dugunean, izpiritu horrekin egin dugu lana. Eta ikastolak ere izpiritu horrekin sortu ziren, eta nik uste herri honetan 50 urte hauetan ondo egin diren gauza asko izpiritu horrekin egin direla. Gaizki egin ditugun gauza gehienak –eta asko egin ditugu 50 urteotan; uste dut politikoki erridikulu ugari egin dugula–, egin dira bakoitzak bere egia politikoa besteei inposatu nahi izatetik.

GIZARTE ANTOLAKUNTZA

Iruditzen zait etorkizuneko gizarteetan, gutxienez, hiru erakunde mota izango ditugula. Batetik, kapitalaren logikapean funtzionatzen dutenak, *pribatu lukratiboak* esan dezagun, eta badakigu hori dela, nolabait, gizarte honen oinarri ekonomikoa, eta ez bakarrik ekonomikoa. Bestetik, estatua edo erakunde publikoak. Eta hirugarrenik, gizarte erakundeak, diru kapital baten nahikunde lukratiboz antolatzen ez direnak eta estatuarenak ez diren gainerako erakunde mota guztiak. Nik uste asmatu behar dugula etorkizuneko gizarteetan pentsatzen, jakinik hiru horiek izango ditugula eskuartean. Eta hori horrela izanik, begiratzen badiogu euskal komunitateari, horren babarrunak eltzetik atera dituzten erakun-

deak bi motakoak dira. Batetik, eta tradizionalki azken 50 urtetik hona, gizarte erakundeak dira. Gizarte zibiletik sortutako, euskararen hausporako sortutako erakundeak, Euskaltzaindia, AEK, Bertsozale Elkarteak... Korpusak baditu bere erakundeak, hezkuntzak bereak, kulturgintzak bereak, hedabideek, euskalduntze alfabetatzeak, eta horrela ia lore guztiak sortzeraino. Haiek ez dira erakunde publikoak, gizarteak sortutako elkarte, koordinakunde, enpresa edo fundazioak baizik. Eta haiek osatzen dute euskararen hauspoan dabilzan erakunde sorta. Bestetik, jakina, hor daukagu, oso funtzio inportantea betez, erakunde publikoen sorta, azkeneko 30 urteotan funtsezkoa izan zaiguna, lehen aipatutako beste erakunde haiek babesten eta laguntzen –neurri batean, ez beti guk nahi izan dugun neurrian–, eta baita oso inportanteak izan diren erakunde batzuk sortzen ere: EITB, unibertsitate publikoa, hezkuntza publikoa, IVAP (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea) eta beste hainbat gauza. Hori da pixka bat gure gaurko eskema, eta gaur euskararen hauspoa ez da ulertzen bi erakunde familia haiek ulertu gabe, eta uste dut etorkizunean ere bien beharra izango dugula.

Gure kasuan, gure historiagatik beharbada –batzuek esaten dute gure historia antzinakoagatik, eta beste batzuok esaten dugu gure gertuko historian daudelako klabe asko–, gizarte antolakuntzaren edo gizarte zibilaren geruza antolatua bereziki dinamikoa eta bizia da. Ez da oso ohikoa ikastolak bezalako esperientzia bat egotea martxan; edo kooperatibek izatea industria egituraren ehuneko zati handi bat. Bai kooperatibak eta bai ikastolak hibi droak dira, gizarte antolatutik sortu eta merkatuaren esparruan edo estatuaren esparruan ari direnak. Eta beste horrelako erakunde hibridoak ditugu munduan arraro samar egiten gaituztenak. Baina nik uste arraro samar, onerako. Ez da izango oso ohikoa, baina gurasoen kooperatiba bezala antolatzen den eskola eredu

bat mundu mailan berezia da eta badauka interes puntu bat, gizarte zibilaren antolakuntzatik sortu eta kudeatu litekeelako eskola bat. Horrek esan nahi al du eredu publikoa txarra dela? Ez, nik uste eredu publikoak ere funtzio inportanteak betetzen dituela eta hor dago gizarte bakoitzak egin behar duen debatea. Hezkuntza osoa utziko al dugu estatuaren edo administrazio publikoaren menpe? Ona al da, horretaz gain, gizarte antolatua-ren esku dauden eskolak izatea? Zer da hobia hezkuntza unibertsala planteatzeko? Erantzuna konplexua da. Baina eskolan bezala, gizarteko beste gai askotan ere ikusi behar dugu zer funtzio bete dezaketen erakunde publikoek eta zer gizarte antolatuek. Hiru erpinetan koka ditzakegu anarkista bat, leninista bat eta liberal bat. Liberalak esango du dena afan lukratiboari utzi beharko litzaiokeela; leninistak esango du estatuak hartu behar dituela funtzio guztiak; eta anarkistak esango du gizarteak zuzenean hartu behar dituela funtzio guztiak, kapitalari eta estatuari utzi gabe. Nik uste eztabaida interesgarria dela.

EZKERRA

Tokatu zait hamabost urteetan, bai irakasle bezala eta praktikan hirugarren munduko jendearekin edo Brasilen ezkeraren oso gune sendoa den leku batean, dezente eztabaidatzea eta sakontzea ezkerri buruz –sistema barruko ezkerri *ezkerra* deitzea ikusi beharko genuke egokia den–. Nolabait, horretan zenbat eta gehiago sakondu, diskurtso batzuk agortzen joan zaizkit barruan. Eta barruan hasi zait halako bidaia bat, oso ondo nora naraman ez dakidan bidaia intelektual bat. Iruditzen zait nire bidaia horretan zintzoagoa dela hutsuneak seinalatzea eta zalantzak mahai gainean jartzea, diskurtso demagogiko edo populista erraz bat egitea baino. Ez dakit ezkeriaz hitz egin litekeen gaur egun. Iruditzen

zait hemengo ezkerak dimisioa eman behar duela; nolabait esanda, Marxek *azpiegitura ekonomikoa* deitzen zion horretan alternatiba planteatzeari. Une honetan ezkerak egiten duena da liberalismo sozialdemokrata bati kolore gorrixegoak ematea; ez da ari hemen oinarriak jartzen, enpresek sortu behar duten aberastasunaz-edo. Zentzu horretan ez dago ezkerrik. Asko hitz jariora da; eta jario horretan esaten dena ere xehe-xehe joaten bagara irakurtzera, bada... Oso kritikoa naiz azkenaldian. Zenbateraino ezkerria ez da bihurtu Europako eta Euskal Herriko gizarte sektore zabal batzuetan kontzientzia onari eusteko mekanismo bat?

Progresista europarra eta, gure kasuan, progresista euskalduna dira planeta honetan hipokrisiarik finenetakoa eta sofistikatuenetakoa dutenak. Sistemaren kontrako diskurtso bat egiten du, baina bera sistemaren parte izanez eta, ez bakarrik parte, baizik eta sistemaren onuradun izanez. Ez du inoiz munduko kapa pribilegiatu horretan egotea zalantzan jarriko. Are gehiago, norbaitek bere estatus hori zalantzan jartzen badu, oso biolentoki erreakzionatuko du baina, aldi berean, hori bateragarri egiten du sistemaren kontrako balizko diskurtso batekin. Nahi dugu zirkulua kuadratu: ongizate estatuari eutsi, gure estatus ekonomikoari eutsi –kontsumoaren estatuari–, eta, aldi berean, tabernan eta botoetan diskurtso antisistema egin. Gezurra da.

Diskurtso ezkertiarra saiatzen da mila oreka egiten. Orain hazkundea sustatu behar omen da, eta hazkundea sustatzea beti izan da kapitalismoaren errezeta, eta justu ezker altermundista esaten ari zen hazkundearen deshazkundea bultzatu behar dela. Orduan, zer ari gara esaten? Ezker hau diluitzera doala iruditzen zait. Gehiago esango nuke: hemengo ezkerria eskuina da. Datozen hamarraldietan bestelako debate batzuk sortzera doaz: trantsizio-gileen eta garapen zaleen artekoak; petroleo merkearen gainbehe-

reak ekarriko ditu bestelako eztabaidak, eta horietan sartzera goaz. Momentu honetan egiten diren diskurtsoek demagogiatik asko dute. Zu esaten zabilta gobernuari gauzak gaizki egiten dituela, jakinda zuk gobernuan antzeko gauzak egingo zenituzkeela. Oso ilun jarri dut. Badaude alternatibak. Altermundialismo horretan oso intuizio interesgarriak daude; hor dago nekazaritza burujabetzaren gaia. Badago marjina, baina gehienetan ideia horiek eta proposamen berriak oso ertzean daude, oso alternatiba txiki, partzial eta konkretuetan mamitzen dira eta ez ezkerraren diskurtsoetan.

HEGO AMERIKA

Herri batek ez du hainbeste galdetu behar zenbat diru duen “pobreei” emateko –hori ere oso ondo dago–. Duinagoa da galdetzea zer esperientzia ditugun herri bezala haiekin konpartitzea, gu ere prozesuan gaudela. Lan horretan batek autoestima pixka bat irabazten duela esan beharra dago, herri bezala ikusten delako guk 50 urtean egin dugun lana, guretzat erdipurdikoa izanda ere –hala baita–, mundu mailatik begiratuta eta mundu mailan herri gehienak nola dauden ikusita eta hizkuntza gehienak zer puntutan dauden ikusita, oso balio handikoa izan daitekeelako inspirazio bezala, estrategia bezala. Euskara batzetik hasi, eskolak sortzea, hedabideak, kulturgintzan egin den lana, familia transmisioa... Uste dut badugula zer partekatu haien aurrean, eta zer ikasi ere bai haiengandik. Garabide elkartearekin orain arte, gehienbat, Hego Amerikan ibili gara. Orain hasi berri gara Asian eta Afrika iparraldean. Iruditzen zait euskal kooperazioan kanpora begira egiten den lankidetzaren ildo aberats bat bihur litekeela.

Ikastolei ematen diete meriturik handiena. Kitxuak gu baino askoz gehiago dira, bost milioi lagun izan daitezke, eta gobernua ere badute Bolivian, eta Ekuadorren ere gobernuak babesten ditu eskolak sortzeko. Dena den, egun haiei pentsaezina zaie eskola sortzea erabat kitxueraz ikasiko duena eta astean behin gaztelera emango duena. Erokeria bat da. Esaten diezu hori gure gurasoek egin zutela duela 50 urte, euskara zegoen bezala egonda eta frankismo betean, eta ez zaie sinesgarria egiten. Haiek B eredu triste batera iristeko lanetan ari dira. Gurearekiko harrotasun hori zaila zaie ulertzen, beharbada haiek gu baino askoz zapalduago izan direlako eta konplexu hori barneratuago dutelako.

Guretzat hizkuntza ia dena izan da eta hizkuntza transmititu dugu, baina bidean gauza asko galdu ditugu. Haien aldartea ez da hori. Haientzat hizkuntza bai, baina hizkuntzari lotuta beste gauza asko doaz: izateko era bat, lurra ulertzeko era bat...; haientzat kulturaren fluxu hori zabalagoa da. Guretzat ere bai, baina uste dut guk ez dugula asmatu kultur fluxu zabal hori bere zabal-tasun osoan belaunaldi berriei transmititzen eta berritzen. Eta gero nik uste gurea naturarekiko eta lurrarekiko kontaktua gero eta urrunago duen gizarte bat dela, eta haiek oraindik zenbait sen guk baino gertuago dituzte.

BISIOA, AUTOERAKETA

Badakigu estrategia zer den; helburuak kateatzeko artea, epe labur, ertain eta luzeko helburuekin kateak egitea. Baina plan estrategikoak gaur edozeinek egiten ditu, denok ditugu gure planak erakundeetan, baina plan estrategikoa edukitzea eta estrategia edukitzea bi gauza dira. Estrategiak behar du luzeagoa den pauso bat, bisio bat edukitzea. Estrategia bisio horren alaba da.

20-30 urteko bisio hori duzunean sortzen da galdera: hara joateko nola kateatuko ditugu helburuak? Hori falta izan da leku askotan, euskalgintzari hori falta zaio gaur, ez dakigula nora joan nahi dugun, non ikusten dugun gure burua, ez baita bakarrik nora joan nahi duzun. Bi gauza nahastu behar dituzu: zer nahiko zenukeen eta zer gertatuko dela uste duzun zuk, nahi edo ez. Bi horiek elkartzea da bisio lana eta hortik sortzen da estrategia.

Hori nahi izan zen egitea gure bailaran, Debagoienan, Bagara mugimendua sortuta. Bailararik kooperatiboena da: badugu unibertsitate kooperatiboa, badugu ikastola kooperatiboa, industriak... Ikaragarritzko sarea daukagu. Baina bakoitza bere lau urteko planarekin ari zen. Inor ez zen ari galdetzen bailarako gizarte bezala, gizarte antolatua ren aldetik, non ikusten dugun gure burua. Zer nahi dugu hemendik 30 urtera? Lau ipar sortu ziren. Autoeraketa da ipar bat; protagonisten zuzeneko kontrolpean dauden erakundeak izatea eta sortzea; industria, eskola, gaztetxea... bere protagonisten esku izatea. Beste ipar bat, euskaltasuna da; nola asmatu XXI. mendean euskaraz eta euskaratik beste hizkuntzetara zabaldua biziko den bailara bat. Hirugarrena, elkartasuna da; nola asmatu bestearekin eta, bereziki, okerren daudenekin enpatia garatuko duen bailara bat. Eta laugarrena eta beharbada denetan zailena, iraunkortasuna; nola asmatu gero eta gehiagora joaten ohitutako bailara bat, gero eta gutxiagorekin bizitzen ikasiko duen bailara izaten. Lau ipar horiek hartuta abiatu zen hainbat talde. Orain beste batzuk dabilta, batzuk birmoldatu egin dira... Hor lan egin daiteke nekazaritzaren ildoan, jubilazioaren ildoan, gazteen formazioaren ildoan, euskalgintzan, kulturgintzan, inmigrazioan eta beste hainbat taldetan.

Gutako batzuk kooperatibismoan hezitakoak gara nolabait, nahiz eta ez zaigun transmititu kooperatiben ideiarik. Orain dela hama-

bost-hogei urte ideia hori berrartzen hasi ginenean, belaunaldi bateko gutxi batzuk funtsezko ideia bat berriro mahai gainean indar handiagoarekin jarri nahian ibili ginen: gauzak bertako protagonistenak izatea, gauzen jabetza eta azken kontrola izatea bertako protagonistenak. Ideia hori, ez kooperatibismoa, baizik eta autoeraketa, nork bere burua eratzea, nork bere burua antolatzea eta gero kudeatzea iruditzen zaigu etorkizuneko ideia bat dela. Etorkizuneko mundua humanizatzeko ideietako bat da, etorkizuneko ideologien lehengai bat, materia prima bat. Intuizio horrekin hasi ginen, kooperatibismoaren formulazioari beste buelta bat eman nahian Hori izan da Huheziko Lankidetzaren Ikertegiak (Lanki) egin duen hasierako ibilbidea.

edurne brouard

korrikako arduradun ohia



alex silva,
2014ko uztailaren 15a

KORRIKA

Nire bizitza profesionala eta militantea Korrikan egin dut, 3. Korrika [1983] egin zenerako batzordearen partaide bainintzen. 3. edizioa Bilbon bukatu zen, eta ordurako Bilboko ardura-duna nintzen, eta azken sei Korrikatan arduradun nagusia izan naiz. Engantxatu egiten zaituen ekimen bat da, bere magian sartzen zarenean oso zaila da bertatik ateratzea. Gainera, gogorik ere ez duzu izaten ateratzeko, badelako Euskal Herria beste modu batean ikusteko eta ezagutzeko aukera. Sakonean ikusteko modu ikaragarri ona da, dauzkagun dohain guztiak baina ditugun miseriak ere ondo ikusteko lekua da. Nire formakuntza pertsonalean ezinbestekoa izan da Korrika eta Korrikak eman didana.

Korrikako lekukoa nik beti daramat bihotzetik gertu. Korrika utzi nuenean lankideek zintzilika daramadan lekukoaren erreplika txikia oparitu zidaten. Korrikak irauten duen hamar egunetan denetarik izaten da, baina beti esaten da gauza bat: “Ez galdu lekukoa begibistatik inoiz!”. Pasadizo gisa kontatuko dut, behin Lasarte-Oria aldean gertatutakoa. Lekuko txanda batean gizoneko bat zegoen zaldi baten gainean ikurrina erraldoi bat hartuta, txapela jantzita, eta, Korrikan lekuko aldaketa ospatzeko toki askotan suziriak-eta botatzen dituztenez, han ere bota zuten bat, eta zaldia beldurtuta joan egin zen gizona gainean zuela, eta Korrikako furgonetakoak jaitsi ziren eta atzetik: “Bota lekukoa! Bota lekukoa! Bota lekukoa!...”; hori zen esaten zuten bakarra, ez ‘kontuz’ eta ez ezer! Eta gizonak bota zien lekukoa!

Oso konplikatua da Korrika antolatzea. Arazo teknikoak, ideologikoak... AEK-k beti erabili du Korrika unean uneko mezua emateko, euskararen inguruan gertatzen direnak kontatzeko. Beraz, ez da erraza sozialki heltzea jende guztiarengana, eta azaltzea

Korrika jai bat dela, denak batzen gaituena, baina baduela beste-lako helburu bat atzean, zentzu bat. Baina nik egin dudan lanik politena eta esker onekoena dela izan da, dudarik gabe. Izan ere, egiten duzuna segituan ikusten duzu, eta, gainera, egiten duzun hori egundokoa dela ikusteko aukera ematen dizu.

Magikoa da, baina ez dago gauza zehatz bat magiko egiten duena. Gauza askoren batura da. Lekuko bat eta bakarra egotea garrantzitsua da. Lekuko horrek adierazten du denok garela beharrezko, eskuz esku doa, hor sinbolismo handia dago. Euskal Herri osoan, euskararen lurralde osoan egiten den ekinbidea da, horrek ere ematen dio berea; badakizu, adibidez, Lekeition eraman duzun lekukoa beste batek eraman(go) duela Atharratzen, Nafarroako Erriberan, Bizkaiko Enkarterrietan, Gipuzkoako Goierriin... Korrika egiten dugu, sinbolismo handia du horrek ere. Ez dugu denborarik astiro ibiltzeko, horregatik goaz korrika, eta gelditu gabe. Horiek hirurak dira ezaugarri nagusiak.

Nire kilometroak eginda, tokatu zait lekukoa pasatzeko unea. Zergatik? Uste dudalako aro bat bete dudala, ona dela Korrikarentzat jende berria eta ideia berriak egotea, jende gaztea ibiltzea. Ez nuke aipatu gabe laga nahi AEK-ko kideek eta Korrika batzordeetakoek egiten duten lan ikaragarria. Benetan langile militanteak eta onak dauzkagu, helburuak garbi dituztenak. Hori ere bada magia honen parte.

Uste dut iritsiko dela eguna Korrikarik ez duguna beharko. Baina egun horretan ere nik egingo nuke Korrika, jai giroan, Korrikarik ez dugula egin behar ospatzeko.

EUSKARA

Euskararentzat ez dira garai onenak, baina halako beste une asko ere izan dira. Honek aurrera egiteko zantzu guztiak ditu, ordea, nahiz eta badagoen kezkatzeko hainbat arazo. Hartu dugu martxa bat, eta nik uste dut martxa hori atzeraezina dela. Lan handia egin beharko dugu euskara galdu nahi ez badugu, arrisku hori egon badagoelako. Orokorrean, ordea, orain 30 urte baino hobeto gaude; batez ere, arduratuagoak. Militantzia gaizki ikusita eta baztertuta dagoen garai hauetan eutsi egiten dio jendeak euskaren aldeko apustuari. Duda barik baloratzekoa da, eta esan nahi du borroka honi oinarri bat ematen dion zerbait badagoela.

Egoerak ez dira berdinak leku batean edo bestean, eta erantzunak ezingo dira berak izan, tokian tokira egokitu beharko dira. Nik beti esan izan dut Nafarroakoa dela munduko gobernu bakarra bere hizkuntzaren aurka egiten duena. Hori Euskal Herrian gertatzen da, gure lurraldeko zati batean, eta tamalgarria da. Gainera, han ez du buelta errazik aldaketa soziopolitikoa ematen ez den bitartean. Iparraldearen kasuan desberdina da; gobernu arrotz batek ezarritako legeak dituzte, Paristik datoz arauak, pentsaturik frantsesa dela estatuko hizkuntza bakarra.

Baikorrak eta positiboak izan beharko ginateke. Euskal Herriaren populazioaren erdia inguru Bilboaldean bizi da, eta hor dugu erronka handia. Baina egia borobila da Bilboko alde zaharrean lehen ez zela euskararik entzuten, eta gaur egun bai, normaltasunez. Bestetik, herri txikiago eta euskaldunagoetan bizi garenok gure hizkuntza eskubideak bermatu eta erabili behar ditugu.

AITA

Santi Brouard beti izan da aita, laguna, maisua, militante kidea, nire alderdiaren presidentea, Herri Batasunan bere papera bete zuena... Hori guztia ere izan da guretzat. Haren ibilbideak nirea markatu du, goitik behera. Gure aitak bazuen dohain bat gure amarekin partekatzen zuena: biek jendaurrera eramaten zuten aurpegi hori etxean ere izaten zuten, eta umetatik egon gara ohituta gauzak eztabaidatzen, ulertzen... Uste dut Euskal Herriarentzat erreferente bat dela, koherentzia eta duintasunaren erreferentzia. Hark bazekien, zebilenean ibilita, gertatu zitzaiona gerta zekiokela edozein momentutan [GALek hil zuen, 1984an]. Hala ere, erabaki zuen hura zela bere eginkizuna eta azken muturrera arte eraman zuen duintasunarekin eta koherentziarekin.

Gure etxean askotan aipatu zen gerta zitekeela atentatu bat, eta gertatu egin zen. Baina aipatu zen gertatuz gero nola jokatu behar genuen, zer gauza egin, zer ez. Hori dena hala izanda ere, heriotza beti da kolpe itzela, eta gurean gertatutako heriotza modua, kolpe handiagoa.

Ni AEKn nengoen lanean egun hartan. Astearte bat zen, arratsaldeko sei eta erdiak. Ziurrenik, Korrikaren ekitaldiren bat prestatzen ibiliko nintzen, HBko egoitzara deitu nuen, bertan batzar bat nuelako, niretzat berria zen batzar bat. Non eta zer ordutan izango zen galdetzeko deitu nuen, eta, denbora luze batera, telefonoaren bestalde zegoenak galdetu zidan ea zein Edurne nintzen ni. "Brouard" esan nionean, azaldu zidan egoitzatik mundu guztiak korrika alde egin zuela gure aitari tiro bat eman ziotelako. Tiroa non eman zioten galdetu nion, gorputzaren zer partetan. Telefonokoak erantzun zidan mediku kontsultan eman ziotela.

Korrika atera ginen AEKren bulegotik. Aitaren lan kontsulta oso hurbil zegoen. Iristean atarian anbulantzia ikusi nuen eta horrek lasaitu egin ninduen, arnasa hartu nuen. Orain badakit anbulantzia beti joaten dela, nahiz eta gorpua egon. Gure aita hilda zegoen, tiroa jaso zuenetik. Ordutik aurrera, ezaguna da nire bizitza, disgustu guztiaren erdian hark publiko ere egin ninduelako.

Egon al da ikerketarik? Ez dakit nik... Ikerketa, gure aldetik egon da. Aurrera egin den apurra akusazio partikularrak egin duen ikerketaren bidez egin da. Ikerketa egin behar zuenaren aldetik, aldiz, ez da egon, eta, gainera, trabak besterik ez dira izan. Oztopoak jarri dizkigute aurrera egin ahal ez izateko. Baina, nire ustez, hori da Espainiako Justizia. Inoiz galdetu didate ea justizian sinisten ote dudan. Ni euskal herritarra naiz, Bilbon izan naiz orain arte, orain Lekeition bizi naiz, eta ez dut uste euskal herri-tar kontziente bat dagoenik esan dezakeena Espainiako Justiziak justizia egin dionik.

Guk ez genuen inolako babesik izan instituzioen aldetik. Hori bai, hasiera-hasieratik izan genuen gizartearen eta herriaren babes a eta berotasuna, osoa. Azaro honetan 30 urte beteko dira aita hil zutenetik, eta beti egin izan ditugu omenaldiak, beti egon dira jendez gainezka. Modu desberdinetan erakutsi digute gertutasuna eta maitasuna. Instituzioen babes a faltan ez dut bota izan; agian, horregatik. Gainera, benetan, guk ez genuen behar, hasieratik bagenuen beste mota hartako babes a.

Egia da azken urteetan gauzak gizartean aldatuz joan diren neurrian instituzioen eta abarren jarrerak aldatu egin direla. Beste biktimak agertu dira herriaren babes hori eskatuz, nahiz eta instituzioena bazuten. Egoera aldatu egin da, garbi dago hori. Eusko Legebiltzarrak gure aitaren plaka bat jarriko du 30 urte betetzen

diren honetan, aspaldi jarrita zeuden Fernando Buesaren eta Gregorio Ordoñezen plaken ondoan. Bere neurrian baloratu behar dira horrelakoak. Guk onean hartzen ditugu, onean planteatuta daudelakoan. Borondate onarekin datorrenari, borondate ona erakutsi behar zaio.

GLENCREE EGITASMOA

Glencree Eusko Jaurlaritzatik sortutako ekinbide bat izan zen, biktimen arretarako bulegoaren egitasmoa. Ni, behintzat, ezkutu-tuan deitu ninduten, eta planteatu zuten elkartze “klandestino” bat egin behar genuela batzuk eta besteok [GALen biktimak, ETArenek...]. Baldintzetako bat horixe zen, jendeak ez jakitea, sekretuan mantentzea, parte hartu behar zuten batzuk bestelako baldintzetan ez zirelako proiektuaren parte izango.

Horrekin orain zortzi bat urte hasi ginen. Nire lehen erreakzioa izan zen inondik inora ez nintzela joango halako toki batera nire penak kontatzera ezagutzen ez nituen pertsonen, eta, gainera, politikoki aurrean izan nituen pertsonen. Proposamena egin zidanak aipatu zidan Carmen Galdeanorekin neuk egiteko kontaktua [aita GALEk hil zion Carmeni]. Galdeanorekin hitz egiteko aukera banuenez, biok baloratu egin genuen eta duda askorekin baina erabaki genuen joatea, batez ere esan zigutelako gu joan ezean ez zela aurrera aterako; gure moduko profila behar ei zuten.

Gaur egun pozik nago han egon izanaz, uste dut oso esperientzia aberatsa izan zela maila pertsonalean. Gainera, euskal gizartearentzat eredugarria izan da esperientzia hori. Hondar ale bat jarri duela garbi dut. Pozik nago azkenean baietz esatearekin. Baina han entzun behar direnak entzutea... Sarri esan dugu norberak

pasatutako sufrimendua edozein atentatu gertatzean azalarazten dela. Beraz, imajinatu Glencreeko saioetan aurrean hildakoen alabak, anaiak, gurasoak, senar edo emazteak dituzunean bakoitza bizitako penak kontatzen; oso goera gogorra da.

Baina balio izan digu gure buruari buelta batzuk emateko, dena dakigula ez pentsatzeko, inkomunikazioa erabatekoa izan dela konturatzeko, eta uste genituen zenbait gauza horrela ez direla izan konturatzeko. Beste aldekoek-edo guk uste baino gehiago sufritu dute; ez da egia guk uste genuen babesa izan dutenik instituzioen partetik. Horrenbeste topiko erori zaizkigu elkar ezagutzaren ondorioz. Eta zer esanik ez haiek gu ezagutzean. Gu beزالako biktimak ez gara existitu estatuan, gu ezkutuan egon den errealitate bat izan gara; Euskal Herrian apur bat ikusi gaituzte, baina kanpoan, ezer ez. Denok ikasi dugu esperientzia horretan.

Gure aita hil zutenak ez dakit non ibiliko diren; ahal dela nire inguruan ez daitezela ibili eta kito. Ez dut uste planteatzen denik guztiok lagunak izan behar dugunik edota horrelakorik; planteatzen dena da elkarbizitzeko aukera posible dela. Guk erakutsi egin dugu; erakutsi dugu gure indar guztiak horretan jarrita, hori da garrantzitsua.

Glencreen egon garenon artean inork ez dio besteari iritzi politikoa-eta aldatzeko eskatu edo iradoki. Denetarikoak bizi gara hemen, eta erronka da elkarrekin bizitzea, denena errespetatuz. Eta 'denon' esaten dudanean, 'denon' esan nahi dut. Hau da, ez daitezela egon, egun dauden moduan, debekatutako ideologiak.

EUSKAL HERRIA

Dudarik ez daukat Euskal Herriak baduela konponbidea. Egon gaitezke ados hartutako bidearekin edo ez, gauza batzuk argiago ikusiko ditugu beste batzuk baino, borroka armatuaren balioaz eta etikaz eztabaidatu ahal dugu, baina gaur egungo egoera orain hamar urteko egoerarekin alderatuta, Euskal Herria beste parametro batzuetan dago. Jendeak parametro hauetan aurrera egiteko modua topatuko du. Gainera, euskararekin moduan, uste dut, orain bai, honek atzerabuelta ezinezkoa edo, behintzat, zaila izango duela. Hori ikusten da.

fermin muguruza

musikaria



olatz prat,
2014ko azaroaren 4a

(Fermin Muguruzak ez zuen saioa grabatzerik nahi izan, eta, ondorengo, 'Uztarria.eus'-en argitaratutako kronika da)

IRAGANA

“Iraganera joatea museoa bisitatzea bezala da, baina ez da beharrezkoa museo horretan bizitzen gelditzea. Nostalgiaaren aurkakoa naiz”. Aho bizarrik gabe esan du Fermin Muguruzak ez zaio la gustatzen iraganean bizitzea. Hala ere, gozo mintzatu da bere ibilbideaz eta oroitzapenez, Olatz Prat kazetariarekin, Sanagustin kulturgunean.

Gaztaroa izan du hizpide musikariak saioaren hasieran. Izan ere, garai hura erabakigarria izan zen haren militantziaren eta ideien garapenean. Irunen jaio zen Muguruza, eta hango La Salle ikastetxean ikasi zuen. Eskolatik kaleko oihiak eta “zurrunbiloak” entzuten zituzten; Poliziaren bozinak, sirena hotsak eta abar. Soinu haiek ziren garai hartako gizarte egoeraren adierazle, eta testuinguru horretan hazi eta hezi zen musikaria. “Garai garrantzitsua izan zen niretzat. Debekatua zegoen ikurrina, eta guk edozein lekutan margotzen genuen”. Euskararekin zuen harremana, ordea, gaurkoaren desberdina zen orduan: “Guretzat euskara oso gauza arrotza zen”.

MUSIKA

Haren militantzian “ezinbestekoa” izan da musika. Imanolen kaseteak, Mikel Laboaren abestiak eta Errobi taldea oroitzen ditu ondoen Muguruzak. Gaztetatik izan zen, beraz, garrantzitsua musika harentzat, eta horren erakusle da ondorengo urteetan

hartu zuen bidea. Badira 31 urte Fermin Muguruzak, bere anaia batekin eta beste lagun batekin, Kortatu taldea osatu zuela. “Kortatu eskola bat izan zen guretzat; herritarrei irakasteko eta guk ikasteko”.

Pedagogoa da Muguruza formazioz, eta horregatik ematen dio berebiziko garrantzia egiten duen guztia gozatzeari eta ikasteari. Hain zuzen, Kortatu taldearekin ikasi zuen dabilen harriari ez zaiola goroldiorik lotzen. Estilo eta genero aldaketa nabarmenak izan zituen Kortatu taldeak, eta gaztelaniatik euskarara pasatu ziren *Kolpez kolpe* hirugarren diskoarekin (1988). “Ni beti sentitu izan naiz oso eroso. Nire ibilbidearen sekretua da egiten dudak guztiarekin gozatu egiten dudala”.

Atzera begira hasita, Azpeitia bisitatu zuen aurreneko aldia etorri zaio burura. 1985eko martxoaren 22an izan zen lehen aldiz herrian, kontzertu batean. Garai haiek oso argi gogoratzen ditu Muguruzak: “Oso garai ausartak ziren. Euskal musikak une sendo bat izan badu, 1990eko hamarkada izan da”.

Orduan askok esaten omen zieten berriemaile lanak egiten zituztela beraien abestiekin, eta erabat ados dago Muguruza. Horren erakusle da *Sarri sarri* abestia, Joseba Sarrionandia eta Iñaki Pikabea euskal presoek Donostiako Martuteneko kartzelatik ihes egin zutenean sortua. “1985eko uztailaren 7an egin zuten ihes, eta *Sarri sarri* abestiarekin une horretako kronika bat egin genuen. Egun hori Euskal Herri osoak ospatu zuen, eta sentitu nuen horrekin abestia sortu behar genuela”. Ezaguna egin zen *Sarri sarri*, eta kanta horri egin zioten Kortaturen lehen bideoklipa; xumea, baina historikoa.

DOKUMENTALAK

Bideoklipez gain, dokumentalgintzan ere badu eskarmentua Muguruzak. Hain zuzen, hizpide izan ditu arabiar herrialdeen inguruan eginiko dokumentalak. Haren esanetan, esperientzia horrek ez dio gehiegi irakatsi “musikalki”, baina bai “pertsonalki”. Musikari dagokionez, ikusi zuen han “abantaila handia” dutela esparru horretan: “Sustraiak zaintzen dituzte, beraien erreferenteak beraien herrialdeko musikariak eta olerkariak dira. Globalizazioak lagundu die hemengo musika eta kultura ezagutzen, baina beraiena ez dute ahaztu”.

Ikusentzunekoen arloan egin duen azkeneko lana *Zuloak* da, mai-tasuna eta ezinikusia sortu duen obra. Dokumental faltsuak zeresana eman du Euskal Herrian, eta hizlaria jakitun da horretaz. Haren hitzetan, egin duen guztiak sortu izan du “oihartzuna”, eta hori onartzea ere bada artistaren lana: “Zenbat eta jarraitzaile gehiago izan, orduan eta aurkari gehiago izango dituzu. Hori horrela da”.

LIBURUA

Black is Beltza komiki liburua aurkeztar da Muguruza; 134 orrialdeko nobela grafikoa da, eta euskaraz, katalanez, gaztelaniaz eta frantsesez argitaratuko dute. Lanak ideia “bitxi” batean du sorburua. 2000. urtean otu zitzaion ideia, Iruñeko sanferminetako 1965eko argazki bat ikusi zuenean. Hari begira ohartu zen bertako agintariek ez zietela jaietako desfilean irteten utzi ekitaldirako prest zeuden bi erraldoi beltzi. “Kontu horrek zirrara sorrarazi zidan, eta gaiari heldu nion, Harkaitz Canorekin batera”.

Euskal Herrian eta nazioartean aurkeztuko dute *Black is Beltza*; Durangoko Azokan eta Mexikon, besteak beste. Oso argi du gero nola antolatuko duen bere jarduna: “Liburua aurkeztutakoan, desagertu egingo naiz denboraldi baterako”.

ramon saizarbitoria

idazlea



ramon etxezarreta,
2014ko abenduaren 16a

SOZIOLOGIA

Soziologia lanbidea izan da. Gainera, soziologia pobrea egin dut, egia esan. Deskribapenen soziologia egin dut, eta sektore bati mugatua: zerbitzu sozialak, ongizatea, pobrezia...; desgrazia horiek izan ditut mundu horretan. Egia esan, oso ondo bereizi izan dut beti mundu hori eta literaturaren mundua. Egia da garai batean bi gauzak uztartzea zail egin zitzaidala, literaturaren kalterako. Izan ere, lana interesatu izan zait, gogoia betetzen zidan, dirua irabazteaz haratago banuen zaletasuna, eta konpromisoa ere bai jaiotze-aurreko gaien inguruan.

Gauza asko ahaztu egin zaizkigu, baina nik ezagutu ditudan egoera larri batzuk duela 50 urtekoak dira: pertsonak ia biluzik lurrean, oso egoera txarrean. Gainera, gurasoentzat tragedia bat zen, lotsagarria baitzen halako ume atzeratu bat izatea. Gauza horiek ahaztu egin zaizkigu dagoeneko. Mundu horrek, horri buelta emateak, bete egiten ninduen. Jaio aurretik, adibidez, hemen, umeen hilkortasuna ikaragarria zen inguruko herrialdeekin konparatuta, zaintza medikua oso eskasa zelako. Interesatu egin nintzen, baina hor ere balio soziologikoa ez dakit zenbaterainokoa izan den; niri zuloak betetzea tokatu zait beti. Alde batetik ona izan da. Gauza asko egin ditut, egiteko asko zegoelako, dena baitzegoen egiteko; orain zailagoa da. Antzerkia egiteko zegoen, ez zegoen inor antzerkia egiten zuenik garai hartan. Irratia ere ez zuen inork egiten. Eta soziologiarik ere ez zegoen orduan. Dena zen tentagarria, eta uste dut gauza gehiegi ukitu nituela. Eta gauza gehiegi ukitzen dituenak sakonki ez du ezer egiten. Azkenean, literaturak errenditu egin ninduen.

Esango dut gauza psikologikoa ere izan zela, bizitzeko behar dudan zerbait bihurtu baitzait literatura. Badut joera kasuistika

sinpleak ez ikustekoa, kausa-ondorioa gutxitan baita sinplea: zerbait sortzeko, gauza asko gertatu behar izan dira. Esaten dutenean 'horrek errua du' edo 'honengatik izan da', hori, oro har, gezurra da. Literaturan ere badut joera hori, nire lanak korapilatu egiten ditu horrek: nahastu.

IDAZLEA

Ez dut uste gure artean seriotzat ikusten denik idazle izatea; zeresanik ez poeta izatea. Curriculumean inori ez dio laguntzen pare bat nobela idatzi dituela jartzeak, ahulezia bat-edo da. Hori aldatu egin da, mundu guztian galdu du idazleak itzala. Frantzian, adibidez, garrantzitsua izan zen frantsesentzat Georges Bernanosek esatea: 'Franco sekulakoak egiten ari da, kristauok hori salatu egin behar dugu, eta ez dira identifikatu behar Franco eta kristautasuna'. Gaur egun jarraitzen dute idazleek-eta sinadurak egiten. Hamar, hogeï, ehun idazlek sina dezakete zerbait ondo ez dagoela esanez, pentsatuta gizarteak onartuko duela hori ez dagoela ondo. Baina ez. Ez gara Bernanos. Beste gauza bat bihurtu da idazlea, orain ere ospea du, baina literaturan eta zineman beste rol bat du: arrakastari lotua, dirua irabazten duena, zinemari lotua. Hor bai, hor gehiago da. Esango genuke, gaur egun, futbolari izan nahi duten era beretsuan nahi dutela gazteek idazle izatea. Hain zuzen, badiarelako idazle inportanteak, gizarteak aintzakotzat hartzen dituenak, baina maila arin batean, ez serio lehengo idazleak bezala. Uste dut hor aldatu egin dela. Gainera, Euskal Herrian gehiago. Garai batean idazlea euskararen alde borrokatzen zena zen, euskarari eusten ziona, militantea; meritu hori ematen zion euskal gizarteak idazleari. Orain uste dut hori galdu egin dela.

Bertsolari baten hitzari garrantzi handiegia ematen zaio, literaturari baino askoz handiagoa. Ez zait normala iruditzen; ez nuke ondo edo gaizki kalifikatu nahi, baina uste dut ez goazela ondo. Badago, era berean, berezitasunak edo bereizkuntzak nolabait balioztatzeko zera hori, ezta? Eta horretan desberdinak garen neurrian, bertsolariei garrantzi handiagoa ematen zaiela esango nuke, eta ondo deritzot, baina...

LITERATURA

[*Egunero hasten delako, 100 metro edota Ene Jesus!* idatzi zituen frankismoan eta Franco hil berritan, eta gero hemeretzi urtean ez zuen idatzi]. Egia da frankismoan zuloak estaltzeko genituela. Nire inguruan ere ikusten nuen irakurtzeko gauza gutxi genuela. Garaiko mutil normal bat nintzen ni, beste pare bat hizkuntzetan irakurtzen zuena, eta hori euskararen mundura ekarri nahi nuen, nik normala izan nahi nuelako nire euskalduntasunean. Euskaraz idatzi nuen lehendabiziko artikulua *Ez naiz jatorra* da; hemeretzi urte-edo izango nituen orduan. Donostian kalean euskaraz jarduten nuen arrebarekin, eta beti zegoen kaputxino bat inguratzen zitzaiguna 'jarraitu, jarraitu euskaraz!' esanez, eta niri amorrua ematen zidan. Nik normala izan nahi nuen. Beharbada, euskararen egoera ez bazen hura izan, ez zitzaidan bururatuko idazten hastea. Kontua da hasi egin nintzela, baina esango nuke banuela idazteko gogoia, irakurritakoa bainintzen.

Ikusi nuen nire inguruan sortu zirela idazleak, idazle gazteak. Eta ikusi nuen, beste arlo batzuetan bezala, bete nuela nire papera. Antzerkiarekin ere gauza bera gertatu zitzaidan. Antzerkia egiten nuen, pentsatzen nuelako ez zuela inork egin nahi. Are gehiago, pentsatzen nuen haiek ez zirela euskaldunontzako gauzak, lotsa-

tiak garelako eta abar. Pentsa zenbat aktore atera den orain *Goenkale-n* bakarrik. Bestalde, politikak ere interesatzen ninduen. Lanean ere gai interesgarriak nituen, baina dena ezin. Sumatu nuen sobran zeudela liburuak euskaraz; bai, sobran ere bai. Konturatu nintzen euskal literaturak ez zuela nire libururik behar. Eta geroago pentsatu dudana da kontua ez dela euskal literaturak zer behar duen, baizik eta nik zer behar dudana: idaztea behar dut.

Fikzioa errealitatea bera baino egiagoa dela ez da astakeria bat, hori egia da. Fikzioak errealitatea ulertzen laguntzen digu, duina denean. Zer da duina izatea? Nola dakigu idazle bat duina dela? Nabaritzen diet hori idazleei irakurtzen ditudanean; eta esango nuke, gehienetan, idazle duinak gustatzen zaizkidala, miresten ditudala.

EUSKARA

Teknikoki elebakartasuna ondo dago. Komeni da nonbaiten, teknikoki, euskara nagusi eta hizkuntza bakarra izatea, beste erreferentziarik gabe garatzeko, erreferentzia propioekin. Hori egia da, baina ez dut uste lehentasuna duenik. Baina bai, horren falta badugu, eta horretan paper handia jokatu dute bertsolariek. Erreferentzia elebakar horiek, elebakar horiek galtzea kaltegarria da hizkuntzarentzat.

[Azpeitiko gazteek pentsatzea azpeitiarrez ondo moldatzen direla, gaztelania zaila iruditzen zaiela eta batua eskolarako hizkuntza dela] Hori oso triste da, eta Azpeitian tira, baina pentsatu hori Bilbon gertatzen dela. Hau da, bilbotarrek ahaleginak egiten dituztela bizkaieraz hitz egiteko, afektiboki bizkaierarekin lotuta sentitzen direlako eta nahi dutelako bizkaieraz egintea, eta, noski,

norbaitek laguntzen diela horretan. Iruditzen zait gure arazo afektibo horiek adierazten dutela, neurri batean, psikologikoki ez garela oso sanoak. Beti zelulan fokalizatzeko maite beharra: ez dut nire ama maite, nire amaren glandula zerebrala maite dut, hor dago nire amaren esentzia. Azpeitian oraindik jende asko dago bere euskalkia naturaltasunez menderatzen duena, baina jarrera hori gertatzen ari da euskalkia galdu duen jendearekin. Beraz, eskuzabalak izan beharko genuke; batez ere, euskaldun zaharrok. Konturatu beharko ginатеke euskara ez dela etxeko sukaldean jasotzen, ehuneko oso kopuru txikiak jasotzen duela euskara amarengandik, eta hor euskaldun zaharrek, nolabait, berriei entregatu egin behar diegula hizkuntza. Ahalegindu behar gara euskara batera egokitzen. Azpeitiko kaleetan bertako euskara erabiltzea ona da, baina kanpora joan eta esatea 'ni azpeitiarra naiz', nabarmendu dadila nongoa naizen... Azpeitiarrek ez dute hori zer eginik; nabari da hori egin gabe ere, ezta?

Jon Juaristik eskatu zidan nazionalisten istorioak idazteko, eta nobela elebidun bat egiten saiatu nintzen. Baina ez dago liburu elebidun bat egiterik. Ez da nire estiloa. Nire liburuetan apenas den elkarrizketarik, barneratuak dira elkarrizketak, eta gehienetan pertsonaia batetik mintzo den narratzaileak esaten ditu gauza guztiak. Eta euskaraz esaten ditu, noski, baita beste hizkuntzetan esandakoak ere. Noizbehinka elkarrizketak eta esaldiak errazak direnean beste hizkuntzetan azaltzen ditut; gaztelaniaz, adibidez. 'Hori guztia esan zuen, pentsatu zuen, sentitu zuen', eta... '*¡vete a la porra!*' [joan zaitez pikutara!]. Beraz, alderdi horretatik uste dut gure gizartearen egoera linguistikoa jasotzen saiatzen naizela. Nobela elebiduna euskaldunentzat egin beharko nuke, baina uste dut ez duela zentzurik.

HISTORIA

Nazionalista batzuek [Espainiako] errepublikarekiko izan zuten paper anbigua, nolabait, ulertzekoa da. Ulertzen dut garai hartan kristauek, kristau militanteak zirenek, errepublikarekin leialak izateko zuten zailtasuna. Hunkigarria egiten zait Jose Artetxeren obra osoan dagoen beldur hori, beldurraren eragina. Ez zait higuingarria egiten inondik ere, oso ondo ulertzen dut. Eta hor badut enpatia, baina nire kontua gerrari buruz oso sinplea da, tradizio bat jaso dut, nire kasuan nazionalistena; herentzia bat jaso dut, eta herentzia hori da orain gainbegiratzan ari naizena. Ez dakit errebisatu egingo dudan edo hori ere galdu egingo dudan.

Galdu egin zuten, baina zintzoak izan ziren. Ez zuten halako kalterik egin, nobleak ziren, eta egia da hori sinistu nahi izan dudala. Gainera, egia da neurri batean horrela izan zela. Soziologikoki, ikusi beharko litzateke zergatik izan zen horrela. Soziologikoki, etnologikoki, batzuk eta besteak ez zeuden hain urruti: zergatik batzuk izan ziren gaiztoak eta besteak onak? Egia da hor zortea izan zutela, garai batean belaunaldi zintzo, noble eta politikoki azkarra zena tokatu zitzaiera nazionalistei, Jose Antonio Agirre buru zela. Beharbada agintariak ez balira horrelakoak izan, haiei jarraitu zietenek beste bandera bati jarraituko zioten, eta besteek egin zituztenak egingo zituzten. Izan ere, batzuetan, nahiz eta materialismoaren eta marxismoaren istorioekin gatozen, egia da pertsonen garrantzia dutela historian, hori onartu behar da. Eta belaunaldi horrek, gerraren aurrean oso gazteak zirenak –Manuel Irujok eta konpainiak–, garrantzi handia izan zuten.

Beraz, nolabait, egoera edo testuinguruaren araberakoa izan zen nire herentzia, zortea izan nuen alderdi horretatik. Uste dut hortik ulertzen dela azken hamarkadetan abertzaleen jarrerak eta

indarkeriak egin didaten mina. Badakit zientifikoki gaizki ari naitzela, ez dudala zergatik sentitu behar haien oinordeko. Gure aitzindariak aukeratu egin behar ditugu. Ez da kontu genetikoa: nire aita karlista izan zelako, ez dut karlista izan beharrik eta karlistak miretsi beharrik. Hala ere, nik horrela sentitzen dut, nireak zirela gudari haiek, eta horregatik ematen dit min. Hemendik aurrera ezin dut esan nobleak ginela, zintzo portatu ginela, nahiago genuela hil hiltzea baino, garbi jokatu zutela. Historia hautsi didate, eta hori da pertsona bati egin diezaioketen gauzarik okerreana.

Koldarkeria eta zuhurtasuna askotan lotuta doaz. Eta gazteok nahiko petralak izan ginen. Gure errebeldia ia-ia biologikoa zen. Gainera, beti errepikatu egiten da, gerra aurrean ere hori gertatu baitzen. Orain EAJ eta Bildu; lehen Agirre eta *Irrintzi*; batzuk eta besteak. Historian beti horrela goaz, gauza berari bueltak emanaz. Penagarria da nola ez dugun historia gehiago irakurtzen. Izan ere, gehiago irakurriko bagenu, zera ikusiko genuke, 'begira, hau gertatu zitzairen haiei orain 50 urte, eta hara zer ebazpen txar eman zioten. Eman diezaiogun oraingoan hobe'. Baina ez dugu historia irakurtzen eta errepikatu egiten ditugu akatsak. Orduan errebeldia alferrikakoa izan zen, ez genuelako ezer lortu. Gauzak joan behar ziren ildotik joan dira, Franco hil zenean gertatu ziren gauzak, ez genuen guk hil. Beharbada, garrantzitsuenak arriskurik gabeko gauzak izan ziren. Adibidez, nik uste dut inportantea izan zela euskarari eman zitzaion buelta, euskara eta modernotasuna lotzea. Garai hartan hori egin ez balitz, orain askoz ere zailagoa edukiko genuke. Hori bai izan zela garrantzitsua.

‘HAMAIIKA PAUSO’

Hamaika pauso amaitzea lortu nuen, eta hori oso inportantea izan zen niretzat, egundoko pisua kendu nuelako gainetik. Urte askoan izan nuen hori buruan, egin ezinik, gauza asko gertatu zitzaizkidan hori egiten ari nintzela.

Ifniko gerra garaian (1957-1958) inguruan aditzen nuen jende gazteak beldurra zuela soldadutzan hara, Afrikara joateko, gerran sartzeko arriskua izango zutelako. Donostiako San Bartolome inguruko atezain baten semeari Afrikara joatea tokatu zitzaion, eta guardia egiten ari zela lo hartu zuen, besteak sartu ziren, ofizial bat eta ez dakit zenbat soldadu hil zituzten, alde egin zuten, eta hura ez zuten hil; esnatu zenean dena ikusi zuen, bilera egin zuten, eta fusilatzeraz kondenatu zuten. Entzun nuen haren gurasoek nola joan behar izan zuten Afrikara, ez dakit zer herritara, semea agurtzera, eta gogoan dut gau askoan ezin izan nuela lorik egin horrekin. ‘Guraso hauek bidaia bat egin behar dute beraien semeari agur esateko, baina ez oporretara doalako, baizik eta hiltzera doalako, hil egin behar dutelako’, pentsatzen nuen. ‘Ezin al da hori beste nolabait konpondu? Sar dezatela kartzelan-edo, baina ez dezatela hil’. Gero gauza bera berriro etorri zitzaidan Angel Otaegirekin. Guztiekin, baina harekin, bereziki; alde batekin, haren heriotza tristea izan zelako, bereziki. Nik ez nuen hura ezagutu, eta, orduan, ezin esan dezaket ezer, baina nik interpretatzen nuen bezala, kanpotik ikusita, kasu hark zirrara handia egin zidan, eta pentsatu nuen hori bota egin behar nuela; nolabait ere, forma eman behar niola eta hori gainetik kendu behar nuela. Eta horrela egin nuen. Kritikak errespetuz tratatu zuen, ez dira kritika asko ere izan, baina mundu guztiak esan du lan zintzoa dela. Gurutze Gorriko kapilau bat izan zen Otaegik azken orduetan eduki zuena, eta harekin egon nintzen.

Gauzarik dramatikoena kasu honetan da sumarioan ia ez dela ezer azaltzen. Hor edozein abokatuk edo epailek esango zukeen, nolabait: 'Hemen agertzen zaizkigun gizon hauetatik fusilatu daitezke hainbat eta hainbat, hau izan ezik, hau baita gutxien egin duena'. Hori da, agian, tristeena; nola, hain zuzen ere, Angel aukeratu zuten. Hori da dramatikoena. Nik gure gazteei ia edozer barkatzen diet, baina zaharrei gutxiago, eta zahar bultzatzaileak ez ditut aguantatzen; jendea gerrara bultzatzen zuten zaharrak, xaxatzaileak.

Jon Juaristik gaztelerara itzuli zuen *Hamaika pauso*. Ni ez nintzen ohartu erdia-edo itzulita zeukan arte. Niri ezer esan gabe hartu zuen itzultzeko lana. Juaristik hainbeste gauza esaten ditu publikoki... baina ea, nik beti eutsi izan diot pertsonajeari. Izan ere, kulturalki balio handiko gizona iruditzen zait, eta idazleei zein pentsalariei onetik ematen dutena hartzen diet, interesatzen ez zaidana ez diet hartzen, eta kito. Jende honek beti du zerbait originala emateko, eta Juaristiren kasuan, formaren aldetik ere bai.

DONOSTIA

Egia da, askotan, euskaldungoan batez ere, donostiar izatea zaila dela. *Ñonostiarrek* ez gaituzte oso ondo ikusten. Donostiako liberaltasuna eta Donostiako liberalak Euskal Herri osoak onartu behar lituzkete. Eta euskararen kalea Donostia da, bere gauza onekin eta txarrekin. Badakit hiri turistiko antipatikoa dela; donostiarrok gara, era berean, geure herriaren kritikorik handienak. Barojak esaten zuen gipuzkoar izatea gustatzen zitzaiola, donostiar izatea ez. Baina nik uste dut gutxi garela eta harreman hobea beharko genukeela gure artean. Pena ematen dit, askotan, gipuzkoarrek harreman afektiboa lortzeko duten zailtasunak,

nahiz eta Donostiarekin horrenbeste urtean bizi. Baina euskal pizkudetik bigarrena edo hirugarrena izan zen Donostia. Frankismoan bertan ere, euskara babestu zuten frankista bakanak Donostian izan zirela gogoratu behar dugu. Han iraun zuten Eusko Ikaskuntzak edo Euskaltzaindiak.

gaizka garitano

futbol entrenatzailea



ander ugarte,
2015eko martxoaren 10a

MOMENTUA

Eibarreko [futbol taldeko] hau amets bat da [Espainiako Lehen Mailan egotea]. Beharbada, barruan gaudenok desberdin ikusten dugu eta momentu askotan ez gara horren jakitun, astirik ez dugulako eduki tarte luze bat hartzeko eta kanpotik ikusteko. Baina hemendik urte askora gogoratuko dugu, eta gozamen bat izango da. Gozatzea bete-betea bizitzea da. Dena ondo prestatzeko lan handia gabiltza egiten, bai jokalaria eta bai gu. Gero hobeto edo okerrago aterako da, baina behintzat, damu hori ezin dugu eduki. Hemendik urte batzuetara pena bat izango litzateke esatea: 'Bai, Barçaren kontra jokatu genuen, baina ez genuen benetan gozatu'.

Baina oso gauza onak etortzen direnean larregi gozatzen duen pertsona bat ez naiz ni. Beti hurrengo egunean zer egin behar dudan pentsatzen nago. Lehen Mailara igo ginenean buruan proiektu bat geneukan, zer egin behar genuen, zer jokalaria berri ekarri...; gauza asko buruan, eta disfrutatzeko ez genuen denbora larregirik eduki. Orain oso momentu txarrak ari gara bizitzen, baina horrelakoetan ere ez naiz larregi sufritzen duena. Alde horretatik nahikoa orekatua naiz.

Beti baikorra naiz, eta aurrera begiratzen dut, ez zait gustatzen atzera begiratzea. Atzera begiratzeak energia kentzen dizu. Dagoenarekin jarraitu behar da, eta aurrera beti.

FUTBOLA

Nik jokalaria bezala bizi izan ditut hartzekodunen konkurtso bat, enplegu erregulazio bat... Tranpa asko egin dira futboleant. Beste

kontu bat ere badago: gaur egun dagoen krisiarekin, gaur egun jendeak dituen arazo ekonomikoekin, zer laguntza ematen zaien futbol klubei. Nik jokalaria bezala ere bizi izan dut hori: hemengo klub bat hartzekodunen konkurtsoan sartu zen, jokalariei eta langileei ordaindu gabe zegoen, eta handik bi hilabetera fitxaketa berriak egin zituen, jokalaria kanpotik ekartzeko. Ez dakit zer zentzu daukan horrek. Kotxe zahar bat daukazu eta berria erosten duzu, zaharra pagatu gabe eduki arren. Hori klub askok egin dute. Futbolak etxean egiten dugunera jo behar du: zenbat diru daukazun, hori gastatzen duzu. Beraz, futbolak horra jo behar du; diru sarrerak hauek dira eta hori gastatu behar duzu, gehiago ezin duzu gastatu. Etxean familiek hori egiten dute. Enpresek hori egiten dute. Zergatik ez futbol klubek? Gero, bestela, guztiok jartzen dugu dirua klub horiek salbatzeko. Gaur egun gizarteak bizi duen egoera kontuan hartuta, nik uste dut hori ez dela bidezkoa, ezin daiteke egin. Orain gauzak ari dira pixka bat konpon-tzen eta klubei kontrola egiten hasi dira. Baina azkeneko urteotan gauza ilun asko gertatu dira futbolean.

Futboleaz azkenean klub txikiek sufritzen dute. Begiratu, Eibarri: urte honetan kapital handitze bat egin behar izan du. Azkeneko urteetan futbolaren funtzionamenduaren kalteturik handiena Eibar izan da: beti ordaindu izan du egunean, ez du inoiz arazorik eduki inorekin, eta kapital handitze hori egin beharra, beste klub batzuk zorrekin daudenean... Jendeak jarri du dirua.

Baina futbolak jendea mugitzen du. Gauza garrantzitsuago batzuk badaude, eta ez gara mugitzen. Futbolak badauka hori: jendea futbolagatik mugitzeko prest.

FUTBOLAZ GAIN

Gure familian futbolariak edo entrenatzaileak izan dira beti; nire amaren osaba ere futbolaria zen, Koldo Agirre Athleticceko futbolari famatua. Txikitatik beti baloiarekin ibili naiz, eta futbola beti buruan ibili dut. Futbola utzi nuenean, entrenatzaile bezala jarraitu dut, eta hor gabilta. Asko gustatzen zait, eta gustura nago mundu honetan.

Baina futbolari nintzela ikasketak egin nituen. Ikasketekin jarraitzeagatik eskerrak eman behar dizkiet gurasoei, beti oso gainean egon zirelako. Beharbada, ikusi zuten semea futboleaz ez zela hain ona, ez zela ailegatuko... 11 urterekin sartu nintzen Lezaman, Athleticean. Hamahiru-hamalau urte genituela, taldekide gehienek utzita zeuzkaten ikasketak, eta buruan zutena zen Athleticceko jokalaria izango zirela. Gehienak ez ziren iritsi, eta 20-25 urterekin dirurik irabazi gabe eta ikasketarik gabe zeuden. Hori drama handia zen. Orain gehiago zaintzen da.

Futbolaz gain, bertsoak oso gustuko izan ditut txikitatik. Etxean-eta nire bigarren zaletasuna izan da. Eibar Lehen Mailara igo zenean, ospakizunean udaletxeko balkoian bertso bat kantatu nuen. Ospakizunak ez zaizkit larregi gustatzen, eta, egiten diren formatuan, are gutxiago. Guk ere jokalaria espainolak baditugu, eta ospakizunaren formato hori badakit nola joaten den normalean. Beraz, zerbait berezia egitea pentsatu nuen, nire ekarpen txiki bat euskararen alde, edo gure kulturaren alde, hobeto gelditzeko.

Beti izan naiz letra zalea. Latina, grekoa, literatura... asko gustatu izan zaizkit. Txikitan oso nota onak ateratzen nituen letretan, eta horregatik ikasi nuen Kazetaritza. Idaztea ere gustukoa dut, baina horretarako balio egin behar duzu.

Futbolean oso gustura nago, baina futbolak desgaste handia dakar, eta ez dut ikusten neure burua denbora askoan hau egiten. Bizitza bakarra da, eta buruan hori bakarrik edukitzea muga bat bezalakoa da da. Tristeia da bizitza ez aprobetxatzea beste gauza batzuk egiteko. Baditut buruan gustuko beste gauza batzuk, eta egunen batean saiatuko naiz egiten, agian.

KOMUNIKABIDEAK

Ez dut jarraitzen kirol kazetaritza, eta telebistan futbolaz hitz egiten duten edo atzean istorio bat daukaten programak soilik ikusten ditut: *Informe Robinson* edo *Espacio reservado*. Egunero bizi dugun zirku hau jarraitzeak ez nau betetzen. Elkarrizketa asko eskatzen dizkidate, baina nahi ditudanak hartzen ditut. Denetara ez gara ailegatzen, gainera. Azkenean, denbora kentze bat da lanerako edo zure familiarekin egoteko.

Errespetua dagoenean, oso ondo moldatzen naiz kazetariekin. Niretzat errespetua oso balio garrantzitsua da, dagoen gauzarik inportanteena. Niri kritikak ez dit minik egiten, errespetua dagoen bitartean. Hori galtzen denean, dena galduta dago. Kirol kazetaritzan arrisku hori dago, eta jokalaria izan garenean bizi izan dugu. Errespetu ezatik aurrera ez dago ezer, amildegia baino ez. Baina, momentuz, gauzak ondo joan dira.

EUSKARA

Euskara eta hedabideak gaiak kezkatu egiten nau. Niri prentsa agerrialdietan soilik euskaraz mintzatzea gustatuko litzaidake. Behintzat, Euskal Herrian egiten ditugun prentsaurrekoak euska-

raz izan daitezela, soilik euskaraz. Ari gara pausoak ematen, baina bidean ez ditugu aurkitzen behar ditugun erraztasunak. Adibide bat jarriko dut: David Moyes Realeko entrenatzaileak ingelesez ematen ditu prentsaurrekoak, eta [gaztelerarako] itzul-tzaile bat dauka. Ernesto Valverde Athleticekoak gazteleraz ematen ditu prentsaurrekoak, eta ETB1en euskarara pasatzen dituzte haren adierazpenak. Euskaldunon *desgrazia* da gazteleraz badakigula, eta orduan ematen du errazena hala egitea dela. Baina, azkenean, nik, euskaldun gisa, eskubide hori urratuta dudala sentitzen dut. Horrek zer ekartzen du? Nire ahotsa askotan gazteleraz agertzen dela telebistan. Ez diot horri zentzu handirik ikusten, ez dakit zergatik agertu behar den erdaraz. Ondorioz, horrek zer dakar? Adibidez, gu Bergaran askotan entrenatzen gara, eta entrenamendu bukaeran umeak etortzen dira, dozena bat, eta esaten didate: “Garitano, ¿me firmas un autógrafo?” [egingo al didazu autógrafo bat?]. Nik esaten diet, euskaraz: “Bai ; zer nahi duzu jartzea?”. Azkenean, telebistan agertzen garenok eredu bat gara umeentzat. Orduan, ez dakit euskaldunok zergatik ez dugun euskaraz ager-tzeko eskubidea.

Telebista eta kazetariak hor daude, eta haien laguntza ere behar dugu. ETBrekin hitz egin dut, eta pausoak ari gara ematen. Esaterako, kanpoko partidetara ETBtik gurekin Joseba Urkiola kazetaria etortzen da, eta asko laguntzen dit. Prentsaurrekoetan beti euskaraz hasten gara. Urkiola bere partea jartzen ari da. ETBk ere askotan ahalegina egiten du, badaki nire eskakizuna zein den, eta laguntzen dit, baina ez beti.

Denok eman behar ditugu aurrerapausoak. Realean ere jokalaria euskaldun asko dago, Athleticen ere bai, baina ez da egon benetako mugimendurik. Mila pauso daude emateko, eta errazak gainera, ez da gauza zaila borondatea baldin badago denon aldetik.

Gero tabernan beste entrenatzaile euskaldun batekin edo jokalaria batzuekin elkartu, eta denak gaude horren alde. Baina nork ematen du pauso hori? Klubek ere gehiago egin beharko lukete euskararen alde.

Gauzak egin nahi dituzunean, egin behar dira. Nik uste dut zer-bait egiten dudala, ahal dut gehiago egin eta nire burua estutu behar dut gauza gehiago egiteko. Baina osagai gehiago daude hor, eta lagundu egin behar gaituzte, behintzat Euskal Herrian prentsaurrekoak euskaraz soilik emateko. Bestela, hemendik urte batzuetara damutu egingo gara, beharbada.

POLITIKA

Kaleko Euskal Herria hor dago, plazakoa, herritarren mugimendua, kultura, euskara, bertsolaritza, idazleak, kultur eragileak... Horretan zer gertatzen den, gero bestea mugitzen da, edo aukerak egon daitezke zeozer gehiagorako. Baina Euskal Herriaren egoera aspalditik ez dut hain argi ikusten, edo ez naiz hain baikorra. Batez ere, Madrildik eragozpen handiak ditugulako eta elkarbizitza orekatu batera ailegatzea ez delako hain erraza izango. Orokorrean, jendea nahikoa konformista ikusten dut. Badaude mugitzen diren gauzak, Gure Esku Dago hor dago, eta hor atzetik lan egiten duen jendea, baina ez toki guztietan... Ni leku askotan ibiltzen naiz: Zarautzen bizi naiz, Deriokoa naiz, Donostian ibiltzen naiz asko, Bilbon asko, A8an ere bai, eta kalean ikusten dudanak etorkizunerako edo etorkizun hurbilerako itxaropen larregirik ez dit ematen.

Euskal Herriaren independentziaren aldekoa naiz. Jende asko eta asko gaude independentziaren alde. Erabakitzeko eskubidea

oinarrizko eskubide bat da, eta oinarritzko eskubide baten kontra egiteak orain dela 40 urtera eramaten gaitu. Arriskutsua da hori. Beraz, erabakitzeke eskubidearen kontra dagoena lotsatu egin beharko litzateke. Gainera, publikoki agertzen garenok zer nahi dugun ozen esan behar dugu eta lotsarik gabe. Klabea da hori. Telebistan edo prentsan agertzeko aukera ematen digutenok harro egon behar gara nahi dugunaz. Izan ere, bakoitzak pentsatzen duenagatik besteek zer esango duten egotea... Orduan ez nintzateke entrenatzaile izango. Norberak kontzientzia lasai eduki behar du, eta inori minik ez egitea oso garrantzitsua da. Baina zure ideiak plazaratzea eta naturaltasunez esatea txikitatik dohain bat bezala ikusi dut.

SELEKZIOA

Euskal selekzioari dagokionez ere ezkorra naiz, barrutik hori guztia nola doan bizi izan dudalako. Aurrerapausoak ematen ari direla egia izango da, baina hori ikusi beharko da. Denon aldetik dago gehiago egiteko, baita jokalarien aldetik ere. Euskal jokalaria asko joaten dira Espainiako selekziora, eta ondo ikusten dut, betiere hori sentitzen badute eta ondo ikusten badute; eskubidea daukate. Baina gure selekzioarekiko jokalarien aldetik ere konpromiso falta handia izan da betidanik; beharbada, atetik barrura gauza bat esaten dugu eta gero kanpoan beste gauza bat egin. Eta, gero, betitik traba handiak daude, bai Madrildik, bai federaziotik, eta oso zaila da. Baina, batik bat, trabarik handienak barruan daude, hemen. Gure artean ez bagara konpontzen, iraultza txiki bat ez bada ematen euskal jokalarietan, euskal klubetan... Errazena da esatea Madrilek ez digula uzten, federazioak ere ez, eragozpen handiak daudela, hori ezinezkoa dela, FIFAk ez duela uzten... Kanpora begiratu baino lehen, barrura begiratu behar dugu. Eta,

gure artean pausoak ematen direnean, orduan kanpora joateko aukera edukiko dugu eta esateko ez digutela uzten, edo halako eragozpenak daudela. Baina barruan ez dut ikusten inolako mugimendurik.

PAREKIDETASUNA

Emakumea gero eta gehiago dago sartuta futbol munduan; nesken futbola indarrean dago, gero eta gehiago ikusten ditugu epaile eta marrazain ere, baina asko dago emakumeen alde egiteko. Gizartea oraindik nahikoa matxista da, eta futbola, pixka bat gehiago. Oraindik toki batzuetan ez dago ondo ikusita neskak futbolean aritzea, eta hori aldatu egin behar da.

Gu txikiak ginela mutilak bakarrik ibiltzen ginen futbolean; neskak sokasaltoan edo beste gauza batzuetan aritzen ziren. Ni orain herriko plazara noanean nire alabekin, mutilekin ibiltzen dira futbolean. Hori, behintzat, aldatu da.

eskerrik asko denoi

*laguntzaileak,
azpeitiko udala eta gipuzkoako foru aldundia*

 aho bizzarrik gabe